goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2013-03-15
EGUBAKOITZA
545. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

# Nazioarteko lehian, MU partaide

Bederatzi ikaslek parte hartuko dute | 4



Robotek taldea. | TXOMIN MADINA

Euskal Herriko musika eskolen topaketa egingo dute Oñatin | 31



Badihardugunen jaialdia gaur, egubakoitza, Elgetan | 32




Bihar jokatuko da Arabako Bertsolari Txapelketako finala, Gasteizen | 33



# LEKUKOA HARTZEKO GOGOTSU

Korrika 18 atzo, eguena, abiatu zen Andoaindik. Martxoaren 21ean sartuko da Debagoienera. Oraingo asteburuan, baina, dira Korrika egunak gurean

4. orrialdea eta 'Herriak' saila

Arrasateko AEK-ko ikasle eta irakasleak euskaltegiaren ikasgela baten, Korrikako petoak jantzita dituztela. | JAGOBA DOMINGO

# Isileko historia pantailaratu egin gura du Intxorta 1937 kultura elkarteak

*Bergara 1936. Gerra eta errepresioa* ikus-entzunezkoa grabatzen dabiltza. Asmoa da Bergarako jaietan estreinatzea lan hori. "Gerra eta errepresioa jasan zutenen testigantzetan" oinarrituko da. Dagoeneko hasi dira grabazioak egiten, Bergaran. Hurrengo, Elgetan grabatuko dute. | 11

## SINADURAK

ESTEPAN PLAZAOLA | 6
6 | JOKIN BEREZIARTUA
OIHAN ZUBIZARRETA | 12
24 | TXOMIN AZPITARTE
AINTZANE OIARBIDE | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

# "Gustatuko litzaiguke ETB1eko audientzia euskaldunen %10era heltzea"



**Maite Iturbe**

EITBko zuzendari orokor berria | 10

# Aita Santu berriak "jendea behealdera jaisten" animatuko du

Pello Zabala frantziskotarrak egin du balorazioa | 5

SEAT ALHAMBRA
Gozatzeko teknologia



Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
SEAT

# Erlijiotik kanpoko heriotza-errituek ere badaukate bere lekua

- Hilerri ateoa egin du arabar batek Eskuernagan
- Gastu bakarra oroitarriarena da, 20 urterako
- Hileta zibilak araututa daude Debagoienean



Ibaola Harriak izeneko hilerrian Joseba Ibañezek ipini dituen harri batzuk. | JOSEBA IBAÑEZ

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Eliza Katolikoaren heriotza ondorengo errituez kanpo geratu nahi dutenek gero eta aukera gehiago dituzte horretarako. Azken urteotan, hileta zibilak baimentzeko eta arautzeko udal ordenantzak egiten joan dira Debagoieneko udalak, eta herri gehienetan aukera hori badauka eskaera egiten duenak. Era berean, Debagoienean ere egin izan da hileta musulmanen bat, nahiz eta bailaran hil izan diren musulman gehienen kasuan, kanpotarrak izanda, jatorrizko herrialdera bidali izan dute gorpua.

Debagoienean, beraz, bada hileta zibila egiterik, baina, oraingoz, ez dago ehorzketa-leku edo hilerri laikorik. Esan behar da herriko hilerriak, berez, zibilak direla, ez dira erlijio jakin bateko sinestunendako bakarrik, nahiz eta, Euskal Herrian erlijio katolikoak historian izan duen indarrarengatik, oraindik ere hilerriak giro eta estetika erlijiosokoak dira. Sinestunak ez direnek bi aukera nagusi dituzte: herriko hilerrian ehorzketa edo errautsak gordetzea, eta han izatea oroimenerako lekua; edo

Hilerri zibilak oso ezohikoak dira, orokorrean, baina hemendik gertuan badago bat, eta denondako zabalik dago. Hain zuzen, Eskuernagan dago, Arabako Errioxan.

### Testuinguru ateoa

Eskuernagakoa da Joseba Ibañez. Ibaola Harriak izena eman dio ia hektarea bat hartzen duen lur-eremu horri. Horren berri ematen hasi da, eta lagun aretxabaletar batzuen bitartez, Debagoieneko jendearengana ere zabaldu nahi izan du aukera hori. "Hilerriak, teorian, ez dira bakarrik katolikoendako, eta norberak nahi duena ipin dezake hilarrian; baina testuingurua, ingurunea, erlijiosoa da hilerrietan, sinbolo erlijiosoz josita daude, eta ez dago ateoondako testuingururik. Hilerri honetan, erlijioak onartzen ez ditugunon filosofiarekin bat datorren testuingurua sortu nahi izan dut", esaten du Ibañezek.

Ibaola Harrietan, hildakoaren errautsak banatu eta hildakoa gogoratzeko harria izan dezake norberak, nahi duen sinbolo edo idatziarekin edo nahi bezala landuta. Horrez gain, errautsak banatzerakoan gerta daitezkeen arazoak edo trabak konpondu nahi dira: "Mendian-eta sakabanatzen dituzte askok hildakoaren errautsak, baina lekuaren erreferentzia galdu egiten da, eta gure kulturak hildakoak leku batekin lotzen ditu. Bestetik, askok leku publikoetan, mendi publikoetan ipintzen dituzte monolitoak eta oroitarriak, eta ingurumena nahastu egiten da horrela". Gaineratu behar da norbaiten errautsak itsasora, mendira edo beste leku publikoren batera botatzeko, aurrez baimena eskatu behar dela.

Hilerri ateo horrekin, errautsak "leku zehatz, zaindu eta arautu baten" uzteko aukera eman nahi du Ibañezek, "gure artean egon zen hura gogoratzeko harri batekin".

Ibaola Harrietan atseden-tokia gura duenak ordainketa bakarra egin behar du: "Hainbat neurriko harriak daude aukeran; gehienak angeluzuzenak dira, metrotik bi metro artean, eta 500 eta 1.000 euro artean kostatzen dira, tamainaren arabera. Norberak nahi duen erreferentzia edo izena daukan plaka ipin diezaioke. Familiari edo gertukoei errautsak eta harria gutxienez 20 urtean han izango direla ziurtatzen duen dokumentua ematen diet. Eta gero, beste senide bat hiltzen bada, plaka aldatu daiteke".

### Ingurua biziberritu

Denondako zabalik dago Ibaola Harriak; errautsak bertan nahi dituztenendako, senideendako zein beste guztiondako. "Bisitarako guztiz zabalik dago. Senideren baten errautsak bertan dituenarendako, urtean behin etortzea nahikoa izan daiteke; inguruan janari eta ardo-turismo pixka bat egin daiteke, inguruneaz gozatu eta norberaren hildakoak omentzeko behar hori paseatzearekin eta ingurumenarekin lotu".

Joseba Ibañezek Eskuernaga inguruak bisitatzera animatu nahi du, bide batez: "Lur-eremu hori, garai baten, mahastietarako erabili zen, baina ikusi nuen berriz horretan sartzeak ez zuela errentagarritasunik izango. Harria lantzea asko gustatzen zait, betidanik, eta hasieran, neuretako hilarria ipini nuen. Gero etorri zitzaidan jendea galdezka, ea euren errautsetarako ere lekua utziko nien. Horrela etorri da hilerriaren kontua. Bide batez, hainbeste mahasti egoteak pobretutako ingurune bat biziberritu nahi izan dut".

### Hileta zibiletan, eduki libreak

Inguruan ez dago halako hilerri ateoren erreferentziarik; eta Joseba Ibañezek dio urrutian berak ere ez duela aurkitu. Baina badaude hileta zibilen erreferentziak, inongo erlijiotik kanpo egiten direnak. Hala, Debagoieneko udalek dagoeneko horien gaineko ordenantzak dituzte; gehienak 2010ean eta 2011n onartu ziren. Oraingoz, halako hileta gutxi egin izan dira.

Hileta zibila egiteko aukera dauka edozein herritarrek. Normalean, hildakoa dagokion herrian erroldatuta izana eskatzen da hileta zibila bertan egin ahal izateko. Prozedura erraza da: eskaera-formularioa bete behar da eta alkateari zuzendu edo, auzo baten egin gura bada, auzo -alkateari. Udal bakoitzak hileta zibiletarako erabil daitezkeen lokal, leku edo ekipamendu batzuk ditu izendatuta, eta horietako bat eska daiteke. Herriz herri, honako lekuak daude hileta zibilak egiteko eskatzeko moduan: Arrasaten, Aldaiko parkea eta San Kristobalgo hilerria; Bergaran, Kataibiako plaza eta Angiozar, Osintxu, Elosua, Elorregi, Basalgo edo Uberako auzotarrendako, auzoko pilotalekua; Oñatin, San-

**ESANAK**

**"Errautsak mendian sakabanatzen direnean, lekuaren erreferentzia galtzen da"**

**"Hildakoaren errautsak leku zehatz, zaindu eta arautu baten uzteko aukera eman nahi dut"**

JOSEBA IBAÑEZ



Arrasaten orain dela urte batzuk egin zuten hileta zibila. | GOIENA





Ibañezek egindako beste lan bat. | J.I.



Harriekin egindako eskulturak eta apaingarriak ere badaude. | J.I.

ta Ana antzokia eta kanpoaldea; Eskoriatzan, Ibarraundi museoa, pilotalekua, Santa Marina plaza eta Eduardo Gorosarri plaza; Aretxabaletan, udaletxe osteko loratégia eta Iturrigorri frontoia; eta Antzuolan, frontoia eta eskolako aterpea.

Hileta zibilak, funtsean, omenaldi ekitaldiak dira eta, hala diren neurrian, edukia nahiko librea da. Herri batzuetan, udalak zenbait borondatezko hizlari dauzka, ekitaldi horietan hitz egiteko gertu egoten direnak. Antolatzaileendako zentzuzko baldintza gutxi batzuk daude, hala nola leku publiko hori errespetatu, erabili behar den materiala batu, eskaera-orrian adierazi den gehieneko iraupena bete eta antzekoak.

Hileta zibilen gaineko berezitasun bat hau da: berehalakotasunaren printzipioaren arabera arautuko direla, eta horretarako, alkateak edo ordezko zinegotziak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu. Gainera, lokal horiek erabiltzeko ordenan, lehentasuna izaten dute hiletek.

Norberak eska dezake hileta egin gura duen eguna eta ordutegia, eta Udala, ahal duen neurrian, hura betetzera konprometitzen da. Esan behar da oso aukera zabala dagoela hileta zibila programatzeko: herri batzuetan, astelehenetik domekara, goizez edo arratsaldez egin daiteke; beste batzuetan, astelehenetik zapatura. Eta, herri batzuetan, gainera, beste artikulu garrantzitsu bat dago: behar den dokumentazio guztia aurkezten bada eskaerarekin batera, hura automatikoki onartuta ulertuko dela. Bergarako ordenantzak esaten du hori, adibidez.

Erlijioetako liturgietatik kanpoko hileta egin gura denean, edozein modutan, hileta-zerbitzu enpresek egin beharreko tramiteak oso antzekoak dira. Enpresa horiek ere hasi dira omenaldi zibilak antolatzen, hala eskatzen dietenean. Hala, Arrasateko San Felipe Apostolekoek orain hilabete inguru antolatu zuen orain azkenekoa. Oñatiko Moyua hileta-zerbitzu enpresako arduradunak beste adibide bat ematen digu: "Bai, antolatu izan ditugu hileta zibilak. Tanatorioa erabili izan dute eta, gero, kutxa kanpora eroan eta hantxe egin izan dute ekitaldia". Hileta-zerbitzu enpresak egin beharrekoa "beste kasuetan bezalakoa, berdin-berdina" izaten da hileta zibiletan.

**Hileta musulmana**

Hileta ekitaldia erlijioetatik kanpo egin gura dutenak dauden bezala, Debagoienean badira katolikoa ez beste erlijioren bat dutenak ere. Multzo handiena musulmanek osatzen dute. Debagoienean hileta musulmanik egin izan da: hala, 2006an, Bergaran hil zen pakistandar baten omenezko hileta egin zuten, Ipintzako futbol zelaian –cricket -ean jokatzeko erabiltzen duten lekua ere bada, leku esanguratsua hortaz–, eta gero, Pakistanera bidali zuten gorpua, han ehorzteko.

Musulmanen kasuan, euren erlijioak agintzen duen modura ehortzi behar dituzte; besteak beste, ez dute hil-kutxarik erabiltzen, zuzenean lurra ukitu behar du gorpuak, eta horrek oraindik arazoak sorrarazten ditu hemengo arauekin. Beraz, orain arte, Debagoienean ez da musulmanik ehortzi; normalean, hildakoan gorpua jaioterrira bidal dezaten asegurua izaten dute. Ikusi egin beharko da hemen jaiotako musulmanekin zer gertatuko den.

Oraingoz, Euskal Herrian, lur-eremu bakarra dago espresuki musulmanak ehorzteko: Derioko hilerriko 450 metro koadroko lur-zati bat, Udalak horretarako utzitakoa. Bertan ehorzteko, bilbotarra izatea edo Bilbon hil izatea eskatzen da.

**KONTAKTUA**

**http://cementerioateo.blogspot.com.es**

Ibaola Harriak hilerri ateoaren gaineko informazioa ematen du Joseba Ibañezek goiko blogean. Harremanetarako: *j.ibaola@gmail.com* eta 656 71 16 73.

**JOSEBA IBAÑEZ**
HILERRI ATEOA EGIN DU

## "Nik oinarria ipintzen dut norberak bere gustu estetikoa egin dezan"

Zaletasun batetik –harria lantzea– eta uste sendoetatik –erlijioen aurkako jarrera– etorri da Ibaola Harriak hilerria.

**Noiz hasi zinen lur-eremu hori prestatzen?**

Orain urtebete inguru. Harriak ipintzen, lantzen... hasi nintzen, zaletasunez. Neuretako ipini nuen harri bat, baina gero, jendearen komentarioak entzunda–eta, Interneten–eta, konturatu nintzen ateook ez geneukala gure errautsetarako lekurik.

**Hartu du dagoeneko inork lekua hilerri horretan?**

Oraindik ez, baina bati orain hilabete egin nion harri bat. Dena dela, hilerri ateoen erreferentziarik ez dago, eta jendeak horrelako gauzak bereganatu egin behar ditu, kontzientzia egon. Bizi osoan sartu dizkiguten tradizio eta eredu sozialei buelta ematea ez da gauza erraza.

**Hilerria errautsetarako bakarrik da, ezta?**

Bai. Gorpuak ehorzteko, osasun arau zorrotzak daude. Hilerri horren beste helburu bat hau da: errautsak edonon banatzeko dagoen joera kontrolatzea.

**"Antzinako errituak" aipatzen dituzu...**

Bai. Antzina, hildakoak bere harrien artean lurperatzen zituzten, edo dolmenetan errausten zituzten gorpuak... Beste ohitura batzuen arabera, senideendako hamarretakoa ematen da, aurreskua dantzatzen da... Asmoa da hildakoaren pertsonalitatearekin bat datorren zerbait egitea, eta norberak bere zentzu estetikoa dauka. Nik oinarria ipintzen dut, gero norberak bere gustua egin dezan.

**"Antzina, hildakoak harrien artean lurperatzen zituzten"**

Orain Arrasaten
Benetan pisua galdu nahi duzu?
PSE: 37/04




Rosa Sarabia doktorea
PronoKal® metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko
– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia
Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.




Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.
Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

# Euskarak jantzi ditu zapatilak, 2.587 kilometroan lekukoari gogor eusteko

## Debagoienera martxoaren 21ean iritsiko da, Elosutik jaitsiko da Bergarara

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Oskar Elizburu Gipuzkoako artezkariak –zuzendaria– eta Debagoieneko AEK-ko arduradunak mezua irakurri ostean abiatu zen atzo, eguena, 18. Korrika Andoaindik. 11 egunez, eta jakina, gauez ere, Euskal Herria zeharkatuko du alderik alde, harik eta martxoaren 24an Baionara iritsi arte. Bi mila kilometro baino gehiago egingo ditu euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka eta milaka babesleren bultzadarekin.

**Gurean, martxoaren 21n**

Tartean, gure eskualdean ere utziko du euskararen aldeko mezua eta aldarrikapena, martxoaren 21ean Elosutik sartuta, eta Leintz Gatzagatik Arabarako bidea hartuta (ondoko taulan dago ibilbide osoa orduz ordu). Eta Debagoienean ere milaka babesle izango dira lekukoa hartu eta elkarri pasatzeko gertu.

**Elosutik sartu, Gatzagatik irten**

Elosua-Gorla-Bergara, hortxe egingo ditu lehen kilometroak. Antzuolara joango da gero, eta herri barrutik pasatu ostean Urretxurako bidea hartuko du, Zumarraga-Legazpi egin eta atzera ere gure ibarrean sartzeko.

Oñatitik egingo du hori, herri barrutik. Han, besteak beste, gaztetxekoak zain izango ditu, txokolate beroarekin Foruen plazan. Eta suhiltzaileak ere bai; azken horiek sirenekin girotuko dute Korrika.

Oñatitik Arrasaterako bidea hartuko du, eta, Musakolatik sartu eta herria zeharkatuta, Aretxabaletara iritsiko da. Leintz ibarreko herriak ere barrutik zeharkatuko ditu Korrikak, Leintz Gatzaga tartean. Eta hortxe agurtuko du gure ibarra, Arabarako bidea hartuta.

Gure ibarreko ibilbidean euskaltzaleen babesaz gainera, harrera ekitaldi bereziak ere izango ditu Korrikak. Adibidez, Elosuan gauerdian sartu aurretik, afaria egingo dute 21:00etan. Eta haren etorrera iragartzeko suziriak gertu izango dituzte.

Gorlan, bertako elkarteak, Altzasu elkarteak, ateak parez pare zabalduko ditu *euskalakariei* harrera eta topagunea eskaintzeko. Afaria ere egin izango dute, eta gero aterako dira korrika egitera. Arrasaten, zaratarekin emango diote bultzada Korrikari, suziri eta traka bitartez. Leintz Gatzagan traktore eta guzti ateratzeko asmoa dute, behin udalerria zeharkatuta, hura inguratzen duen aldapa ia bertikalari aurre egiten laguntzeko.

Ibilbidearen harira, bestalde, Debagoieneko Korrikaren partetik Antzuolari barkamena eskatu gura diote ibilbidean orain arte sartu ez izanagatik.

**Lehen Korrika, Oñatitik**

1980an abiatu zen lehen aldiz Korrika, Oñatitik abiatu ere. Aldi hartan, Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuen eta garrantzitsuenetakoak. Ordudanik 18 Korrika eta 34 urte igaro dira.




Euskaltegiko ikasleak omenduko ditu Korrikak; argazkian, Arrasateko AEK-koak, euskaltegiko balkoian. | J.DOMINGO

### IBILBIDEA

| HERRIA | ORDUA |
|---|---|
| **Bergara** | 00:37 |
| **Antzuola** | 01:03 |
| **Urretxu** | 01:43 |
| **Zumarraga** | 02:03 |
| **Legazpi** | 02:46 |
| **Oñati** | 04:18 |
| **Arrasate** | 05:36 |
| **Aretxabaleta** | 06:02 |
| **Eskoriatza** | 06:22 |
| **Leintz Gatzaga** | 07:13 |

ITURRIA:KORRIKA.ORG

### Korrikaren lehen mezua: Debagoienetik Andoainera

Urduri zegoen atzo, eguena, Oskar Elizburu, Debagoieneko AEK-ko arduraduna; urduri, Korrika hasierako mezua irakurri behar zuelako Andoainen:"Egun handia da, eta, tripetan egoten diren tximeletekin gauean lo gutxi eginda, baina pozik, jakina", aitortu zuen Arrasate Irratian. Eta pozik eta indartsu irakurri zuen Korrika 18rendako prestatutako mezua. Labur esanda, "euskara elkarbizitzarako eta gizarte kohesiorako tresna gisa aldarrikatu" zuen. Adierazi zuen "euskara elkarri ematea era askotara" egin daitekeela, baina hiru aipatu zituen bereziki:

**"DAUKANAK EMAN EGIN BEHAR DU"**

"Euskaldunok euskara erabiltzeko joera landu behar dugu, transmititu behar dugu (...). Aniztasunaren barruan, euskarak eta euskal kulturak daukaten indarra eta garrantzia erakutsi beharra dago. (...) Arlo eta ekintza guztietan erabiltzeko gaitasuna landu behar dugu".

**"EZ DAUKANAK ERE EMAN BEHAR DU"**

"Ezagutza unibertsalizatu beharra dago euskara kohesiorako tresna izateko; biztanle guztiek izan behar dute ulertzeko eta gutxienekotan erabiltzeko gaitasuna. Eta, horretarako, ahalegina egin eta euskara ikasi egin beharko dute; euskara jakiteak haiei eta ondokoei egingo baitie mesede elkarbizitzan. (...) Horregatik omendu ditu Korrika 18k euskara ikasleak eta erabilera egitasmoetan dabiltzanak".

**"BALIABIDEAK"**

"Hau guztia bermatzeko aukera eta baldintzak behar dira. Berezko hizkuntza normalizatzeko sustapena egiten eta ikasteko eta erabiltzeko baliabideak jartzen ere ematen zaio euskara elkarri. Administrazioek egin beharrekoa da hori; ikasteko erraztasunak ematea, euskara ikastea eta hobetzea doakotasunerako bidean jartzeko". Ildo horretan, euskaltegien eta ikasle helduen izaera estrategikoa aldarrikatu zituen Elizburuk.

# MUko bederatzi ikasle nazioartean lehian, robotikan

## 17 lehiakidek parte hartuko dute norgehiagokan domekan, martxoaren 17an, Tarragonan

**U.M.** | DEBAGOIENA

First Tech Challenge du izena asteburuan Tarragonan jokatuko den nazioarte mailako robotikako lehiaketak.

Holandako, Errusiako, Ameriketako Estatu Batuetako eta estatuko hainat eskualdetako ordezkariak lehiatuko dira 18-23 urte arteko ikasleei zuzendutako lehiaketa horretan. Guztira, 17 izango dira, eta euskal talde bakarra Mondragon Unibertsitatekoa izango da, Robotek izenarekin bataiatutako taldea, hain zuzen ere. Goi Eskola Politeknikoko Fabrikazio Mekanikoko Diseinu eta Sistema Elektroteknikoko eta Automatizatuak izeneko heziketa zikloetako bigarren mailako bederatzi ikaslek osatu dute Robotek taldea.

Hain justu ere, robotika oinarri hartuta, First Tech Challengen, "lehiakideek robot bat diseinatu, fabrikatu, muntatu eta programatu behar dute, modu autonomo zein telegidatuan lan egin ahal izateko, aldez aurretik definitutako arau batzuen arabera".




MUko Robotek taldea, lehiaketara eramango duten robotarekin. | TXOMIN MADINA

**Itxaropentsu**

Hala, Mondragon Unibertsitateko ikasleen robotaren "helburua da ahalik eta puntu gehien batzea, jokalekuaren erdian egongo den esekileku batean uztaiak sartuz". Proiektuan, Mondragon Assembly, Danobat Group, IK4 Research Alliance eta Fagor Automation enpresek parte hartu dute. Eta euskal ordezkaritza itxaropentsu doa lehiaketara hiru hilabetean egindako lan horrekin: "Estatu mailan lehiaketarekin lotutako foroak-eta daude, eta, estatuko batzuekin berba egin ostean, egia baldin bada diotena, preparatuenak gu izango gara. Beraz, atzetik badugu jendea. Europarren artean, ikusi egin behar", adierazi dio Goiena telebistari Imanol Makazaga ikasleak.

**First Lego League ere bai**

First Lego League ezagunaren goi mailako kategoria da First Tech Challenge. Azken horren harira, berriz, oraingo asteburuan bertan jokatuko dituzte First Lego League (FLL) eta Jr. FLL lehiaketen final estatalak, eta aurreikuspena da 2.000 lagun inguru joango direla.

## "Behar genuen jaitsi eta jende artean jartzen denetako bat"

U.M. | DEBAGOIENA

"Aurkezpen benetan oso-oso ederra egin zuen. Zirrara eragin zuen eta itxaropen handia ematen du (...). Frantziskotarrei ere ematen digu halako poz handi bat". Berba horiexek izan zituen Pello Zabala frantziskotarrak atzo Erromatik bertatik, Frantzisko Aita Santuaren izendapenaren gaineko hasierako balorazioan. Erromara joanda zegoen hura, eta hantxe, San Pedro plazan bertan harrapatu zuen tximiniako ke zuriak iragartzen duen Aita Santuaren izendapenak, bere gozamenerako. Franciscus izena aukeratu izanak ere barrenak mugitu eragin zizkion Arantzazuko fraideari.

**Kontzilioarekin bat**

Baina, batez ere, Aita Santu berriaren profila nabarmendu gura izan du Zabalak; bereziki bat egin dezakeelako Kontzilioaren oinarriekin: "Hegoamerikarra eta askapenaren teologiarekin zerikusia duena. Jendea eta, batez ere, Elizakoak animatuko dituena behealdera jaisten. Eta hori litzateke Kontzilioarekin bat egitea, eta ez da gutxi. Ze Kontzilioa ahalegindu zen ahal zuen eran Eliza pobreekin eta pobreak Elizarekin lotzen (...) Jesusen elizak pobreena behar du izan".



Pello Zabala, Vatikanoan. | P.Z.



Bergaran, esparru eta ideologia askotariko herritarrek parte hartu zuten prentsaurrekoan, eguaztenean. | HERRIRA

# Debagoienetik Jaenera, ibarreko bi presori babesa erakustera

Eguaztenean, martxoaren 20an, mobilizazioak egingo dituzte hainbat herritan

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Gaur, egubakoitza, 02:20an abiatu da Arrasateko Garibai geltokitik (Oñatitik pasa ostean) autobuskada bat Jaengo kartzelara. Helburua, bertan preso dauden Jesus Mari Zabarteri (Arrasate) eta Xabin Usandizagari (Oñati) aplikatu dieten zigor luzatzea (197/2006 doktrina) salatzea.

Zabarteren kasuan, 29 urte daramatza kartzelan eta orain, doktrina horren aplikazioarekin beste urtebetez luzatu diote zigorra. Usandizagak, berriz, 16 urte daramatza kartzelan, eta, irteera datarik izan barik, zuzenean aplikatu diote zigor luzatzea.

**Estrasburgoko tribunalak**

Bestalde, Debagoienean zigor luzapena aplikatu dioten beste presoetako bat Bergarako Luis Mari Azkargorta da. Eta, justu, hori salatzeko eta martxoaren 20rako mobilizazioak iragartzeko prentsaurrekoa egin dute asteon Bergarako esparru eta ideologia askotariko hainbat herritarrek. Izan ere, egun horretan Estrasburgoko Giza Eskubideen epaitegiak 197/2006 doktrinaren ebazpenari Espainiako Gobernuak egindako berraztertze eskaeraren gainean behin betiko ebazpena hartuko du.

Ibarrean, oraingoz, hiru herritan iragarri dituzte mobilizazioak egun horren harira: Arrasaten 19:00etan eta Bergaran 19:30ean elkarretaratzeak eta Oñatin, berriz, manifestazioa iragarri dute 19:00etarako.



Arrasaten, hainbat herritarrek erakutsi gura izan zuten babesa. | JOKIN BEREZIARTUA

**ALAITZ ARANTZABAL**
HERRIRA

## "Maite ditugulako, hor egongo gara eurak askatu arte"



J. BEREZIARTUA

Alaitz Arantzabalek, Arrasateko Herrira elkarteko ordezkariak, eman ditu martxaren gaineko xehetasunak:

**Noiz ailegatuko zarete?**

8-9 bat orduko bidaia izango da, eta 10:30-11:00 alderako iritsiko gara. 11:00-11:30 inguruan espetxe kanpoan egongo gara.

**Ekitaldirik egingo duzue?**

Egongo dira txistulariak, txalapartariak... Kontua da zarata apur bat egitea, haiek espetxe barrutik gu entzutea eta gertutasun eta babes hori sentitzea.

**Barrura sartuko zarete?**

Kanpoan egongo gara. Baina badakit Jesus Mari Zabarte bisitatzera doazen bi senide autobusean etorriko direla eta horiek bisita izango dute.

**Mezu jakinen bat eraman behar diezue?**

Elkartasuna, maitasuna eta babesa helarazi gura diegu; herria eta Euskal Herria eurekin daudela, eta eurek jakitea gu ahalegin guztiak egiten gabiltzala doktrina hau bertan behera geratzeko eta eurak etxera etortzeko. Zarata atera gura dugu, eurek gure babesa senti dezaten: gu hor gaudela igar dezaten, 700 kilometro pasako joana eta beste horrenbesteko etorria egin behar izan arren ere, hor gaudela, maite ditugula, eta hor egongo garela eurak askatu arte.

# Zaintza aringarrien gainean Arizmendik antolatutako jardunaldiak, arrakastatsu

Erizaintzako 100 laguntzaile baino gehiago izan dira eguazteneko saioetan

U.M. | DEBAGOIENA

*Ezin bada sendatu, zaindu.* Lelo hori izan dute oinarri zainketa aringarrien gainean Arizmendi Ikastolak antolatutako jardunaldiek. Debagoieneko Ospitaleko eta Txagorritxuko profesionalak izan zituzten azalpenak ematen eguazten goizean. Baita Saiatu proiektuko erizain eta medikuak ere. Arratsaldean, berriz, saio praktikoak izan zituzten.

Zainketa aringarriak Debagoienean nola antolatzen diren, haien beharra eta eskubidea, teknologia berriak eta halakoak izan zituzten aztergaien artean. Eta 100 profesionaletik gora izan ziren entzule eta ikasle; gustura gehienak, hunkituta asko, eta jardunaldi horien beharra azpimarratu zituzten guztiek ere.

**Teoria eta praktika**

Justu, horixe nabarmendu zuen Edurne Erauskinek, Arizmendiko Lanbide Heziketako zuzendariak; euren hezkuntza eskaintzaren barruan ahalegintzen direla teoria eta praktika uztartzen, alorrean alorreko profesionalen bitartez, alegia. Eta horixe dela Arizmendik antolatzen dituen jardunaldion abiapuntua. Aurtengoekin, bosgarren aldiz egin dituzte halako jardunaldiak.

**Heriotzaren naturaltasuna**

Saiatu proiektuko mediku Olatz Romerok, berriz, nabarmendu zuen askotan zaintza aringarriak behar den moduan ez ematearen jatorria dela gure gizarte honetan ez dugula heriotza modu naturalean onartzen.



Erizaintzako laguntzaileen talde bat, ikastaro praktikoan. | U.M.

ZABALIK

**ESTEPAN PLAZAOLA**
http://goiena.net/iritzia/



# Gure memoriak

Egubakoitz honetan Elgetara joateko gonbita jaso dut. Agindu diet pozik izango naizela bertan. Ahotsak egitasmoaren 10. urteurreneko jaialdia izango da Espaloian. Euskal Herri osoko euskaldunei egindako elkarrizketak jasotzen dira proiektuan: Bizkaiko puntatik Zuberoako puntara bitarteko lau mila lagunetik gora; erdiak emakumezkoak, beste erdiak gizonezkoak.

Gaur *ahotsak.com*-en dugu denon eskura mende beteko historia, protagonistek eurek kontatua. Krisi garaiotan, Ahotsak-ek eza berta-bertatik ezagutu zutenen esperientzia ezagutzeko aukera eskaintzen digu; une zailei aurre egin behar izan dietenen eskarmentua eta ikaskizuna.

**"Ahotsak-en topa dezakegu hitza gozamen-iturri dutenen eredua"**

Baina, aldi berean, hitzaren indarra makaldu zaigun eta atzamar lodiarekin komunikatzen ikasi nahian gabiltzan sasoi honetan, Ahotsak-en topa dezakegu hitza bera lanabes zorrotz eta gozamen-iturri dutenen eredua.

Gertu-gertutik ezagutu nuen egitasmoaren sorrera, baina aitortu behar dut ez nuela garai hartan askorik espero iritsi den lekura iritsiko zenik. Ez kopuruz, ez edukiz eta ez aukerez. Izan ere, Ahotsak beste ezeren gainetik, aukera da. Ahotsak proiektua bera, bere hutsean, bada gure aurrekoentzako aitortza eta esker ematea... Bertan gidari eta langile dihardutenek ere nire zorionik beroenak.

10 urte bete ditu Ahotsak-ek eta sarean dugu 10 urtean jasotako beste bilduma erraldoi bat: euskararen Egungo Testuen Corpusa, prentsatik, liburuetatik... jasotako euskarazko testuen datu-base erraldoia, 205 milioi hitz dituena eta, beste hainbat aukeraren artean, hitzen erabileraren maiztasuna, erabilera-adibideak, beste hitz batzuekiko konbinazioa eta abar erakusten dizkiguna. Bertan jasotzen dira esku artean duzun kazeta honetako testuak ere.

Ahotsak eta ETC gure memoriaren bi zutabe, bi errealitate eder, etorkizunerako bi aukera handi.

USTEAK USTE

**JOKIN BEREZIARTUA** | jbereziartua@goiena.com

# Herrigintza ei da giltza?

Krisiak, herritar xumearen baliabide ekonomikoak nabarmen mugatzeaz gain, gizartearen psikologia gogor astindu du. Ezkorrak egin gaitu. Itxaropena galtzea gizarteari gerta dakiokeen okerrena dela entzun berri diot lagun bati, eta ez zaio arrazoirik falta. Egoerari buelta emateko formulak denetarikoak izan daitezke, baina egunotan batek deitu du nire atentzioa; Arrasaten azoka birpentsatzeko ekimenaren atzean 400 bat lagun daude lanean, herrigintzan. Azoka espazio berritzaile bat moduan ulertzen dute, herriak egina herriarendako. Bideragarria ei den? Ekonomikoki ezin jakin oraindik, baina sustatzaileak harro egon daitezke: itxaropenik ez zaio falta azoka berriari.

HANDIK ETA HEMENDIK

## Zirkuak aurrera segitzen du

**Joxe Aranzabal**
http://blogak.goiena.net/faroa/

Twitter bidez iritsi nintzen atzo Garmin enpresaren bideo ikusgarri honetara.

Bertan, mezua oso garbia da: teknologiak –Garminen teknologiak, zehatzago– hobeak egiten ditu txirrindulariak.

Une batzuetan ematen zuen *Matrix* ikusten ari nintzela, gurpil gainean.

Bi xehetasunek baina, gogorarazi didate txirrindularitzaren alde ilunaz, hor segitzen baitu.

1. Iragarkia Gironan hasten da. Gogoratuko duzuenez, eta USADAren txostenak jasotzen zuenez, une jakin batean Lance Armstrongek erabaki zuen Niceko etxea utzi eta Gironan jarriko zela bizitzen, Frantzian polizia atzean baitzuen, eta Espainian ez zuelako arazo hori izango. Harrezkero, txirrindulari asko aldatu ziren Gironara eta beronen inguruetara. Iragarkian ikusten denagatik, joera hori ez da eten.

2. Garmin taldeko zuzendaria, Jonathan Vaughters, Armstrong kasuan agertzen da. Iazko abuztuan berak ere aitortu zuen dopatu egiten zela txirrindularia zenean. Beste horrenbeste gertatu da beste talde zuzendari batzuekin, Bjarne Riis kasu, zeinak aitortu arren bera ere dopatu zela, gaur egun segitzen du talde bat zuzentzen.

Alegia, bideo hau ikusita, eta hedabideei erreparatuta, zelako oihartzuna eman dieten Paris-Nice eta Tirreno-Adriatiko lasterketei, ondorioa atera dut zirkua inportanteegia dela gerarazteko dopin moduko "txikikeriengatik". Barcinak Nafarroan nola, zirkuko antolatzaileek ere uste dute aurrera begiratu behar dela, ez duela merezi alde ilunari begiratzea, iraganeko kontua baita.

## Aurreiritziei aurre egin ezinda

**Leire Narbaiza Arizmendi**
http://eibar.org/blogak/leire/

Kontzienteak gauza bat diosku, baina inkontzienteak beste bat!

Gabon hauetan Olentzerorena egiten nenbilela, 3 urteko iloba Gariri oparitxoa egitea falta zitzaidan.

Baneuzkan ipuintxo batzuk baina beste zerbait ere nahi nuen.

Horrela, asko gustatzen zaidan jostailu denda bateko erakusleihoan begira nengoela, bizkar-zorro koloretsu, alai eta moñoñoa ikusi nuen.

Ze polita! pentsatuta barrura egin eta dendariari erakusteko eskatu nion.

Berak beste modelo bat ere bazuela esan, eta bila joan zen.

Bitartean, neure buruan galdera sortu zen: "Ez da infantilegia? Infantilegia? 4 urte ere ez ditu, barren! Orain ez badu gauza infantilak eroaten, noiz?".

Horrela, zentrifugatu baten nerabilen burua.

Halako baten, beste kezka bat sortu zitzaidan, ez dakit nondik: "ez da oso *neskarena?*".

Artean, dendaria etorri zen, eta erakutsi zidan motxila polita zen baina urdina, eta barrutik irten zitzaidan, zakar: "Hau ez!".

Jakina, saltzaileak haluzinatu egin zuen, zoro bat sartu ote zitzaion dendan pentsatuko zuen!

Horregatik, azaldu nion buruan zebilkidana.

Era berean, esplikatu nion izan nuen pentsamenduak ere zeharo harritu ninduela, ez nuelako sinisten neska/mutil banaketa horretan.

Berak esan zidan errotuegi ditugula aurreiritzi horiek, nahiz eta kontzienteki gauza bat pentsatu, hezkuntza eta antzinako ereduek habia egin dutela gure pentsamendu sakonetan.

Motxila erosi nion, oso-oso polita da.

Eta ikastolako bizkar-zorrorik desiratuena da!

## 11 egun, 11 istorio. Korrika

**Marijo Deogracias**
http://blogak.goiena.net/marijo/

Korrikaren aitzakian, euskara ikasteko aukera egin duten 11 lagun ezagutu ditugu egunotan Multimedia Komunikazioa Masterreko (MKM1213) ikasleok. Tratua egin dugu ETB3rekin eta 11 elkarrizketa egin eta editatu ditugu, ETB3k egunero Korrikaz egingo duen saio berezian ikusteko. 11 egun 11 istorio. Hori da ekimena.

Bakoitzak bere istorioa du; euskara ikasteko bere motibazioa eta bere ikasketa prozesu propioa.

Baina guztiek kontatu digute euskarak eman diena asko izan dela.

Euretako bakoitzaren historia Korrika euren herrietatik pasatzen den egunean ezagutuko dugu: ETB3ren saio berezia, gaueko 23:00etatik aurrera. Baina Twitterren ere izango da bakoitzaren istorioa jarraitzerik: *#KorrikaTxioka* hasgtag-a erabili.

Esperientzia oso positiboa izan da lan hori egiten laguntzea.

Elkarrizketatuak bilatzea, ezagutzea, euren bizitzez galdetzea, Euskal Herrian zehar egin ditugun Km.ak [...], 2 egunetan elkarrizketa ia guztiak editatzeko springa… Eta dena talde lanean. Ze, MKM1213ko klasekideek taldean lan egin dugu eta berriro erlojuaren kontra izan bada ere, euskarak merezi duela erakusteko beste 11 adibide erakusteko moduan gaude. [...]

Hemendik aurrerakoa, saioak zer ematen duen ikustea.

Interneten egongo dira egin ditugun bideoak.

Eta klaseko 4 kidek egunero Korrikatik kontatuko digute egunak ematen duena. Gainera, gure 11 protagonistak Korrika ere ikusiko ditugu, Korrika euren herrietatik pasatzen denean.

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera, bidali: egilearen izena eta abizena, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Atez ate Katalunian

**Mireia Lizarralde eta Ibai Larrañaga**
(Bergara Zero Zabor eta Elgeta Zero Zabor taldeen izenean)
Bergara eta Elgeta

Otsailaren 28an Kataluniako Taradell herriko alkateak, Lluis Verdaguer-ek, hitzaldi oso interesgarria eskaini zuen Bergaran. Kataluniako atez atekoaren esperientziari buruzko xehetasunak kontatu zituen.

Egun, 110 herri inguru ari dira hondakinak AA jasotzen Katalunian. Kasualitatez, haiek ere erraustegi baten mehatxuak mugiarazi zituen, eta, konponbide bila hasita, AAkoaren ideia Italiatik hartu zuten. Orain erraustegia almazen moduan erabiltzen dute.

Lluis Verdaguer CIUkoa da eta ERCren onespenarekin ezarri zuen sistema berria. Munduan adibide mordoa egon arren, batzuen hitzak entzunda, AAkoa Bilduren asmakeria bat dela dirudi. Hitzaldira hurbildu ginenok argi eta garbi ikusi ahal izan genuen hori ez dela horrela.

AAkoa jartzen lehena Tona herria izan zen (8.000 biztanle) eta haien emaitza onak ikusita erabaki zuten Taradell-en berdina egitea (6.200 biztanle). Vic herrian ere AA biltzea aztertzen ari omen dira (40.000 biztanle). Lehen gaika %25 bakarrik biltzen zuten eta AAkoarekin %80 gainditu dute. Primerako organikoa batzen dute, eta inpropioak batez beste %1,5 bakarrik dira. Astean hirutan ateratzen dute organikoa, behin errefusa, eta pixoihalak egunero atera ditzakete.

Gaizki egiten duenari pegatina bat jartzen diote, eta, bere horretan jarraituz gero, arazoa zein den argitzeko teknikari bat bidaltzen dute.

Pedagogiaren aldeko agertu zen eta umeei eta gazteei ongi erakusteari garrantzia eman zion.

AAkoak lanpostuak sortu zituen eta horrekin bereziki harro azaldu zen. Gainera, Udalari, aurrez zutena baino merkeago ateratzen zaio AAkoa, eta, azken urteetan tasak mantenduta, dirua galtzetik irabaztera pasa dira. Hori frogatzeko aurreko urteetako datuak erakutsi zituen. Haientzat merkeagoa da AA biltzea. Eta diru kontuetan broma gutxi katalanekin!

Gipuzkoan AAkoaren aurka errepikatzen dizkiguten leloei buruz galdetuta, arrainarekin ez dutela arazorik, herritarrarentzat erosoa dela eta arratoiak egotekotan lurpeko edukiontzietan egoten direla erantzun zuen, besteak beste. Ez zaie lehengora bueltatzea burutik pasatzen. Inondik inora.

Taradellen ez zen parte-hartze prozesurik egon, ezta inposaketa salatu zuenik ere. Gainerako alderdiek ez zuten gaia CIUri egurra emateko erabili.

Katalanek AAkoa aparteko zailtasunik eta iskanbilarik gabe egiten badute, guk zergatik ez?

# GUTUNAK

**Gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne); luzeagoa bidaliz gero, GOIENAk eskubidea du laburtzeko; hala ere, saiatuko da egilearekin egoten hark labur dezan. Gutun bakoitzeko erantzun bakarra onartuko da; ez da onartuko erantzunaren erantzunik.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Munstro artean bizi gara!

**Joxe Mari Gabilondo**
Bergara

"Munstro artean bizi gara!", bota du telebistako hizlari batek Nafarroako kutxaren inguruan eta zenbait politikariren ustelkeriaren inguruan ari zela.

Batzuek 400 euro kobratu, etxea ezin ordaindu eta beren buruaz beste egiten duten bitartean, badira bilerako 1.700 euro kobratzen duten politikariak; hori gutxi omen eta hiru bilera egiten dituzte arratsalde batean 5.100 euroko dieta kobratuz.

Jantoki sozialak beteta dauden bitartean, badira Suitzan 38 milioi euro dauzkatenak eta eskupekoak banatzen dituztenak Espainiako Gobernuan dauden mandatarien artean, 6.000 euroko ume-puxika urtebetetzeak ospatuz.

5 milioi langabe dauden bitartean, bada Afrikara elefanteak akabatzera joan eta oraindik ere ardo kiratsa darion "lo siento" batekin konponketak egiten dituen erregea.

Badira lan-baldintza duinak, hezkuntza eta osasun publikoa aldarrikatzeagatik, kartzelan daudenak eta etxean, saltokietan... 500 euroko billetez betetako kutxa gotorrak gorderik eduki arren, kalean lasai asko dabiltzan txinatar enpresariak (arestiko elefante ehiztari hordiaren lagun-minak) eta aktore pornoak.

Hamaika dira, urteetan lan egin ondoren, lan baldintzak aldatu eta lau sosen-truk kanporatuak izan diren langileak, goi karguetan lagun minak dituzten enpresa publikoetako zuzendariek beren kanporaketa milioiekin blindatzen duten bitartean.

Urteetan, arbaso zaharrenetatik jasotako lurrak eta baserriak, Euskal Herriko bizi moldearen islarik zaharrenak; ziztu bizian gainetik pasako zaigun tren antzu bat egiteko desjabetutako aitona-amona zaharrak geure artean ditugu, banketxeei etxebizitzaren arazoa konpontzeko dituzten lapurtutako etxe guztiak desjabetzeko gogorik ez dutenekin batera.

Zalantzarik gabe: munstro artean bizi gara!

Antzinako kondaira zaharrak dioenez: euskaldunak munstro artean bizi ginenean, Ortzirengana joan ginen laguntza eske eta Ortzik eguzkia sortu zuen iluntasuna argitzeko eta eguzki-lorea, gauetan munstroak etxeetara sar ez zitezen.

Egun, norbaitek laguntza eske joateko ausardia balu, txapelgorriz jantzitako ume-jale beletzar lerdetsuak baino ez lituzke aurkituko. Munstro predikulariak, zuri guztiak irin ez direla erakutsiz.

Munstro artean bizi gara. Badira eta izango dira aurrerantzean ere. Hortaz, ikasi egin beharko dugu beraien artean bizitzen, iluntasunari ihes egiten eta geure burua munstro bilaka ez dakigun ahalegintzen indar osoz.

## Murrizteari bai, berrerabiltzeari bai eta birziklatzeari ere bai

**Piter Encinas**
(Ekologistak Martxan taldeko kidea)
Arrasate

Ezer esan baino lehenago, ironia pixka bat erabili nahi dut: Bergarako biztanle askok birziklapenari ezetz esaten diote eta erraustegiari baietz esaten diote.

Hasteko, esan behar dut aspalditik Bergarara joan gabe nengoela, irudi batzuk ikusita neuzkan, baina ez nuen espero horrela izango zenik, hainbeste balkoi eta leihotan zabor poltsak egotea. Hau ikusi eta berehala sentimendu nahasketa bat eduki nuen, baina batez ere triste sentitu nintzen.

Alde batetik, lotsa eman zidan eta auzo-lotsa sentitu nuen ikusitakoagatik, ikusi nuena sentsibilizazio faltaren sinonimo delako; baina ez da hori bakarrik, baizik eta kontzientzia falta nabarmena ere bada. Batzuek esan dezakete hitz gogorrak direla, baina niri gogorragoa iruditzen zait geuk, gizakiok, egin dezakeguna, bai izadiari, bai geuri ere.

Dirudienez, gizakiok ez ditugu nahi sortzen ari garen arazoak konpondu.

Bestalde, onartu behar dugu metodo honek gure ohitura batzuk aldatuko dituela, baina batez ere txarrak direnak.

Gai honetan inportanteena ez da metodoa, baizik eta helburua, emaitzak, e.a.

Zoritxarrez, Euskadin gai gehienak politikoki ustelduta daude, eta hemen oso garbi ikus daiteke; beraz, eta mesedez, hipokrisiarik ez.

Era berean, Katalunian 15 urte baino gehiago daramate modu honetan hiriko zaborrak jasotzen, 100 herritan baino gehiagotan; horrek esan nahi du arazoak hemen daudela, ez dago ikusi nahi ez duena baino itsuagorik.

Ildo beretik, zaborraren arazoa konpontzeko, gauza batzuk egin behar ditugu: alde batetik, zaborraren tratamendua aldatu behar da; bestela, erraustegi, zabortegi eta diru mordo bat beharko da-eta arazoari aurre egiteko.

Beste alde batetik, gogoratu nahi dut 2011. urtean 2.270.000 euro ordaindu zutela (gure diruarekin) beste herrialdeetara eramateko.

Bukatzeko, atez atekoaren alde gaudenok, bai herritarrok baita alderdi politikoetako kideok ere, zerbait gaizki egin dugu; agian ez dugu jakin gure ideiak ondo azaltzen, emaitzek horrela esaten dute eta.

## Ingurumenaren helburu nagusia gizakiaren zoriontasuna da

**Josu Garitaonandia**
(Equo Bergara)
Bergara

Euskaldun ukitua duen eta Uruguaiko presidentea den Jose Mujicak esandako hitzak, gizakiak etorkizuna izan nahi badu oraingo gure pentsamoldea aldatu beharrean gaudela, gaur egun gizakiak ez du gobernatzen, berak sortutako indarrak baizik. Hau arazo politikoa dela dio, globalizazioak gobernatzen du gizakia eta ez gizakiak globalizazioa, ekonomia pertsonen zerbitzura ipini behar da, planeta mugatu hau errespetatzen, denok duintasunez bizi ahal izateko ondorengo belaunaldiei errekurtsoak arriskuan ipini gabe.

Mundu honetara etorri gara pozik bizi izatera, bizitza da guk daukagun altxorrik preziatuena eta aurrerapena da gizakiaren bizimodua zoriontsuago egiten duena.

Ea munduko beste presidente guztiak konturatzen diren arazoa denona dela eta hitzetatik ekintzetara azkar pasatzen diren.

## Gük egiten dügü

**Guillermo Azkarate Barrutia**
Bergara

Hitz hauek esan zizkiguten orain dela gutxi Barkoxen 10–11 urteko mutiko batzuek.

Idatzi hau oso gustura bidaliko nioke Pello Sarasolari, zertxobait aldatzeko *Iparraldearen orena,* osoago eta luzeagoa egiteko. Argumentu honi erantzungo dizue, ziur asko, esanaz: "Gutxi dira (gehienbat xiberotarrak)", baina dira, ezta? Baita ere (jo dezagun), bi pertsona hiltzeko egoeran daudela mendi baten, gutxi dira (bakarrik bi), baina ahalegin guztiak egiten dira bizirik ateratzeko, ezta?

Hemen, Hegoaldean, Iparraldea gehientsuentzat da horrelako nebulosa baten dagoen lurralde bat, dena bukatzen da Hendaia, Donibane Lohizune, Miarritze eta Baionan, baina beste leku asko daude (baita Lapurdin bertan ere).

Pertsonalki asko gustatzen zait gure Iparraldea, eta eurengan hitz egiten du teoriaz, praktikan ez, zeren Lapurdiz bakarrik hitz egiten baitute; adibidez, hor ikusita dakit Miarritzeko auzapez eskuindarrak eta frantsesak uzten diola politikari, eta hori ez da gutarra, gure etsaia baizik; galdetzen dut, ez al da deus gertatzen Baigorrin, Donibane Garazin, Donapaleun, Maulen, Sohütan edo Atharratzen, esate baterako? Ziur baietz, eta horiek baita ere... ez al dute osatzen Iparraldea eta Euskal Herria?

Ni mutikoa nintzenetik entzun dut euskara galtzen ari dela, errazago galduko dela esan daiteke ez badiogu batere kasurik egiten, teoriaz

>

gureak diren komunikabideek muzinik ez badiote egiten euskaldunak diren batzuei.

Batik bat Xiberoan gaurko egunez euskalduna izatea balentria nabarmena edukitzea da! Eta burura datorkit Barkoxeko hotel baten nola zen posible ETB1 ikustea, eurengatik ezer ere ez zuen/duen esaten ETB1, ez eta *Iparraldearen orena*-n ere; bere titulua izan lezake *Lapurdiko orena,* nahiko motza eta anekdotikoa den/izango zen Lapurdiko orena... edo ez?

Eta gaurko egoerak jarraitzen badu... ez oso urrutian galduko da Iparraldeko euskara, batik bat Xiberoan, geratuaz jakintsu batzuetan bakarrik, baina ez herrian.

Gük egiten dügü... eta gero... gero zer?

## Euskal udalekuak

**Maite Otxandiano**
(Euskal Udalekuen izenean)
Arrasate

Badira hainbat urte euskal udalekuen ateak zabaldu zitzaizkigula. Hainbat urte Goñi, Bernedo eta Abaigar ezagutu genituela eta haurrak izanda, gerora ere, euskal udalekuetan jarraitzea erabaki genuela.

Euskal udalekuen bidean sorturiko esperientziatik, hainbat balore bereganatu ditugula jabetzen gara gaur egun, zeintzuek gure egunerokotasunean benetako garrantzia eta eragina duten. Ikasi dugu ondokoa errespetatzen, laguntzen, berdintasunean bizitzen, ingurua zaintzen eta maitatzen. Eta nola ez, euskaraz jolasten, bizitzen eta gozatzen.

Euskara dugu udalekuen ardatz nagusi. Hainbat ekintza eginez berau bultzatzeko, hala nola jolasak, tailerrak, kantak, dantzak... Horrekin batera euskal kultura ere helaraztea du helburu.

Euskal herri osoko umeak bertaratzeak aberastasun handia ematen die udalekuei.

Alde batetik, euskalkiei begiratuz aniztasuna dakar; eta bestetik, giro erdaldunean bizi diren umeak giro euskaldun batean murgiltzen ditu aukera berriak eskainiz.

Kontuan hartu behar dugu hiru herri txiki hauek natura ingurunean kokatuta daudela. Haurrek naturaz gozatzea beste helburu bat izanik. Mendi martxak, basoan jolasak, paisaia, errekako bainuak... Euskal udalekuek hirian bizi diren haurrentzat naturaz gozatzeko aukera ere dakarte.

Giro ederra sortzen da kide guztien harremanetan, berdintasuna elikatuz.

Udalekuak, orokorrean, lagun berriak ezagutzeko tresna paregabea dira, harreman laburrak, baina ahaztezinak. Hala ere, nabarmendu nahiko genuke, gure esperientzia pertsonalera bueltatuz, haur moduan elkar ezagutu genuen askok gaur egun elkarrekin jarraitzen dugula, euskal udalekuen kide izaten, harreman estu baten fruitu.

Berebiziko garrantzia daukan boluntario lana ere aipatu nahiko genuke. Euskal udalekuetan ibiltzen garen begirale, sukaldari eta milook inolako diru saririk gabe aritzen garela lanean. Oso garbi daukagu euskal udalekuekin bestelako sariak lortzen ditugula, garrantzitsuagoak diren sariak, inon idatzi ez diren sariak. Garbi daukagu maite dugulako egiten dugula, gozatu egiten dugula eta lortzen dugun sari bakoitza gure oroitzapenetan gordeko dugula. Beraz, animatzen zaituztegu euskal udalekuetan izena ematera eta gure zelai zabalean zuen lorea landatzera: *www. euskaludalekuak.org*.

## Eskerrik asko, Arizaneko kideei!

**Maitane Unamuno**
(Ekin Emakumeak Elkartea)
Arrasate

"Non da nire semea?", oihukatzen zuten ostiralean Seber Altube plazako antzerkilariek Saturrarango emakumeen kartzelako egoera azaldu zutenean.

Hunkituta ikusi genituen hainbat pertsona, negar egiteko zorian, non zen euren semea galdetzen zietenean.

"Oilo-ipurdia jarri zait niri", esan zuen batek.

Gero pailazoak eta lagunak, jolastu nahi zuen neskatilaren istorioa kantatuz, modu xaloan azaldu ziguten zeintzuk diren emakumeek egin beharreko etxeko lanak.

Benetako etxekoandreak senarraren tratu txarrak irribarre batekin jaso behar zituela erakutsi ziguten gero.

Frankismoaren garaian gertatzen zen emakumearen zapalkuntzaren adibide gordinak jarri zizkiguten begien aurrean.

Errepresentazio ederra eskaini zigutena!

Horregatik, Ekin Emakumeak Elkartetik gure esker beroa azaldu nahi diegu Arizan antzerki taldea osatzen duten bederatzi lagunei eta euren emanaldia posible egin duen Arizmendi Ikastolari.

Zehazki, eskerrak Amagoia Gorosabel, Enkarna Herrero, Garbiñe Nuñez, Karmele Uribarren, Maria Elejoste, Espe Sainz, Mañole Ezenarro eta Xabier Latorre, guraso eta irakasleei, eta David Errasti zuzendariari. Baita Gari Ibarzabali ere, Arizan antzerki–taldea eta Ekin Emakumeak Elkartea harremanetan jartzeagatik.

Estimatzen dizuegu musu-truk egin duzuen lan bikaina. Bejondeizuela!

Errepresentazio horrekin eman genion hasiera *Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta frankismoan* erakusketari. Ikusgai izango da Kulturaten, martxoaren 24ra arte.

## Enrike Letonari erantzuna

**Juan Karlos Garitano**
Arrasate

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dut nire helburua ez dela zehazki gaia "politizatzea", konposta modu batera edo bestera egitea ezin da-eta lotu joera politiko jakin batekin, baizik eta auzo-konposta eta banakako konposta egin nahi dutenei jakinaraztea konpostatze prozesuan sartu dituzuen aldaketaz eta ondorio posibleez ohartaraztea.

Hasteko, esan behar dizut ez datorrela gaira zuk ekartzen duzun zure baserriko satsaren adibidea; satsa eta konposta zeharo desberdinak dira eta jarri duzun adibideak ez dizu balio.

Jarraitzeko, badirudi ez dituzula ondo bereizten konpostatzeko planta industrialak eta konpostagailu domestikoak.

Zuk jarritako adibideetan: Baix Campen eta Jurramendikoan, animalia-jatorriko hondakinak planta industrialetan konpostatzen dituzte, eta ez kaleko loretegi bazter batean ezarritako konpostagailu txikietan.

Horrelako planta handietan EBko 1069/2009 araudia jarraitzen dute, eta beharrezko baldintza higieniko sanitarioak betetzen dituzte, eta higienizazioa egiteko behar diren tenperatura altuak (65º) ere lortzen dituzte.

Gai honetaz aritzen diren liburu, aditu eta gida gehienek aholkatzen dute animalia-jatorriko hondakinak ez sartzea konpostagailu domestikoetan.

Gainera, animalien hondakinekin nahastuta dagoen konpostak ez du balio lurraren ezaugarriak hobetzeko.

Antzuolan eredu hori jarraitu dute eta arratoiak ugaritu egin dira, eta bertako Udala pozoia banatzen hasi da. Beraz, ondo pentsatu auzo-konposta egiteko konpromisoa hartu duten herritarrei aholkuak ematen hasi baino lehen. Zuk hartuko duzu arratoien erantzukizuna?

Europak zuen eredu hori txalotzen duenik ere gezurra da. Eta eredu hori jarraituz gero gure seme-alabek etorkizun hobea izango dutela zentzugabekeria hutsa da.

Eta bukatzeko, ez datoz bat: zuk aipatzen duzun *"arazoei irtenbidea denon artean bilatze hori"* eta elkarrizketarako inolako borondaterik ez daukan Josu Peredari erakusten diozun babesa.

Uste dut gaia berraztertu beharko zenuketela. Konposta egitea oso ideia ona da, baina frogatuta dagoen metodo batekin, horrela Arrasateko familia gehiago animatuko lirateke.

## Aritu eta mugitu!

**Iñigo Murgiondo**
Oñati

Pasa den mende erdialdean, zientzialari talde batek autobus gidari eta txartel pikatzaileek lanean egindako ariketa fisikoaren dosi erantzuna aztertu zuen, ariketa fisikoa egitearen onurak aurkitzeko helburuarekin.

Dosia ez zen bakoitzak lanean egiten zuen mugimendu kopurua besterik, ariketa fisikoa ez baita futbolean edo saskibaloian jokatzea bakarrik; oinez ibiltzea, ohea egitea, eskailerak igotzea eta jaistea, erratza pasatzea, dantza egitea... ere bada.

Honela, zera ondorioztatu zuten: autobus gidariek ez zuten ia mugimendurik egiten; bai, ordea, pikatzaileek. Izan ere, bi solairuko autobusean aurrera eta atzera ibili behar izaten zuten lanorduetan.

Mugimendu horren ondorioak harrigarriak suertatu ziren: gidariek pairatutako gaixotasun kardiobaskular kopurua erdira murrizten zen ticket kontrolatzaileen artean.

Ez dago ariketa fisikoa pisua galtzeko bakarrik egin beharrik, epe luzera azaleratzen diren onurak ere baditu: gaixotasun koronarioak, azaldutako azterketak ondorioztatu bezala, bigarren motako diabetesa, koloneko minbizia edota gizentasuna prebenitzeko ere egin daiteke, besteak beste.

Ikus daitekeenez, kontaezinak dira ariketa fisikoa egiten hasteko edo jarraitzeko helburu edota arrazoiak. Eta aditu eta lan asko daude, zenbat eta zein maiztasunekin lan egin behar dugun argitzen lagun diezaguketenak, bai hasiberrientzako, bai fisikoki aktibo direnendako, eta baita entrenatzen direnendako ere, adibidez.

Beraz, animatu eta saia zaitez, gutxienez, ticket pikatzailearen moduan gorputza mugitzen, kirol oinetakorik jantzi gabe ere asko mugi baikaitezke.

## Bergarako alkatetzaren mututasuna

**Josu Leturia**
(Bergara Garbia Herri Plataforma)
Bergara

Alkatearen mututasunak Bergara Garbia Herri Plataformaren idatzia eta ondorengo eskaerak direla-eta adierazten du Gobernu Taldearen interesik eza akordioak egiteko hondakinen arazoa konpontzeko.

Bien bitartean, haren asmoa da herriak parte-hartzea fartsa hutsak diren batzar informatibo horietan, "parte hartzeko eta iritzia emateko"; izan ere, herritarrek ezer erabakitzen ez duten batzarrak dira, alkateak eta haren jendeak guztia daukate-eta erabakita euren erara, eta herritarrek kuboen kolorea bakarrik aukera dezakete.

Batzar horietan, gu erabili beste asmorik ez daukate euren erabaki diktatoriala justifikatzeko; hau da, atez atekoa jartzeko.

Inposizio garbi-garbia da, lehengo erara eginikoa, eta pantomima hutsak diren batzar horiekin estali nahi dute; ez dute kontuan hartzen herritarren ahots eta iritzia, eta lotsagabekeria handia erakusten dute mespretxatzen eta euren ideiak inposatzen ari direnei laguntza eskatuta.

Haren buruzagiak Europara joan dira eta Mediterraneoa deskubritu dute.

Edo hori diote.

Ez dakiguna da zer kontatu dieten europarrei Gipuzkoan berreskuratu eta birziklatu ezin diren 160.000 tona hondakinei buruz, ea zer egiteko asmoa duten... Ez digute kontatu ere egiten.

Eta ez dute esaten ingurumenari errespetu handien dioten Europako herrialdeetan zer egiten duten berreskuratu ezin daitezkeen hondakinekin.

Bada, esan ezazu argi eta garbi: balioa ematea; hau da, erraustu eta energia berreskuratzea, Europako Batasunak gomendatzen duen moduan. Han eta hemen, interesatzen zaiena bakarrik kontatzen dute eta gainerakoa isilean gordetzen dute. Ez gaituzte engainatu behar. Eta ez gara iruzurraren konplize izango batzar horietan parte hartuta.

Ez baduzu atez atekorik nahi, ez parte hartu!

Bai, birziklatzeari!

Bai, ondo egindako konspotatzeari! Ez, edozer gauzari!

Bai, bosgarren edukiontziari! Ez, atez atekoari!

Hitza herriari!

Herri-kontsulta exijitzen dugu!

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak



## Eraman ezazu beti txartela aldean!



## GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO MARTXOAN

### ADI EGON!

GOIENA Klubeko **4.000 bazkideon artean** martxoan honakoa zozketatuko dugu.

aisia HOTELES DEBA

### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.



### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).



**Parte hartzeko**

BaserriSarea
Arrikrutz
Romeo

**SMS:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

### BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



### KORRIKA

KORRIKAko materiala dugu GOIENA KLUBEKO bazkideen artean zozketatzeko (kamisetak, polarrak...)

**ADI! 6 pack-en irabazleen izenak astelehenean emango ditugu!**



### ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

ARRIKRUTZ oñatiko kobak



### ANTZERKIA

Antzerki honetarako bina sarrera ditugu zozketatzeko.
Arrasateko Amaia Antzokia: Martxoak 24, 19:30ean Romeo antzezlana

**Alabatxo HAUR antzerkirako bina sarreren irabazlea:**
Oskar Vitoria Gallastegi (Arrasate)





### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

**2 erosi 1 ordaindu.**
Eureka! Zientzia Museoko eta planetariumerako sarrera bat erosi eta prezio bereko edo merkeagoko beste bat jasoko du doan.

Izena: ..........................................
Abizena: ..........................................
Bazkide Zenbakia: ....................

Kupoi horien balio-epea 3 hilabetekoa izango da.

**DESKONTUAK:** ***www.goienakluba.com***

NINIKA — ALZU — Esko Sport — JAIXAK disfrutatzeko oparixak — LILURA EDERTZE INSTITUTUA — lastai
Avia Errasti — Begiondo — Etxe-Aundi Hotela Jatetxea — gahir fisioterapia osteopatia — GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak — Gutiz Gedeer — naren
MULTIÓPTICAS lehena zerbitzu optikoetan — ARRIKRUTZ oñatiko kobak — IMPRESPAL INPRIMATEGIA — kuttuna estetika zentroa — Izotz Jauregia TXURI-URDIN
Biotika — caravanas oñate — AQVARIVM Donostia San Sebastián — Peugeot OÑATI GARAJEA — eureka! zientzia museoa — argia



## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
**943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*

**Maite Iturbe** | EITBko zuzendari orokor berria

# "Gustatuko litzaiguke ETB1eko audientzia euskaldunen artean %10era heltzea"

- 2013ko aurrekontua aurkeztu dute: 121,7 miloi euro, iazkoa baino %17 txikiagoa
- Langilerik ez kaleratzeko eta barne produkzioa indartzeko asmoa du zuzendaritza berriak

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Maite Iturbe (Arrasate, 1959) EITBko zuzendari orokorra da joan den astea ezkero, EAJ eta PSE alderdien arteko akordioa dela eta. 29 urte daramatza EITBn. Kargu berria hartu bitartean, Ekoizpen zuzendaria eta Donostiako Miramongo egoitzako arduraduna izan da. Martitzenean Goiena telebistan izan zen; Txomin Madinarekin eta Eneko Azkaraterekin izandako solasaldia ekarri dugu gurera.

**Kargua hartu zenuenetik lehenengo egunak igaro dira. Zer moduz?**

Bileraz beteta eta eginkizunez beteta eta ardura berriei erantzun nahian nabil.

**EITB betidanik ezagutzen duzula esan genezake, orain artean bigaren lerroan egon zaren arren. Nola daramazu orain foku guztiak zure gain egotea?**

Halamoduz. Dena batera izan denez, pentsatzeko asti luzerik ez dut izan. Ekinez ekin, aurrera noa, Aurrera bolie! esanaz, poliki-poliki neurria hartuaz.

**Hasiera baten, hala ere, eskaintzari ezezkoa eman zenion.**

Epe laburrean izan da dena. Orain hamar egun, nire burua kargu horretarako nola ikusten nuen galdetuta, ezezkoa eman nuen; profil publikoa eta politikoa ez ditudanez batere landuta, ez nuen lehen lerroan ikusten nire burua. Horrek egun bat iraun zuen; presio gehiago egin zidaten; besteak beste, Eusko Jaurlaritzak barruko langile baten aldeko apustua egiten zuela jakiteak proposamena beste modu batera aztertzeko bidea eman zidan. Lo gutxi egindako gauaren ostean, onartu egin nuen proposamena.

**Astelehenean, 2013ko aurrekontua aurkeztu zenuen: 121,7 milioi eurokoa, iaz baino %17 txikiagoa. Zertan igarriko da jaitsiera hori?**

Edukietan ez dugu jaitsierarik nabari gura eta lantaldeari eutsi gura diogu. Lantaldeak gehiago produzitu beharko du eta edukietan kontratazioak gutxiagotu egin beharko ditugu.

**Administrazio Kontseiluak, baina, atzera bota du aurrekontua. Zein izango da, orain, aurrekontuak jarraituko duen ibilbidea?**

Administrazio Kontseiluak dituen hogei botoetatik, 10 izan ziren aldekoak; eta legeak dio aurrekontuak botoen bi herenen onespena izan behar duela. Zaila da kopuru hori lortzea. EITBko aurrekontuaren onarpena astean Urkulluk aurkeztutako aurrekontu orokorren negoziaketekin lotuta etorriko dela uste dut.



Maite Iturbe, Goiena telebistako platoan, martitzenean. | JAGOBA DOMINGO

**Murrizketak bai, baina kaleratzerik ez dela egongo iragarri duzu. Bideragarria ikusten duzu hori?**

EITB taldeak, une honetan, 988 langile ditu. Gure helburua Jaurlaritzak baimentzen duen kopurura heltzea da; hau da, zortzi langile gutxiago izatera. Telebista gaur egun martxan jarriko bagenu beste era batera egingo genukeela uste dut; baina hauxe da daukaguna, eta, profesional onak ditugunez, horiekin egingo du proiektuak aurrera.

**Zuzendaritza taldea ere aurkeztu berri duzue. Denek duzue eskarmentu handia EITB barruan.**

Konfiantza dugu etxeko barruko profesionalengan. Zuzendaritza talde honen marka hori da: etxearen profesionaltasuna defendatzea eta etxeko profesionalekin kontatzea. Oso onak dira guztiak, nor bere eginkizunetan.

**Beste ezaugarri bat da EITBko zuzendari orokorra lehenengo aldiz emakumea izango dela.**

Bai, hala da; eta, egia esateko, indar eta adore handia eman didate etxeko emakume askok eman dizkidaten animoek.

**Orokorrean, Maite, zeintzuk dira EITBren kudeaketarako planteatzen dituzun ildo nagusiak?**

Batez ere, telebistetan euskararen eskaintza zabaltzea eta indartzea litzateke lehenengo helburua. Errepikapenekin betetzen ditugu ETB1 katean hainbat ordu; beraz, programazioa aberastu egin beharko dugu. Bigarrena informazioan jardutea litzateke, informazio ordu gehiago ematea eta profesionaltasunez eta independentziaz jardutea. Entretenimenduarekin lotuta, zabaldu berri dugun bideari helduko diogu formatu berriak bilatzen jarraituz. Eta gestio aldetik, berriz, gure gestio tinkoarekin jarraituko dugu, EITB enpresa iraunkorra izan dadin, eta, horrekin batera, sektorea ere indartzeko asmoarekin.

**ETB1 ahul ikusten duzu. Zertan nabarituko dugu hobekuntza?**

Batez ere, egunean zehar ematen dugun programazioan. Udazkenera begira, arratsaldea betetzeko asmoa dugu.

**Zer funtzio izan beharko luke, berriz, bigarren kateak?**

Gure erdaldunak eta euskaldun sentitzen direnak eta sentitu gura dutenak gure kulturara gerturatzea litzateke ETB2ren helburua; eurak ere gure kulturaren parte senti daitezen.

**Bi kate horiez gain, ETB3 eta ETBSat ere badaude. Bideragarria da laurak mantentzea?**

Zenbat eta kate gehiago izan, orduan eta erakusleiho gehiago dituzu produktuak erakusteko. Beste kontu bat da dituzun produktu horiek modu eraginkorrean kudeatzea. Oraingoz, lau kateokin jarraitzeko asmoa dugu.

**"Telebistetan euskara indartzea dugu helburu nagusietako bat"**

**"Zuzendaritzaren asmoa etxearen profesionaltasuna defendatzea da"**

**"Ditugun lau telebista kateekin jarraitzeko asmoa dugu, oraingoz"**

**"Tokiko telebistak eta EITB bidelagun izan beharko ginateke"**

**Nafarroara joanda, zein da EITBk han duen egoera?**

Oraindik gobernuarekin lanean jarraitu behar dugu. Gu prest gaude, besteak beste, dagoen multiplexa erabiltzeko ditugun aukeren gainean berba egiteko. Uste dut aukerak baditugula. Beste aldean borondatea ikusten badugu, ez dut uste arazorik izango denik. Gure konpromisoa han ere egotea da. Iparraldera LTD (TDT) bitartez heltzen gara.

**Audientzia kontuak orain. Zein punturaino kezkatzen zaitu?**

Audientzia datuak garrantzitsuak dira, duda barik. Zerbitzu publikoa gara, baina jendeak ikusi eta entzun dezan eskaini behar dugu zerbitzu hori. Gustatuko litzaiguke ETB1 euskaldunen artean %10era heltzea.

**Alde informatibotik begiratuta, esan genezake ETB Madrileri begira gutxiago egongo dela?**

Bereziki guri begira egongo da, baina, nahi eta nahiez, munduari begira ere bai. Gure telebista ikusteko beharra sortzea lortu beharko genuke.

**Zein da Miramongo ekoizpen zentroaren etorkizuna?**

Ikus-entzunezko edukiak sortzeko Euskal Herrian dugun fabrikarik handiena da; ez daukagu, beraz, ixteko asmorik. Gaur egun ez dago %100ean, baina zentroak iraun egin beharko lukeela uste dut, dauzkagun bitartekoekin ahalik eta gehien ekoiztuta.

**Barne produkzioa, kanpo produkzioa.... Nola orekatu horiek biak?**

Sektore publikoak eta pribatuak elkarlanean jardun beharko genukeela uste dut, bai gure arloan zein besteetan ere.

**Nola ikusten dira tokiko telebistak EITBko bulegoetatik?**

Nik lagun bezala ikusi izan ditut beti eta uste dut bidelagun izan beharko genukeela.

**Eguraldi mapaz derrigorrez galdetu behar dizugu agurtu aurretik.**

Gaur bertan ikusi ditut proposamen batzuk; orain dugunaren ezberdina izango da. Nabariagoa izango da hemen gaudela eta hemengoak garela.

**Etxera heldutakoan telebista piztuko duzu?**

Bai, noski. Kargu berria hartu orduko, telebista bat erosi nuen etxekoekin ika-mikarik ez izateko. Bada, sukaldean jarri dut eta nirea izango da.

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

# HERRIAK

BERGARA

# Isileko historia pantailara

- Intxorta 1937 Kultura Elkartea 'Bergara 1936. Gerra eta errepresioa' grabatzen dabil
- Elkartearen asmoa da Bergarako jaietan estreinatzea egiten dabiltzan ikus-entzunezkoa

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Joan den aste bukaeran hainbat hamarkada egin zuten atzera Bergaran. Bigarren Errepublikako eta ondorengo gerrako kontuak gogoratu zituzten. Izan ere, Intxorta 1937 Kultura Elkartea garai haietan gerra eta errepresioa jasan zuten bergararren testigantzekin ikus-entzunezkoa grabatzen dabil. Bergaran, Maltzagan eta Osintxun egin zituzten grabaketak zapatuan eta domekan, Iker Ugalderen aginduetara. *Bergara 1936. Gerra eta errepresioa* da lana. "Gerra eta errepresioa jasan zutenen testigantzetan oinarritzen da, jasotzen dugu hainbeste urtetan isilean egon den historia", azaldu du Juan Ramon Garaik, Intxorta elkarteko kideak.



Falangistak eta militarrak San Antonion. | ANDONI GOITI

### Bergarako ezaugarri bereziak

Ikus-entzunezkoaren lehendabiziko grabaketak egin dituzte dagoeneko. Grabatu dituzte frankistak Bergaran sartzen San Migeletik San Antoniora bidean; Artekalen egindako barrikada bat eta bertan gerarazitako errepublikar baten fusilatzea, frontoi batean; egun Batzokia dagoen tokian garai baten zegoen Ariznoa Eusko Ikastolako liburuen erreketa; preso osintxuarren lekualdatzea eta fusilatzea eta ihes egin zuen euretako baten pasadizoak.

Bigarren Errepublika eta orduko gorabeherak eta ondorengo gerra kontatzen dira dokumentalean: miliziano eta gudari bezala batzuk –milizianoen arten UHP batailoia, eta Batailon Loiola, Amaiur eta Kirikiño gudarien aldetik–, beste batzuk kintak harrapatuta matxinatuekin eta beste batzuk Tercio Zumalakarregi bataloian.



Aktoreak tiro egiten grabazioko une batean. | IMANOL SORIANO

ESANAK

"Jaso dugu horrenbeste urtetan isilean egon den historia"

"Testigantzak jasoko dituen liburua argitaratu nahi dugu 2015ean"

JUAN RAMON GARAI
INTXORTA 1937 KULTURA ELKARTEKOA

### Anbrosio Agirreren ihesaldia

Beste bi grabaketa egitea falta zaie: fusilatzera zihoazenean Anbrosio Agirre osintxuarren kontakizuna, adibidez. "Agirrek Basalgora egin zuen ihes. Basalgora heldu zeneko grabaketa egitea falta zaigu; izan ere, hiru egun egon zen mendian zorabiatuta", dio Garaik. Iñaki Alkain bertsolari urnietarrarekin elkartu zen mendian Agirre. "Iñaki Alkainek eta Amezketako artzain batek elkarrekin bertsotan egiten zuten pasadizoa ere grabatzeko dugu", gaineratu du.

Aste bukaera honetan ziren grabaketak egitekoak, baina, eguraldi txarra iragarri dutenez, hilaren 23an eta 24an grabatzeko asmoa dute. Elgetan egingo dituzte falta diren grabaketak. Ikus-entzunezkoak ordubete inguruko iraupena izango du.

### Orain arte egindakoak

36ko gerrako memoria berreskuratzeko Ondo Bihurtu taldea sortu zuten Bergaran orain dela urte asko. Gerora, Ondo Bihurtu Intxorta elkartearen barruan sartu zen. Iaz, Udalarekin elkarlanean erakusketa bat egin zuten Aroztegin. Erakusketak balio izan zuen, batetik, ordura arte bildu zutena jendartean erakusteko, eta, bestetik, balio izan zuen "isilik zeudenei ahotsa emateko". Ondoren, Bergara 1936 taldea sortu zuten, "bergarar guztiei zabalik dagoen taldea". Gerra bizi izan zuten 23 bergarar elkarrizketatu dituzte dagoeneko, 9 emakume eta 14 gizon. Testigantza horiekin ikus-entzunezkoa egiten dabiltza. Horrez gain, hori guztia jasoko duen liburu bat argitaratu nahi dute 2015ean.

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

Errimak oinetan

Bertsolaritza oinarri duen dantza emanaldia

Haatik dantza konpainiaren eskutik

Zuzendariak: Aiert Beobide eta Unai Elizasu



Martxoaren 17an, 19:00etan




2011n moduan, Gipuzkoa etorbidetik helduko da Korrika. | GOIENA

# Korrikari ongietorrian herri osoa inplikatuta

## Korrikaren 18. edizioa hilaren 21ean helduko da Zigorrolatik, goizaldeko bostak aldera

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Badator Korrika. Atzo irten zen Andoaindik eta, dena ondo badoa, etenik gabe helduko da Baionara martxoaren 24an. Arrasatera datorren eguenean helduko da, hilak 21, goizaldeko bostak aldera. Beraz, euskararen aldeko martxarekin bat egin gura duten arrasatearrek goiz esnatu beharko dira.

Oskar Elizburuk, Erdu AEK-ko zuzendariak, halaxe azaldu zigun Korrikaren bezperako egunek sortzen duten zirrara: "Urduri gaude eta, tripetako tximeleten erruz, lo gutxi eginda. Baina pozik, jakina".

**Korrika jaia bihar Seber Altuben**

Hileko hirugarren zapatuan egiten den baserritarren azokak Korrikarekin bat egingo du bihar. Izan ere, 19 postu egongo dira biharko azokan eta horietako baten Korrikaren materiala erosteko aukera egongo da.

Korrikaren etorrera kalean islatuko den eguna izango da biharkoa: "Jaia kalean egitea pentsatu genuen eta Seber Altube plaza girotzeko hainbat ekitaldi izango ditugu", dio Elizburuk. Goizean goizetik Giokelak saiheski pintxoak jarriko ditu eta 11:00etatik aurrera, trikitilariak, kiliki eta erraldoien konpartsako kideak eta Lore Gazteak zein Txikitxu-Arrostaitz taldeetako dantzariak arituko dira plaza girotzen.

**Azokan 19 postu**

19 postu horietatik bost Arrasateko baserriek jarriko dituzte, lau Debagoienekoek eta beste lau postu Gipuzkoako baserriek. Gainera, beste sei postu ere egongo dira, artisautza produktuak eta baserrirako makinak izango dituztenak, besteak beste. Eta noski, hileroko zozketa ere egongo da.

### EKITALDIAK

**HILAK 15, EGUBAKOITZA**

**19:30** *Bertso jaialdi berezia, ikasleei begirakoa*. Bertsozale elkartearekin batera, Kulturateko areto nagusian. Sarrera irekia.

**HILAK 16, ZAPATUA**

JAIA SEBER ALTUBE PLAZAN

**11:00** Trikitilari eskolakoen emanaldia.

**12:00** Erraldoi eta Kilikien Konpartsa.

**13:00** Dantzariak.

**13:30** Argazki erraldoia.

**Goizean zehar:** Korrika postua baserritarren azokaren barruan. Saiheski pintxoak, ardoa eta sagardoa Giokelaren eskutik.

**HILAK 17, DOMEKA**

**09:00** *Arrasateko mugarriak ezagutzen* mendi irteera gidatua. Amaitzerakoan salda eta txorizoa.

**HILAK 20, EGUAZTENA**

KORRIKA TXIKIA

**15:00** Ibilbidea *tronkomobilarekin*.

**16:00** Txokolate-jana, karaokea eta jolasak, Txatxilipurdiri esker.

**HILAK 21, EGUENA**

KORRIKAREN ETORRERA

**05:00** Korrikari ongietorria: Zigorrolan suziriak; Portaloian, antortxak, txalaparta eta bengalak; Monterronen, traka. Ondoren, gosaria.

**HILAK 22, EGUBAKOITZA**

**22:00** Esne Beltza taldearen kontzertua gaztetxean, Kooltur ekimenarekin elkarlanean.

# Erguingo zentroak asteon hartu ditu buruko gaitza duten lehen gaixoak

## Aldundiaren Errehabilitazio Psikosozialerako Zentroak 20 erabiltzailerendako lekua dauka

**J.B. / G.A.** | ARRASATE

Erguin auzoan Gipuzkoako Diputazioak ireki duen Errehabilitazio Psikosozialerako Zentroak lehen erabiltzaileak hartu ditu asteon. Erguin kaleko 19. zenbakian dago eta Aita Mennik kudeatuko du. Hala, buruko gaixotasunak dituzten pertsonendako Diputazioaren "asistentzia-mapa", 1995. urtean Tolosan hasitakoa, osatuta geratzen da.

Zentro berria gune ezberdinetan banatuta dago: jarduerak burutzeko gela, jantokia, atseden hartzeko gunea, sukalde terapeutikoa, pare bat bulego, biltegia eta langileendako aldagela. Gainera, aire girotua eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonendako igogailua ere baditu. Zentroaren erabiltzaileek 18 eta 60 urte bitarteko adina dute, eta buruko gaixotasun kroniko larriren bat diagnostikatuta. Gaitz horiek, eskizofrenia edota depresioak, besteak beste, eguneroko bizitzan ohikoak diren funtzioak betetzea mugatzen diete gaixoei: "Gaixoa zentro psikiatrikoan artatua ez izatea da helburu nagusia", adierazi du Ander Rodriguezek, Gizarte Politikako diputatu arrasatearrak. Honakoa ere gaineratu du: "Ahal den neurrian eta erarik autonomoenean gaixoa bere ingurunean mantenduz, bere integrazio soziala eta bizi kalitatea sustatu nahi dugu".

Eguneko egonaldietarako errekurtso honek, gainera, gaixoa zaintzerako orduan familiak izan dezakeen gainkarga ere arintzen du.

**Milioi erdi baino gehiago**

Zentroak 20 erabiltzailerendako lekua dauka, eta Aldundiak 592.264 euroko inbertsioa egin du lokala egokitzeko. Obrak 2011ko abuztuan hasi eta joan den otsailean amaitu ziren.

Zentroko erabiltzailea izateko eskaera udaletxeko zerbitzu sozialetan egin beharra dago, edota Osakidetzak lurraldean dituen buruko gaixotasunendako zentroetan.



Erguingo errehabilitaziorako zentroko egongela. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### NIRE USTEZ

**OIHAN ZUBIZARRETA**



# Politika (des)erosoak

Kaleak zikin daudela diogu baina zikina lurperatuta itxi nahi ditugu begiak. Zaborra begien bistatik kenduta ere, leporaino iristen zaigu ordea.

Ondo bizi nahi dugu, pozik, osasuntsu, eroso. Norbaitek esango du medianamente ondo ere nahikoa dela eta beste askotxok, lar ondo bizi nahi luke, erosoegi akaso. Eta zaborra modu arduragabean kudeatzen jarraitzen dugu, zabor poltsak ontzi batetara jaurtitzea erosoena baita.

Erosotasunaren pentsamenduak agintzen duelako, zergak ordaindu nahi ez lituzkeen herritarraren logikak bezainbeste edota espainieraz jardutea errazagoa ei den bezalaxe.

Sarritan, begien bistako soluzioak, aterabide ebidenteenak, ez dira erosoenak izaten, ezta estetikoenak ere. Errealitateak kontrako hamaika adibide erakusten digun arren, politika ez da eroso nola bizi asmatzeko artea.

Baina erantzukizunez jokatzea da politika, kolektiboan arreta jarrita eta pertsonala ere politikoa dela ahaztu gabe. Sarritan, zenbait politikek deserosoak izan behar dute, derrigorrean. Zergak salbuestea, zaborrak kontainerrera botatzea edota espainiar hizkuntza inposatzea bezain gauza erosorik ez baitago. Gaur eta hemen, zabor, zerga eta hizkuntza politikek deserosoak izan behar dute.

Erosoak... parkeko jarlekuak!

**"Zabor, zerga eta hizkuntza politikek deserosoak izan behar dute"**

### Gaur arte mantenduko du Udalak alerta laranja, elurrak inongo eragozpenik sortu ez badu ere

2013ko hirugarren elurteak ez du inongo eragozpenik sortu Arrasaten, zorionez. Udal langileek lan handien izan dute izotza botatzen, batez ere goiko auzoetan. Aipamen bakarra Udala auzoari egin zioten udal zerbitzuek atzo: "Zerbait aipatzekotan, 06:00 aldera Udala auzoan elur apur bat izan da, baina dagoeneko herriko kale eta errepide guztiak garbi ditugu". Alerta laranja atzo eguerdira arte aurreikusita bazegoen ere, Udalak "badaezpada" erabaki du gaur arte mantentzea.

### Gazte Danbadaren aurkezpena, bakarrizketa gaua eta MCDren kontzertua aste bukaeran gaztetxean

Martxoaren 29tik apirilaren 1era arte Urduñan egingo den Gazte Danbada ekimena iragarriko dute gaur gaztetxean (20:00), Ernai gazte antolakundearen aurkezpenarekin batera. Gero, 22:30ean, umoreak hartuko du lekukoa; bakarrizketa gaua antolatu dute, Migel Vegas eta Josu Zugasti gazteen eskutik. Bihar 80ko hamarkadako punk doinu mitikoak entzun ahal izango dira MCD talde bilbotarraren eskutik; euren aurretik, Elorrioko Txabolakumeak taldeak punk rock doinuak eskainiko ditu (22:30).



Lehen faseko ondorioen berri emateko bilera irekia egin zuten 2012ko uztailaren 11n, azokan bertan. | JOKIN BEREZIARTUA

# Azoka birpentsatzeko ekimena, erronkei aurre egiteko gertu

## Martxoaren 19an bigarren faseko bilera irekia, osoko bilkuren aretoan (18:30)

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Bagara Herrigintzak abiarazitako Arrasateko azoka birpentsatzeko ekimena –GUreztatu moduan ere ezaguna– bigarren fasean murgilduta dago 2012ko azaroa ezkero. Martxoaren 19an bilera irekia egingo dute osoko bilkuren aretoan (18:30). Zertarako? Proiektua osatzen duten lantalde ezberdinen artean informazioa elkartrukatzeko eta ekimenari irudi eta izen bateratu bat emateko, nagusiki. Hala, prozesuan parte hartzen ari direnei izen bat proposatzeko mezua bidali zaie eta proposamenok datorren martitzeko bileran aztertuko dituzte. Asmoa da azokaren logotipoa edo irudia aukeratzeko lehiaketa publiko bat zabaltzea.

Aktiboki parte hartzen ari diren eragileez aparte, prozesuaren jarraipena egin gura duen edonor dago gonbidatuta. Ezin da ahaztu 400 bat pertsona inplikatu direla azoka birpentsatzeko egitasmoan eta Udalarendako ere proiektu estrategikoa dela.

Proposamen eta ideia jarioaren lehen fasea amaituta, egitasmoa gauzatze-fasean sartu zen 2012ko azaroan.

### Bigarren faseko urratsak

Bigarren fase honetan, adibidez, umeendako txokolate-janak egin dira azokan. Udalari baimena eskatuta –BAZen egin behar da eskaera–, 2012 azaroan eta 2013ko otsailean bi ospakizun egin ziren. Era berean, azokaren egungo erabiltzaileekin bilerak egin dira azoka berria martxan jarri aurretik premia larrienak asetzeko. Bilera horiei esker zenbait arazo konpondu dira edo konpontzear daude, hala nola, azoka egunetan hiri autobusa azokan bertan geratzea –apirilaren 8a ezkero eguazten eta egubakoitzetan geltokia egongo da 09:00etatik 13:00etara–, itoginak konpontzea eta zamalanetarako ordutegia arautzea.

### Azoka Eguna apirilaren 13an

Bestalde, apirilaren 13an Azoka Eguna egingo dute. Hiru helburu ditu ospakizunak: azokaren espazioa erabilgarria dela frogatzea, azoka berriak funtzio ezberdinak bete ahal dituela irudikatzea eta prozesuaren atzean zenbat jende dagoen erakustea. Egitaraua ez dute zehaztu baina zenbait ekintza aurreratu ditu Bagarak: tobera, musika, umeendako tailerrak, ipuin kontaketa saioa, txokolate-jana, serigrafia tailerra eta Amaia Albes diseinatzaile arrasatearrak gidatutako desfile bat, besteak beste. Desfile horretan herritarrak izango dira protagonista; 20 bat boluntario badaude dagoeneko.

Erronkei aurre egiteko unea da orain; hauexek dira, Bagararen arabera: zehaztea azokan zer joango den eta zer ez, nola kudeatuko den espazioa, diseinu arkitektonikoa definitzea eta finantziazioa lotzen joatea. Uztailean amaituko da bigarren fasea.

# Epeleko ibai-ekosistema babestu gura du Udalak

## Besaide eta Basabelar elkarteek otsail hasieran salatu zuten biodibertsitatearen aurkako erasoa

**J.B.** | ARRASATE

Epeleko ibai-ekosistema "mardul eta aberatsa" desagertzear dela salatu zuten Basabelar elkarteak eta Besaide mendizale elkarteak otsail hasieran. Arrasateko biodibertsitatearen aurkako eraso "larria" dela uste dute eta ekintza horiek berriro ere errepika ez daitezen lanean dihardute. Kalteak honakoak dira, besteak beste: hodi bat agertu da ibaiaren ibilbide naturala oztopatzen duena, baso-moztaileen eraginak eremu pribatutik publikora salto egin du errekara arte helduz – Uraren 1/2006 Euskal Legeak dio jarduera pribatu batek ezin duela ondasun publiko bat kaltetu– eta isuri kimikoak ere izan dira.

### Ura agentziakoen zain

Asteon elkartu dira Udaleko Ingurumen Saileko ordezkariekin: "Udalak ibai arroei babes berezia emateko asmoa du, Epelekoa barne", adierazi du Besaideko Aitor Zubiagak. Erantzuleak identifikatu gura dituzte, baina lehentasuna da tresnak ezartzea halakoak berriro gerta ez daitezen: "Eusko Jaurlaritzako Ura agentziakoen txostenaren zain gaude. Pare bat aste itxarongo dugu, ea berririk dagoen".


Besaideko Aitor Zubiaga, Epele ibaian dagoen hodiaren ondoan. | J.B.

## Batzar orokorra egingo du Abaroak martxoaren 22an

Martxoaren 22rako deitu du Abaroa erretiratuen elkarteak aurtengo batzar orokorra. Ohi moduan, iazko jardunaren balantzea, memoria, eta aurtengo jardunaldirako aurrekontua aztertuko dituzte. Horrekin batera, presidente eta zuzendaritza batzordea aukeratzeko proposamena ere aztergai izango dute. 16:00etan izango da Etxaluzeko lehen solairuko E eta D aretoetan.

Bestalde, urteko ohiko batzarraz gain, ez ohikoa ere deitu dute. Hilaren 22an bertan egingo da, ohiko batzarraren ostean. Gai bakarra izango dute aztergai: Abaroako estatutuen onarpena.

## Udaleku irekietarako begirale bila dabil Txatxilipurdi

Txatxilipurdi begirale zerrenda "luze" bat egin guran dabil udaleku irekietarako. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 10a eta hiru baldintza bete beharko dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea eta ekainaren 8rako antolatu duten formazio saiora joatea –egun osoko saioa da–. Aukeraketarako honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: begirale titulua izatea, ikasketak, esperientzia, lanerako prestutasuna eta bizilekua. Izen-emate fitxa beteta bidali behar da Txatxilipurdira. Argibide gehiagorako deitu 943 79 54 46 telefonora (Mirari edo Arantza).

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

*Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?*
–
*Langabezian zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?*
–
*Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?*

***Lanbide Heziketa** izan daiteke **zure aukera!***

**GOIAZ! 2013**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Maiatzak 8 eta 9an;
Kulturaten, Arrasaten.

***Etorri Azokara eta ezagutu zure aukerak!***

www.facebook.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa Berria

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

## *Madrildik Aretxabaletara etortzeak benetan merezi izan du*



Patricia Yuste gure bailaran berria den *Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta* erdi mailako zikloaren lehenengo maila egiten ari da Aretxabaletako Lanbide Eskolan. Madrildik Euskal Herrira etorri da trebatzera eta, batez ere, arlo horretan lana bilatzera.

**Zergatik etorri zara honaino ikastera?**
DBH bukatu ostean, duela urte batzuk, Irudi Pertsonala erdi mailako zikloa egin nuen. Urteak pasatu ditut era guztietako aldi baterako lanak eginez, baina azken urteetan Madrilen egoerak txarrera egin du. Lan merkatuan sartzeko giltza formazioa dela argi nuen, baina Madrilen lana aurkitzea ia ezinezkoa da; beraz, bertatik irten eta ziklo berbera Euskal Herrian ikasteko aukerak aztertzen hasi nintzen, eta hemen nago.

**Zergatik aukeratu zenuen Euskal Herria, eta Aretxabaleta?**
Betidanik Euskal Herritik gertu sentitu naiz eta hemen langabezia-maila txikiagoa eta lan egoera Madrilen baino hobea denez, ez nuen zalantzarik izan. Hainbat ikastetxerekin jarri nintzen harremanetan, eta Aretxabaletako Lanbide Eskolan hasieratik harrera ona egin zidaten, matrikulazioa egiteko erraztasunak eskaini zizkidaten. Orain Arrasaten bizi naiz beste hiru pertsonarekin.

**Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?**
Formazioa lana aurkitzeko lehen urratsa dela argi nuenez, Madrilen 25 urtetik gorakoentzat unibertsitatera sartzeko proba prestatzen hasi nintzen. Dena den, Lanbide Heziketa hautatu nuen, besteak beste, ikasketa kontzentratuak direlako, denbora laburragoan lanbide bat ikasi eta lan merkatuan sartzeko aukera eskaintzen duelako.

**Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketatik?**
Lanbide Heziketaren abantailetako bat hiru hilabeteko praktikaldia da; askotan, enpresa horretan bertan gelditzeko ateak zabaltzen dizkizu, eta, nahiz eta hori ez gertatu, esperientzia hori curriculumean gehi dezakezu, lana bilatzeko orduan. Lehenengo mailatik, astean bi orduz pertsona nagusien egoitzara joaten gara, boluntario bezala, eta horrek aukera ematen digu gelan ikasitakoa egoera errealetan praktikan jarri eta benetako pertsonekin harremanak izateko.

Honetaz gain, pertsonen laguntzaile izateko jakin beharreko gaiez gain, laneko eskatzen diren beste hainbat jarrera lantzen dira; arduratsua izaten, puntualitatea...

**Zer balorazio egiten duzu?**
Badira egunak familiako pertsonengandik urrun sentitzen naizena, baina, dena dela, edozeini gomendatzeko esperientzia da. Benetan gustura nago, eta, ziur aski, nire etorkizuna hemen egongo da.



Ikasle talde bat altuera jauzia ezagutzen Mojategin, iaz egindako saioetako baten. | JOSETXO ARANTZABAL

# Atletismoa zer den ezagutzeko, eskola kirol saioa Mojategin

Bihar egingo da lau saioetako lehena; bost proba egingo dituzte, taldetan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

"Gaztetxoei atletismoa zer den erakusteko saioak dira, aspalditik egiten direnak; pentsa, Iturripen ere egiten genituen. Azken sei urteetan Mojategin egiten ditugu, baliabide hobeekin". Halaxe azaldu dizkigu Arrasate Atletiko taldeko Fernando Zufiriak bihar hasiko diren eskola kiroleko saioak. Hurrengo saioak izango dira martxoaren 23an eta apirilaren 20an eta 27an. Bihar 10:00etan elkartuko dira Mojategin –bi txanda egingo dituzte–, atletismoko bost proba ezagutzeko: vortex delakoaren jaurtiketa, altuera jauzia, luzera jauzia, 50 metroko lasterketa eta errelebo proba. Talde ezberdinetan banatuta, probak txandakatzen joango dira, eta, amaitzeko, guztiek batera, errelebo proba egingo dute.

**Leintz bailarako ikasleak**

Eguraldiak laguntzen badu saio bakoitzean 100 neska-mutiko baino gehiago etortzen direla dio Zufiriak: "Arrasatekoez gain, Leintz bailarako neska-mutikoak etortzen dira, baita Otxandiotik ere". Athlon kooperatiba arduratzen da saio horiek antolatzeaz baina Arrasate Atletiko taldekoek ezinbesteko laguntza ematen diete: "Athloneko begiraleak arduratzen dira neska-mutikoak zaintzeaz; guk, berriz, behar dituzten azalpenak ematen dizkiegu".

Gaztetxoek ederto pasatzen dute: "Atletismoa esperientzia berria izaten da gehienendako eta probak denetarikoak direnez, guztiek gozatzen dute. Bat korrika egiten nabarmentzen den bitartean, besteak nahiago du altuera jauzia, esaterako. Finean, denak gustura", dio Zufiriak. Gipuzkoa osoan egiten dira halako saioak, beti ere atletismoa gaztetxoen artean zabaltzeko asmoz.

**ESANAK**

**"Bat korrikan nabarmentzen den bitartean, besteak altuera jauzia nahiago; denak gustura"**

**FERNANDO ZUFIRIA** | ARRASATE ATLETIKO

## Denetariko igeriketa ikastaroak eskainiko ditu Aukeak

Maila ezberdinetako igeriketa ikastaroak antolatu ditu Aukeak. Astean bi egunetan izango dira saioak eta bakoitzak 45 minutu iraungo du. Ikasleak lau urte beteta izan beharko ditu parte hartu ahal izateko. Kiroldegiko bazkideek 20,60 euro ordaindu beharko dute hilero; gainerakoek, 30,60 euro. Izena emateko kiroldegira jo (943 77 16 77).

## Yoga ikastaroak Etxaluze eta Uribarrin, erretiratuendako

Yoga ikasteko aukera izango dute erretiratuek. Etxaluzen martitzen eta egubakoitzetan izango dira saioak, 18:00etatik 19:30era. Uribarrin, berriz, eguazten eta egubakoitzetan elkartuko dira, 20:00etatik 21:45era. 15 euro ordaindu behar da hilean. Izena emateko deitu honako telefono zenbakira: 696 37 94 74 (Nagore).



Arrasate Rubgi Taldearen aurtengo denboraldiko partidu bat. | ARTXIBOA

# Santanderrera bihar, lehen sailkatua menderatzeko

Universidad de Cantabriaren etxean jokatuko du bihar Arrasatek; ligari hiru lehia geratzen zaizkio

**J.B.** | ARRASATE

Universidad de Cantabria liderraren etxean jokatuko du bihar (15:30) Arrasate Rugbi Taldeak. 35 puntu dituzte kantabriarrek eta arrasatearrak bost puntu eskasera daude, sailkapeneko hirugarren postuan. Hiru partidu geratzen dira txapelketa ofiziala amaitzeko eta Igor Isasi entrenatzailearen arabera, biharko aurkaria "ona eta sendoa" da: "Unibertsitatekoak dira eta beraz, kanpotik jende ona etortzen zaie. Aurten, adibidez, Ingalaterrako talde bateko jokalari bat dute, goi mailakoa. Gure mailan izugarri nabarmentzen da; hemen ere unibertsitatea badago baina ez zaigu halako jokalari bat etorriko...".

**Zaila bai, baina ezinezkoa ez**

Arrasate Rugbi taldea azken bi partiduak irabazi ostean helduko da Santanderrera. Hala ere, justu dabiltza jende aldetik: "Hainbat lesionatu ditugu, ezkontza duten bi jokalari daude eta kanpora ere badoa beste bat. Nahiko justu joango gara eta ezin daiteke larregi eskatu. Hala ere, jokalari bakoitzak bere lana ondo egiten badu, hor egongo gara. Galdu egiten badugu ere, gure lanarekin gustura etortzea izango da helburua". Ezin da ahaztu joaneko partiduan kantabriarrak 15 jokalarirekin etorri eta irabazi egin zutela.

Hurrengo aste bukaeran Independiente Bathco taldearen aurka jokatu dute etxean eta liga amaitzeko, apirilaren 6an, Elorrioko taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Joanekoan, Arrasaten irabazi egin zuten; errebantxa gosea dute arrasatearrek.

## ZALDIBAR

### LIGA

**1. FASEKO SAILKAPENA**

| | TALDEA | P |
|---|---|---|
| 1 | Sonografos | 32 |
| 2 | Iriztu | 25 |
| 3 | Dribling | 24 |
| 4 | Aldatz | 22 |
| 5 | Abokajarro | 22 |
| 6 | Ostantz | 18 |
| 7 | Iluntz | 17 |
| 8 | Lasagabaster | 16 |
| 9 | AT. Betrayer | 16 |
| 10 | Haizea's Weah | 16 |
| 11 | Fidel & Discipulos | 15 |
| 12 | Aston Birra | 4 |
| 13 | Iluna Taberna | 0 |

**2. FASEKO MULTZOAK**

**A multzoa**

| | TALDEA | P |
|---|---|---|
| 1 | Sonografos | 7 |
| 2 | Aldatz | 5 |
| 3 | Abokajarro | 4 |
| 4 | Lasagabaster | 3 |
| 5 | AT. Betrayer | 2 |
| 6 | Aston Birra | 1 |

**B multzoa**

| | TALDEA | P |
|---|---|---|
| 1 | Iriztu | 7 |
| 2 | Dribling | 5 |
| 3 | Ostantz | 4 |
| 4 | Iluntz | 3 |
| 5 | Haizea's Weah | 2 |
| 6 | Fidel & Discipulos | 1 |

### KOPA

**EMAITZAK (FINAL-ZORTZIRENAK)**

| | |
|---|---|
| Haizea's Weah- Fidel & Discipulos | 11-1 |
| Abokajarro- AT. Betrayer | 11-5 |
| Dribling- Sonografos | 6-4 |
| Iriztu- Iluntz | 3-4 |
| Lasagabaster- Aldatz | 4-5 |

**EMAITZAK (FINAL-LAURDENAK)**

| | |
|---|---|
| Haizea's Weah- Dribling | 1-2 |
| Aston Birra- Iluntz | 1-4 |
| Ostantz- Aldatz | 1-5 |
| Abokajarro- Iluna | 1-0 |

**PARTIDUAK (FINALERDIAK)**

MARTXOAK 16, ZAPATUA

| | |
|---|---|
| 10:00 | Iluntz-Abokajarro |
| 11:30 | Aldatz-Dribling |

### Kopako finalerdiak jokatuko dira bihar

Kopako finalerdiak jokatuko dira bihar. Lau hautagai daude finalerako: batetik, Iluntz eta Abokajarro; eta, bestetik, Aldatz eta Dribling. Kopak orain arte argi utzi du ez dagoela faboritorik eta ligako sailkapen orokorrak ez duela zerikusirik. Edozer gerta liteke...

### Bigarren fasea, Aste Santu ostean

Liga erregularreko txapelduna Sonografos izan da da: Zorionak! Aste Santu ostean –apirilaren 13an eta 14an– hasiko da bigarren fasea. Aurten ere berritasunik ez da falta: lehen faseko sailkapenaren arabera puntu kopuru ezberdina banatu zaio talde bakoitzari.

**Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea** | Trikiti eta pandero jotzaileak

# "Apurtzaileak gara, gure potpourrietan 'Adele' jo dugu"

Trikiti eta pandero jotzaile arrasatearrek Euskal Herriko jaialdi garrantzitsuena den San Jose jaialdian emanaldia emango dute bihar

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Trikiti emanaldiak oso antzerakoak izaten dira, baina Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea mundu horri buelta ematen hasiak dira. Gazteak, ausartak, apurtzaileak... izan arren, tradizioa miretsi egiten dute. Euren burua oso modu apalean ikusten dute, baina, zapatuko jaialdian parte hartzeko gonbitaren ostean, argi dago trikiti munduaren lehen mailan daudela.



Amets Ormaetxea eta Irati Gutierrez, trikiti eta pandero jotzaileak. | I.GALLEGO

**Beti izan zarete bikote musikala?**

**Amets Ormaetxea:** Ez; Aretxabaletako mutil batekin hasi nintzen, baina segituan Iratirekin jotzen hasi nintzen.

**Irati Gutierrez:** Ni lehenago hasi nintzen trikitia jotzen, eta horregatik izan ditut beste bikotekide batzuk. Getarian hasi ginen elkarrekin jotzen.

**Batera arrakasta handia izan duzue?**

**I.G.:** Bueno, hainbat kantu txapelketatan egonak gara.

**A.O.:** Euskal Herriko kantu txapelketako finalera iritsi ginen unea oso berezia izan zen. Pentsa ezazu bikote onenekin sailkatu ginela.

**San Joseko emanaldia lehen mailakoa da?**

**I.G.:** Oso jaialdi garrantzitsua da. Trikiti munduan garrantzitsuenetakoa.

**A.O.:** Partaideak izen handikoak dira. Gainera, guztiek sari asko jaso dituzte. Bertan parte hartzeko gonbita jaso genuenean, ezin genuen sinetsi ere egin.

**Ez da presio egitearren, baina ia sarrera guztiak agortu dira.**

**A.O.:** Normala da. Inguru honetan jendeak ez du San Jose jaialdia ezagutzen, baina Azpeitian sekulako ospea dauka.

**Oso jaialdi berezia da.**

**I.G.:** Bai, tradizioa eta modernoa nahasten ditu. Pentsa, kartel berean Elustondo anai-arrebak eta Kepa Junkera daude... Biek oso maila handia dute, baina, oso estilo desberdina.

**Zein estilotan kokatzen duzue zuen burua?**

**A.O.:** Ez da estilo kontua; gu gazteak gara eta hori igarri egiten da egiten dugun musikan.

**I.G.:** Gu bigarrenak, gara Elustondo anai-arreben ostean, eta aldeketa asko nabarituko da.

**Ze prestatu duzue?**

**A.O.:** Kontuan izan potpourrietan *Adele* eta La Polla Recordsen abestiak sartu izan ditugula.

**Emanaldirako ezer berezirik prestu duzue?**

**I.G.:** Gure egiteko modua da, gu nahiko apurtzaileak gara. Zerbait prestatu dugu, baina hori oholtza gainean argituko dugu.

### San Jose jaia Azpeitian

Trikitia gustuko dutenek ezinbesteko hitzordua dute bihar, hilak 16, Azpeitiko San Jose jaialdian. Aurtengoa bihar, hilak 16, izango da, Azpeitiko Soreasu antzokian.

Lehen mailako trikitilariak izango dira bertan: Kepa Junkera eta Motriku, Eneko Dorronsoro... Kartel erakargarri horretaz gozatzeko sarrerek 12 euroko kostua dute eta antzokian bertan salgai egongo dira, 16:00etan.



IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOA

## Hasi dira 'La tabernera del puerto' zarzuelaren entseguak

Astelehenan egin zuten *La tarbernera del puerto*-ren lehen entsegua, Arrasate Musikalen. Azaroko azken bi aste bukaeretan egingo dituzte emanaldiak, baina Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideek entseguak hasi dituzte. 100 pertsonako zarzuela batek lan handia eskatzen du, eta komeni da gauzak garaiz egitea.

## Goikobaluko Gaztek eta Txikik kontzertua eskainiko dute bihar

**I.G.** | ARRASATE

Arrasateko parrokian izango da kontzertua, 18:30ean. Elkartrukea bi abesbatzetako zuzendariek duten laguntasunagatik izan da, eta, bi abesbatzek programa bereiziak izango dituzten arren, bukaeran guztiek batera abesti bat kantatuko dute elkarrekin.

Goikobalu Txikik eta Gaztek ez dute elkarrekin abestuko; hortaz, guztira hiru abesbatza izango dira parte-hartzaileak. Goikobalutik esandakoaren arabera, kontzertuak ordubete iraungo du eta doinu herrikoiak eta modernoagoak tartekatuko dituzte.

**Xemeingo abesbatza**

Eskarmentu handiko abesbatza da Xemeingoa. 1997. urtean jaio zen, aurretik Markina-Xemein herrian izandako umeen abesbatzari jarraipena emateko asmoz. Itxaso Jaiok hartu zuen zuzendaritza.

Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antolatutako hainbat kontzertutan ere parte hartu du abesbatza bizkaitarrak. Goikobaluren gonbitaren jaso aurretik, zenbait kontzertu trukaketatan ere parte hartu dute; esaterako, Etxebarriko kantariekin eta Zarautz Txiki abesbatzarekin. Arrasatekoek apirilaren 13an bueltatuko diete bisita Markinakoei.

## Bluesaren rock doinuak euskaraz gaur Iluntz tabernako oholtzan

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE

Blues rock musikak Iluntz taberna girotuko du gaur, 22:30ean. Soraluzetik etorriko den The Crazy Wheels Band taldea oholtza gainera igoko da blues, soul eta rock doinuekin ikusleak astintzeko.

Gazte horiek Black Crowes eta Lynyrd Skynyrd dituzte maisu bezala. Joan den abenduan, Bilbon izan zen Banden Lehian, bigarren postua lortu zuten. Musikari gazteak izan arren, eskarmentu handia dute euren instrumentuekin, eta aho-soinu eta organo elektrikoarekin gau polita eskainiko dute.

**Ibilbide motza, baina sutsua**

The Crazy Wheels Band taldea 2011n sortu zuten, Bilbon, Ina Arriola abeslariak eta Xabimen Aretxabaleta gitarra-joleak, 60ko eta 70eko hamarkadetako musika estatubatuarra bereganatu eta proiektu propioa sortzeko. Gerora, Juan Fernandez bateria-jolea, Mikel Sainz de Rozas piano-jolea eta Iosu Arriola gitarra-jolea batu zitzaizkien.

*Alkarrekin gozatuz*, *Badoiaz* eta *Nire ametsen barruan* bezalako kantua propioak entzuteko aukera polita izango da gaur gauekoa, gazte hauek AEBetara garraiatuko zaituzte-eta.

### Bihar Amaia antzokian 'Alabatxo' gazte antzerkia

*Alabatxo* keinu bidezko ikuskizuna da, musikan eta objektuen manipulazioan oinarrituta. Laida haurdun dago. Hark eta Martinek, bikotekideak, ilusio handia dute, baina eurekin Laidaren aita bizi da. Komedia, etxeko gazteentzako. 17:00etan, Arrasateko antzokian.

### 'Emakumeak gerra zibilean' erakusketa 24ra arte Kulturaten

Ekin taldeak *Debagoieneko emakumeak gerra zibilean eta frankismoan* erakusketa antolatu du. Kulturateko klaustroan. Gogoan izan behar da erakusketaz gozatu nahi dutenek martxoaren 24ra arte izango dutela aukera, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

Goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua
IBILGAILUA NAHI DUZUN TOKIRA ERAMANGO DIZUGU:
- LANTOKIRA
- ETXEKO ATARIRA
AIREPORTUKO ZERBITZU EZIN HOBEA.
IBILGAILU-FLOTA ZABALA.
AUTOAK, EGUNEKO, 19,95 €TIK AURRERA.
INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:
943 71 66 52 / 619 44 71 75
info.goienarent@i-rent.es
www.goienarent.com




Jaurlaritzako, Udaleko eta BPxport enpresako ordezkariak, asteon egin duten agerraldian. | TXOMIN MADINA

# Herritarrak martxan jarri nahi ditu Kirol Zerbitzuak

## Osasuna helburu, adinekoentzako ibilbide programa egin dute, besteak beste

**TXOMIN MADINA** | BERGARA

Kirolarekin lotutako hainbat ekimenen berri eman dute asteon Jesus Elortza alkateak eta Lauri Askargorta Kirol zinegotziak eta Jaurlaritzako Osasun Saileko Maribel Larrañagak eta Xabier Murielek, BPxport enpresako kideak.

Adineko bergararrendako ibilbideen programa da ekimen horietako bat. *Bergara Tipi Tapa...* du izena, Udalak eta Jaurlaritzak elkarlanean abiarazi dute herrian, eta zailtasun handiko, txikiko eta ertaineko lau ibilbide jasotzen ditu.

Herriko kirol kontseiluaren ekimenez garatzen dabiltzan Bergarako Osasun Planaren barruan sartzen da programa hori, eta helburua da, batez ere, adineko bergararrak, osasuntsu mantentzeko kirola egitea: "Ariketa fisikoarekin eta harreman sozialekin, osasun fisikoaz gain osasun mentala ere lantzen dute, eta honen bidez, bizi-kalitatea", esan zuen Maribel Larrañagak, Jaurlaritzako Osasun Publikoko Gipuzkoako zuzendariordeak astelehenean egindako prentsaurrekoan.

Beheko taulan ikus daitezke ibilbideak eta ezaugarriak. Bestalde, ibilbideon gaineko *Ibiltzea osasuna da...* delako triptikoak eskuragarri jarriko dituzte bai herriko kirolguneetan, eta baita osasun zentroan ere. Horrekin batera, ibiltzeko ohitura bultzatzeko asmoz, martxo eta apirilean lau hitzordu zehaztu dituzte, monitore batekin batera ibiltzera ateratzeko. Hitzorduak irekiak dira eta 11:00etan abiatuko dira, Agorrosinetik.

### Doako aholkularitza

Bestelako ekimenen artean, aurrerantzean, Agorrosinen azpikontratatuta dagoen BPXport enpresako monitore batek herritar guztiendako doako aholkularitza fisikorako zerbitzua ere eskainiko du Agorrosinen. 943 77 70 95 telefono zenbakira deitu behar da hitzordua hartzeko, eta horretarako formatzen ari den pertsona bat izango da herritarrei azalpenak emango dizkiena. Agorrosingo zein herriko gainerako kirolguneetako eta herriko kirol elkarteen inguruko informazioa emango du. Horrekin guztiarekin batera, pertsona bakoitzaren osasun egoeraren araberako kirol gomendioak ere emango ditu.

Aholkularitza hori astelehenetik eguenera 09:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da; eta egubakitzetan, 09:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

### IBILBIDEAK

| IBILBIDEA | LUZERA | DENBORA | DESNIBELA | ZAILTASUNA |
|---|---|---|---|---|
| Agorrosin-Labegaraieta-Ibarbaltz | 6.300 m | 75-80 minutu | 24 metro | Erraza |
| Agorrosin-Osintxu | 8.960 m | 100-105 minutu | – | Erraza |
| Gerriko Berdea- San Martzial bira | 6.500 m | 80-85 minutu | 125 metro | Ertaina |
| Gerriko Berdea osoa | 9.225 m | 110-120 minutu | 175 metro | Zaila |




*Azken afaria*-ren errekreazioa egin dute Erramu-zapatuko bazkaria iragartzeko. | JON ANDUEZA (KB PHOTO STUDIO)

# Erramu-zapatuko bazkarirako txartelak ondo saltzen ari dira

**M.B.** | BERGARA

"Aurten aurreikuspen guztiak gainditu dira, bi asteren faltan txartel guztiak ia salduta daude; eskertzekoa da jendearen interesa eta gogoa". Hala esan du Erramu-zapatuko herri bazkaria antolatzen ari den herritar taldeak. Eta gehitu dute "txartel gutxi batzuk gehiago salgai jartzea" pentsatzen ari direla. Osterantzean, geratzen diren txartelak Depor, Kortazar, Eusebio, Bulebar eta Ariznoan daude salgai, 12 eurotan. Bazkaria 14:30ean izango da, Udal Pilotalekuan, eta txotx egiteko aukera ere izango da. Bazkaria iragartzeko, *Azken afaria*-ren errekreazio bat egin dute: "Aurten seigarrena izanda, azken bazkaria izango ez dela esan nahi dugu. Eta Aste Santu atarian egiten denez, horrekin ere badu lotura", azaldu dute.

# Saharako emakumeen aldeko jaialdia bihar

## Pilotalekuan izango da, 17:00etatik 21:00etara

**M.B.** | BERGARA

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatzeko eta Saharako emakumeei elkartasuna adierazteko, jaialdia izango da bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan. Bubisher elkarteak antolatu du, Udalaren laguntzarekin, eta 17:00etatik 21:00etara izango da.

Batetik, 17:00etatik 19:00etara, umeendako askotariko tailerrak egongo dira Mariaren Lagundiko boluntarioen laguntzarekin. Horrekin batera, haima ere jarriko dute, besteak beste, tea emateko.

Jaialdiaren bigarren partean, 19:00etatik 21:00etara, kontzertua egongo da. Zestoako Leok'k musika taldeak egingo du elkartasun kontzertu hori.

Bubishertik aurreratu dutenez, jaialdirako sarrera debaldekoa izango den arren, Saharako emakumeei laguntzeko dirua batzea da ekitaldiaren helburuetako bat. Hala, herritarrek borondatea emateko kutxak jarriko dituzte; sarreran bonoak ere egongo dira salgai, euro baten truke. Eta Leok'k taldearen diskoa eta kamisetak ere salduko dituzte.

### Domekan plazan irudikatuko den 'Berdegara' haize errota erraldoian parte hartzeko dei egin dute

Bergara Zero Zabor taldeak Berdegara mosaikoa osatzeko deialdia egin du domekarako, San Martin Plazan 13:00etan. Haize errota irudikatzen duen Berdegara logotipo erraldoia egingo dute, ortzadarraren koloretako kartulinaz. Berdegarako logoa Juanjo Altuna margolariak egindakoa da. Talde horrek zero zabor norabidean hondakinen gaikako bilketa eraginkorra ezinbestekotzat dute.

### Hirigune historikoa artisten begietatik ikusteko, Beartek bisita gidatuak eskainiko ditu hilean behin

Beart artisten elkarteak doako bisita gidatuak egingo ditu hilean behin, hileko domeka batean, abendura bitartean. *Bergarako Hirigune Historikoa Koloretan* auzolanean egindako ekimeneko obrek markatuko dute ibilbidea, eta horien eta inguruan dauden eraikinen berri emango da. Lehena domekan, hilak 17, izango da, 10:00etan San Martin plazatik abiatua. Izena emateko: 628 26 65 97.

### Udal Musika Bandak gaztetxeari egindako martxa aurkeztuko du domekan egingo duen kontzertuan

Udal Musika Bandak domekan, hilaren 17an, egingo du hil honetako kontzertua. 12:30ean izango da kontzertua, Udal Pilotalekuan, eta sei obra eskainiko dituzte. Hain zuzen, Alfredo Gonzalez Chirlaquek Bergarako gaztetxearen eskariz idatzitako *Gaztetxeruntz* martxa estreinatuta irekiko dute kontzertua.

### Zabalik dago Agorrosinen umetxoendako ur jardueretan izena emateko epea hilaren 17ra arte

6 eta 24 hilabete arteko umeendako eskolak zapatuetan izango dira eta bi ordutegi daude aukeran: 10:15etik 10:45era eta 10:45etik 11:15era. 2009 eta 2011 bitartean jaiotakoek, berriz, bi egun dauzkate aukeran: zapatuan, 11:15etik 11:45era; eta egubakoitzean, 17:00etatik 17:30era. Ikastaroak apirilaren 13tik ekainaren 22ra izango dira. Informazio gehiago, 943 77 70 95 zenbakian.

## OHARRAK

**BERBALDIA LOMCE LEGEAZ HILAREN 19AN**

Ipintza Institutuko Guraso Elkarteak antolatu du eta 18:30ean izango da, insitutuko areto nagusian. Xabier Mendizabalek, Bigarren Hezkuntzako Zuzendarien Elkarteko koordintzaileak; Lurdes Imazek, Euskal Herriko Ikasle Gurasoen Elkarteko koordinatzaileak; eta Jose Ignacio Martinezek, Lehen Hezkuntzako Zuzendarien Elkarteko koordinatzaileak egingo dute berbaldia. Interesa duten guztiek har dezakete parte.

**SAN JOXEPEREN URTEKO BATZARRA HILAREN 20AN**

Areto nagusian egingo dute bazkideen batzar orokorra. Lehenengo deialdia 16:30ean da eta bigarrena, berriz, 17:30ean.

# Bilketa sistemaren kontrako eta aldeko iritziak entzun dira bileretan

▶ 700 herritar inguruk hartu dute parte egindako zazpi bilera parte-hartzaileetan

▶ Bagarak dinamizatu ditu bilerak, eta jasotako iritzi eta ekarpenak aztertuko ditu orain Udalak

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Hondakinak gaika atez ate biltzeko sistemaren aurkako eta aldeko iritziak entzun ziren martitzenean Labegaraietan egin zuten bilera parte-hartzailean. San Antoniotik Labegaraietara bitarteko auzotarrak zeuden deituta bilera horretara. 62 joan ziren, eta denek elkar errespetatuz entzun zioten elkarri, baita Udaletik eta Mankomunitatetik joandako ordezkariei ere. Jaione Isazelaia eta Ariane Kareaga zinegotziak izan ziren bilketaren inguruko datu orokorrak eman eta herritarren galdera eta zalantzak erantzuten eta argitzen aritu ziren udal ordezkariak.



Martitzen iluntzean Labegaraietan egin zuten bilera parte-hartzailea. | O.E.

**Intimitatea eta tasak**

Bilera horretara joan zirenetako asko pertsona nagusiak ziren, asko bakarrik bizi direnak, gainera, eta produktu konkretu batzuen gaineko galdera asko entzun ziren. Ezjakintasunetik galdetzen zuten batzuek, eta gaikako bilketa ondo egin nahi zutelako zalantzak argitzeko beste batzuek, gaizki egingo ote duten beldurrez.

Sistema honek intimitatea urratzen duela adierazi zuten herritar batek, eta hori ez duela gustuko. Bilketa egingo duten langileak profesionalak izango direla erantzun zien Ariane Kareagak, eta ez direla poltsak zabaltzen hasiko: "Gainera, esekitokietan badira kuboak sartzen ez diren kako txiki batzuk, horietan edozein bizilagunek eskegi dezake bere poltsa pixoihalekin edo konpresekin, inork ez du jakingo norena den bakoitza". Bilketa modu honek zabor tasan zer onura izango duen ere galdetu zuten herritarrek. Mankomunitateko teknikariak erantzun zien horrela biltzen ez duen herriak igo egin beharko dituela tasak.

**Edukiontzi gehiago**

Bileraren azken zatian taldeka bildu ziren herritarrak, Udalak egindako proposamenen inguruan iritzia eman eta erabakiak hartzeko. "Paper bilketa ondo egiten badugu orain, segi dezagun edukiontzitan batzen", zioen herritar batek. "Bai, baina bi edukiontziak mantentzea erabakitzen bada, segimendu batzorde bat eratu beharko da, ondo edo gaizki egiten dugun ziurtatzeko", gaineratu zuen beste batek. Taldeetako baten, adibidez, San Antonion eta Martokuan edukiontzi gehiago behar direla ere aipatu zuten, eta *tupper*-en erabilera sustatzearen alde agertu ziren, baita dendek janaria ontziratu gabe, soltean, saltzeko aukerak bultzatzearen alde ere. Ekarpen horiek ere jasota gelditu ziren.



**IÑAKI ARREGI**
HERRITARRA

"Erabakia hartuta dago eta hori da akatsa, baina informazioa zabala eta aberatsa izan da. Kezka asko daude, aldaketa handia delako, eta uste dut arduraz jokatu behar dugula. Denok jarri beharko dugu gure aldetik, ondo atera dadin".



**JUANA SEPULVEDA**
HERRITARRA

"Informazio nahikoa eman dute bileran, eta ondo antolatuta egon da, gustatu zait. Egia da hemen entzundakoarekin beste modu batera ikusten dudala gaia. Denon laguntzarekin egiten badugu, uste dut balioko duela".



Bileraren azken fasean taldeka elkartu ziren herritarrak. | O.E.

**ARIANE KAREAGA**
ZINEGOTZIA

## "Aste Santu ostean jakinaraziko ditugu erabakiak"



O.E.

Zazpi bilera parte-hartzaile egin ditu Udalak. Han jasotakoak aztertuko ditu orain.

**Zein da balorazioa?**
Dinamika onean egin dira bilerak, berriketan, eztabaidan... eta pozik gaude, balorazio positiboa egiten dugu.

**Ze iritzi jaso duzue herritarrengandik?**
Bileretako azken zatia iritziak eman eta erabakiak hartzeko tartea izan da, taldeka banatuta, eta hor izan da parte-hartzea. Bukaeran, saioen gaineko balorazioa egiteko ere eskatu diegu, eta herritar askok egin dute balorazio pertsonal hori. Orokorrean onak dira.

**Noiz hartuko dituzue behin betiko erabakiak?**
Bileretan jasotako guztia aztertuko dugu orain, eta Aste Santu ostean jakinaraziko dugu herritarrek zein sistemaren alde egin duten.

## Erakusketa

**Bilketa puntuen kokaguneak, esekitokiak, non egongo diren ikusten den erakusketa dago zabalik udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hilaren 21a arte egongo da zabalik, astelehenetik eguenera 10:00etatik 19:00etara eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara.**

**Alegazioak eta proposamenak 22ra arte aurkez daitezke, baina alegazioak atariko bizilagun guztien izenean adostuko dira. Alde zaharreko egoera beste erakusketa baten erakutsiko dute.**

ZUHAITZI
BERRIZ ERE ZABALIK!
• Menuak eramateko edo bertan jateko.
• Bokadilloak / Sandwich-ak / Hanburgesak
• Errazioak
• Plater konbinatuak
• Oilasko erreak eramateko.
Espoloia 6 - BERGARA - Tel.: 943 76 59 22

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918




Final eta kontsolazio partiduetako jokalariak, Soraluce enpresako ordezkariekin. | J.B.

# Txapela berretsi du Ioldik Soraluce lehiaketan, garaipen errazarekin

Nafarren arteko emozio txikiko norgehiagoka izan zen martitzen gauean eta erraz hartu zion aurre Jon Antsotegiri Eneko Ioldik, iazko txapeldunak

JON BEREZIBAR | BERGARA

Lau t'erdiko Soraluce pilota txapelketako finala jokatu zen martitzenean. Emozio eta ezusteko gutxi izan zuen finalak. Eneko Ioldik, iazko irabazleak, titulua berretsi du aurten ere. Nafarren arteko neurketa izan zen, Jon Antsotegiren aurka. Kontsolazio partiduan Eneko Mugurutzak irabazi zuen.

Emaitza bera da finalak izan zuen grina faltaren frogarik garbiena. 22-5 irabazi zion Eneko Ioldik Jon Antsotegiri, erraz eta ahalegin berezirik egin barik. Horrela, txapela berretsi zuen atzo gauean Eneko Ioldik. Txapelduna ez zen bereziki gogor ibili aurkariarekin, baina uneoro izan zuen Antsotegi kontrolpean. Hasiera baten Ioldi faborito bazen ere, indar neurtuen arteko aurrez aurrekoa izango zela ematen zuen. Ez zen horrela izan eta Jon Antsotegi, amorratuta ere, ezer gutxi egiteko gai izan zen.

**Bergararrak, kontsolaziokoan**

Martitzenean kontsolazio finala ere jokatu zen Soraluze txapelketan. Kasu honetan, bi bergararren artekoa izan zen: Eneko eta Ander Mugurutza lehengusuen artekoa, hain zuzen. Partidua berezia izan zen, berez kontsolazio finalak Ojuel eta Jaka pilotarien artekoa izan behar zelako. Haiei zegokien hirugarren eta laugarren postuak jokatzea, baina bi jokalariek, eskuetan min zeukatela esanda, uko egin diote partiduari.

Bi lehengusuen arteko partiduak ere emoziotik gutxi izan zuen. Eneko Mugurutzak irabazi zuen 8-22 Anderren aurka, hark ere erraz eta azkar, nahiz eta bien aldetik utzikeria gehiago nabaritu. Enekok Anderri lehen tantoetan aurre hartzearekin batera erabakita geratu zen partidua.

**ENEKO IOLDI** | TXAPELDUNA

## "Uste baino errazago irabazi dut"


J.B.

Garaipena hasieratik eskura izan zuen martitzenean Ioldik, bere harridurarako. Antsotegik gogorrago egingo ziola espero zuen uhartearrak.

**Garaipena samur lortu duzula esan liteke?**

Bai. Espero baino errazagoa izan da. Partidu askoz gogorragoa espero nuen, egia esateko. Egun ona izan dut eta gustura jardun dut jokoan, lehiaketa guztian zehar bezala.

**Antsotegi ahul samar ibili da, hortaz.**

Urduriago ibili da, ez da bere gaurik onena izan eta presa horren ordaina jaso du. Sarritan jokatu dugu elkarren aurka, eta hori ikusi dut nik, biok nafarrak gara–eta. Uste nuena baino erraztasun handiagoa dut.


ARTXIBOA

## Beñat Rezusta txapeldun

Banakako senior kategorian 22–3 irabazi zion Rezustak Urionabarrenetxeari joan den barikuan Euskadiko Ligako Ohorezko mailan. Bergaran bertan jokatu zen txapelketako finala.


BERGARA SHOTOKAN

## Bergararrak podiumaren jabe

Gipuzkoako Karate Txapelketan ezin hobeto ibili ziren herrikoak joan den asteburuan. Hain zuzen, ia ikasle gehienak podiumera igo ziren. Benjaminetan: Ainhoa Salillas eta Naia Perez (lehenak), Xabier Etxaniz (bigarren) eta Gorka Kasatorre (hirugarren). Kumitetan: Maddi Iñarra, Maite Gutierrez eta Gorka Markez (lehenak); Asier Muñoz, Aitor Rubio eta Joseba Perez (bigarren) eta Urko Nogales hirugarren. Euskadiko Txapelketarako plaza lortu dute guztiek.


ANTXINTXIKA

## Lurdes Oiartzabal lehena

Domekan Basaurin jokatu zen duatloian Antxintxika taldekoek lan fina egin zuten. Gizonezkoetan taldeko sailkapenean garaile atera zen taldea eta emakumezkoetan Lurdes Oiartzabal izan zen zapatuan txapelduna.

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

# Fiareren aldeko boluntario taldea eratu gura dute

**O.E.** | OÑATI

Fiare banka etikoa zer den azaldu zuten eguazten iluntzean kultura etxeko zinema aretoan. Fiareko zuzendari nagusi Juan Garibi bizkaitarra izan zen aurkezpen ekitaldian, Juancar Olaeta Fiareko Debagoieneko boluntario taldeko kidearekin eta Jokin Astigarraga Fiareko bazkidearen ondoan. Horiez gain, Josean Larrañaga parrokoa eta Mikel Biain alkatea ere egon ziren, biak dira-eta Fiareko bazkide; Udalak aho batez hartu zuen erabakia.

### Fiaren sartzeko gonbidapena

"Ni konturatu nintzen ez dugula jakiten bankuek non sartzen duten gure dirua. Batzuek armagintzan sartzen dute eta beste batzuek, adibidez, ingurumenari kalte egiten dioten proiektuetan. Nik nahiago dut bide etikoetara bideratu, eta horregatik egin naiz Fiareko bazkide", esan zuen Jokin Astigarragak. "Gure helburua ez da orain jende guztiak dirua duen tokitik ateratzea, baizik eta erakustea badagoela beste banku mota bat, etikoa dena, eta animatu gura ditugu diru kopuru txiki bat, momentuan behar ez dutena, Fiaren sartzera, ikusteko zer pasatzen den", argitu zuen Juan Garibik. "Izan ere, nominako sei euro bidezko merkataritzara bideratu arren hilero, nora doaz gainerakoak?", galdetu zuen Garibik.

Fiareko estatuko zuzendari orokorrak emandako datuen arabera, sei urtean zazpi pertsona kontratatu dituzte eta 40 milioi euroko diru kopurua mugitzen du.




Zinema aretoan egin zuten aurkezpena eguaztenean. | O.E.

# Hitzaldia, antzerkia, bingoa, irteera eta urteko batzarra Pake Lekun

Astelehenean hasiko da udaberriari ongietorria egiteko prestatu duten egitaraua

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Eguaztenean, hilak 20, sartuko gara udaberrian, eta Pake Leku erretiratuen elkartean ekitaldi ezberdinak jasotzen dituen egitaraua prestatu dute udaberriari ongietorria emateko.

### Gernikako aktoreak

Astelehenean, *Kirola bizia da* hitzaldia egongo da. Osasun zentroko bi erizain dira hizlariak, Isabel Arenatza eta Kizkitza Alustiza. 17:30ean izango da, Pake Lekuko areto nagusian. Martitzenean, Gernikako erretiratuen etxeko aktoreek *Yo por mi pueblo, cualquier cosa* antzezlana eskainiko dute Santa Anan, 17:30ean. Eta eguenean, bingo berezia egongo da erretiratuendako Pake Lekun.

### Irteera eta batzar orokorra

Bestalde, egubakoitzean irteera egingo dute Legazpiko Mirandaola burdinolara. Txillidaren tailerra ere bisitatuko dute, besteak beste. Irteera horretara joateko, baina, izena eman behar da aurretik. Horretarako azken eguna gaur da, egubakoitza, 18:30etik 22:00etara. 5,5 euro da prezioa.

Mirandaolarako irteera goizean egingo dute eta arratsaldean, berriz, urteko ohiko batzar orokorra. Batzarraren ostean, zuzendaritzako kide berriak izendatuko dituzte.



Zuazolako ikasle talde horrek astelehen goizean bisitatu zuen Udal Artxiboa. | TXOMIN MADINA

# Udal Artxiboa ezagutzeko bisitak ari dira egiten

Helburua da ikasleek jakitea zer gordetzen den eta edonork erabil dezakeela

**TXOMIN MADINA** | OÑATI

Zer da Oñatiko Udal Artxiboa? Zer gordetzen da bertan? Zertarako? Galdera horiei guztiei eta beste hainbati erantzuten zaie asteotan herriko ikasleak Oñatiko Udal Artxibora egiten ari diren bisitetan. Izar Salaberri Iñarra bertako arduradunaren esanetan, helburua da herriko gazteei erakustea artxiboa hor dagoela eta edozeinek erabil dezakeela.

Artxiboan zer dagoen azaltzeko, hantxe gordetzen diren dokumentu mota ezberdinak erakusten dizkie bisitan doazenei. "Akta liburuak, kontu liburuak, hidalgiak... Zerbitzu bakoitzak egin dituen dokumentu ezberdinak ere erakusten diet, esaterako euskara zerbitzuak argitaratu zuen lehen egutegia, oraindik ere ateratzen duen poster formatuko egutegia. Horiez gain, herriko planoak eta argazkiak ere ikusten ditugu", azaldu du artxiboko arduradunak.

### Argazkiak

Edozein udaletako jardunari dagozkion dokumentuez gain, dohaintzan emandako beste hainbat dokumentu ere badaude Oñatiko Udal Artxiboan, eta alde horretatik artxibo aberatsa da, Izar Salaberri Iñarraren esanetan. "Akta liburuek, esaterako, ez dute aparteko garrantzirik, udal guztiek dituzte-eta, baina argazkiak, adibidez, bi funts gordetzen dira: Arzuaga eta Arzalanzonen fondoak daude. Bilduma bat ere badago gordeta hemengo artxiboan, kristalezko plakena. Bi arkitektoren funtsak ere gordetzen dira, baita enpresa batena eta familia batena ere".

### Aberasgarria

Bisita horiek herriko Hezkuntza Mahaiaren bitartez bideratu dituzte, eta DBHko 3. eta 4. mailetako eta batxilergoko ikasleei zuzenduta daude. Herriko gazteen erantzunaz galdetuta, Udal Artxiboko arduradunaren esanetan gustura geratu dira. "Talde batzuk biziagoak izan dira, galdera gehiago egin dituzte, kondeari buruzkoak tartean, baina orain arte, irakasleek esandako moduan, gustura gelditu dira, aberasgarriak egin zaizkie". Oraingoz, bi ikastetxetako lau taldek egin dituzte bisita gidatu horiek; Aste Santu ostean, beste bi ikasle talde eta irakasle talde bat ere joango dira.



OÑATIKO NATUR ESKOLA

## 40 lagun Atapuercara Natur Eskolarekin

Natur Eskolak antolatuta, Atapuercara egin zuten irteera joan den asteburuan, eta kaskoa buruan zutela ikusi zituzten hango lanak. 40 lagun joan ziren, plaza guztiak bete ziren. Burgosko Giza Eboluzioaren Museoa bisitatu zuten, eta baita Puente Viesgoko (Kantabria) Monte del Castilloko kobazuloak ere.

## Uztaileko udaleku irekietarako izen-emate epea zabalik hilaren 22ra arte

### Zaintza zerbitzua ere egongo da aurten

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI
Udaleku irekietako izen-emate epea zabalik dago. 70 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako kontu korrontean hilaren 22a baino lehen. Inskripzioa egiteko orriak ikastetxeetan banatuko dituzte.

Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak antolatzen ditu udalekuak, eta uztailaren 1etik 26ra izango dira, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara, Eteo zaharrean.

Onartuko dituzten neska-mutiko gazteenak 4 urtekoak izango dira eta zaharrenak, 10 urtekoak. Adinaren araberako taldeak banatuko dituzte, eta adin bakoitza kolore batekin identifikatuko dute: biserekin eta banderarekin.

Era berean, zabalik dago udalekuetan parte hartuko duten neska-mutikoendako zaintza zerbitzuan matrikula egiteko epea. Zerbitzuaren helburua gurasoen lan ordutegia eta udaleku irekietako zerbitzua bateragarri egitea da. Zaintza zerbitzuak familien beharrei erantzun nahi die.

Begiraleek 07:30ean jasoko dituzte neska-mutikoak Eteon, eta 10:00etan udalekuetako gainerako umeekin elkartuko dira.

**Begiraleak**
Bestalde, udalekuetako begiraleendako izen-emate epea ere zehaztu dute: apirilaren 2tik 13ra udal bulegoetan egin behar dute inskripzioa.

## Musika eskolako ikasleek Udaberriko Kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Santa Anan

Musika eskolako hainbat ikaslek Udaberriko Kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Santa Anan, 19:00etan. Hain justu ere, triki-konbo, akordeoi, triki-pandero eta haize taldeek egingo dute emanaldia. Talde bakoitzak, bakarka, hainbat pieza eskainiko ditu. Hurrengo astean, hilaren 18an eta 20an, beste talde batzuek egingo dituzte emanaldiak.

## Igerilekua itxita egongo da zapatu arratsaldean, erabiltzaileendako, igeriketa probak egiteko

Aloña Mendiko igeriketa saileko benjamin eta alebin mailetako neska-mutikoek txapelketa izango dute bihar, zapatua, 15:30ean hasita. Euskal ligako proba da. Hori horrela, erabiltzaileek ezin izango dute igerilekua erabili zapatu arratsaldean. Proba hasi baino ordubete lehenagotik eta arratsalde osoan ezin izango da igerilekua erabili.

# Lizarrak eta pagoak landatuko dituzte Aloñan

### Zuhaitz Eguna egingo dute han etzi, domekan

**M.B.** | OÑATI
Aloñako Lagunek eta Natur Eskolak antolatuta, Zuhaitz Eguna egingo dute domekan Aloñako magalean.

**Boluntarioen beharra**
Jon Ugarte eta Imanol Artola basozainek eta Natur Eskolako Imanol Biain, Idoia Bollar eta Jon Betanzosek gidatuko dute landaketa. Baina 30 bat boluntarioren laguntza izango dute. Euren asmoa da lizarrak eta pagoak landatzea: guztira, 50 bat.

Aurreko urteetan zuhaitzak sartutako lekuetan dauden hutsuneak beteko dituzte domekan. Ez dute itxitura berririk egingo.

Aloñako Lagunak taldeak deialdi zabala egin du herritarren artean boluntarioak eskatzeko. Interesa dutenek bi modura eman dezakete izena: Patrue kaleko Fernando Maiztegiren tailerrean edo *aloinakolagunak@gmail.com* helbidean.

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
**943 78 71 65**
**639 01 69 69**

**Rogelio Perez-Perdomo** | Oñatiko LSIko zuzendari ohia

# "Oñatin indarkeriazko krimenik ez egotea salbuespen handia da"

### Asteon indarkeriazko krimenei buruz jardun du unibertsitate zaharrean

**A.M./Z.V.D.M.** | OÑATI
Rogelio Perez-Perdomo Oñatiko Lege Soziologia Institutuko zuzendari ohiak Oñatiko Unibertsitatean indarkeriazko krimenen inguruko hitzaldia egin zuen martxoaren 12an. Gaiaz gehiago jakiteko, harekin jardun dugu.

**Zer da indarkeriazko krimen bat?**
Indar edo mehatxu fisikoa erabiltzen den ekintza da. Adibidez, norbaitek beste bat tiro batez edo urkaraziz (itoaraziz) hiltzen badu, indar fisikoa erabili du eta hori indarkeriazko krimena da. Beste krimen batzuetan ez da indar fisikorik erabiltzen, eta, nahiz eta krimen horiek ugariagoak izan, indarkeriazko krimenei beldur handiagoa diegu.

**Beste krimen batzuekin alderatuta, zertan ezberdintzen dira?**
Orokorrean, indarkeriazko krimenak gizarteko maila sozial baxueneko pertsonek egiten dituzte. Indargabeko krimenak, ordea, maila sozial altuko pertsonek burutu ohi dituzte.

**Krimen mota bakoitza burutzen duten pertsonen profil konkreturik ba al dago?**
Edonork egin dezake indarkeriazko krimen bat, baina badaude krimen jakin bat egiteko joera duten pertsonak. Orokorrean, kontuan hartzen diren bi ezaugarri daude: krimena burutzen duten pertsonen ezaugarriak eta pertsona hori kontrolatzeko hartzen diren neurri instituzionalak. Hori da hitzaldian landuko duguna.

Indarkeriazko krimena burutzeko arriskua onartu behar da, gaizkile izatea arriskutsua baita, eta, normalean, etekin txikiko ekintzak burutzen dituzte.

Iruzurrak edo antzerako ekintzak burutzen dituztenek zigor txikiagoa izaten dute, eta gizartean zuten izen ona edo ospe soziala galtzen dute. Hori da hain zuzen ere, gaur egun bankari batzuei eta politikari ustelei gertatzen ari zaiena.


Rogelio Perez-Perdomo. | SOZIOLOGIA INSTITUTUA

> **"Indarkeriazko krimena egiteko arriskua onartu egin behar da"**

**Kasuak kontrolatzeko moduren bat dagoela esango al zenuke?**
Bai, noski. Gaur egun, badakigu indarkeria eta indarkeria bako delinkuentzia nola kontrolatu. Era bateko edo besteko krimenek trataera desberdina dute, baina, nahiz eta kontrolatu, inoiz ez dira guztiz desagertuko.

**Hitzaldian Oñatiko kasuari buruz hitz egingo duzue. Nola ezagutu zenuen kasua?**
1992. urtean Maracaiboko Kriminologia Institutuko ikertzaile bat etorri zen Nazioarteko Soziologia Juridiko Institutura eta Oñatin lapurretarik eta indarrezko krimenik ez zegoela ikusi eta horren zergatia ikertzen hasi zen. Oñatiko jendearekin hitz egin eta munduko beste leku batzuetako kasuekin alderatu zuen.

**Zer gertatu zen?**
Santos irakasleak salbuespen kasua dela esan zuen. Hemen ia ez dago indarkeriazko krimenik eta hori munduko leku gutxitan gertatzen da.


MIREIA BIKUÑA

## Kortak hitzaldia egin zuen Batzokian

Jose Luis Korta Oñatin egon zen eguaztenean. EAJk gonbidatuta solasaldia egin zuen Batzokian. Askotariko gaiak landu zituen, baina, batez ere, kirola, gizarte, eta telebistan egiten dihardUen saioaz berba egin zuen. Bestalde, herritar talde batek protesta egin zuen batzokiaren kanpoan *EAJren gizarte eredua, patetikoa* leloa zuen pankarta erakutsiz.

# Korrika badatorrela eta, eman euskara elkarri!

## Gaur antzerkia, bihar bazkaria, kalejira, herri kirolak eta kontzertuak eta martitzenean, Korrika Txikia

OIHANA ELORTZA | OÑATI

*Lingua Nabarojum* antzezlana eskainiko dute gaur, egubakoitza, gauean gaztelekuan. Patxo Telleria eta Mikel Martinez dira aktoreak eta "euskararen historia txoroa" kontatuko dute. 22:30ean da antzezlana, sarrerak zortzi euro balio du eta Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan sartzen den ekintza da.

Eguenean, hilak 21, iritsiko da Korrika 18 Oñatira, 05:00etan, eta astebururako prestatu den egitarauak eta martitzenean egingo den Korrika Txikiak iritsiera girotuko dute.



*Lingua Nabajorum* antzezlaneko une bat. | NOTICASDENAVARRA

**Herri bazkaria bihar**

Gaurko antzezlanaz gain, egun osoko egitaraua prestatu dute biharko. Goizean, Oñatz dantza taldekoek aurkezpen dantza egingo dute Foruen plazan. Txaranga -poteoa egongo da segidan eta goiz osoan Korrikako materiala salduko dute herriko plazan.

Eguerdian, herri bazkaria egingo dute berdura azokan eta bazkalostean bertsolariek jardungo dute. Arratsaldean, berriz, herri kirolak izango dira eta gauean, herriko musika taldeen kontzertua Antixenako gaztetxean.

**Korrika Txikia**

Bestalde, eguaztenean, hilak 20, hiru ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek Korrika Txikia egingo dute, txandaka lekukoa eramanda; 14:30ean abiatuko dira Foruen plazatik. Haur Hezkuntzakoek, berriz, nork bere ikastetxean egingo du Korrika Txikia. Arratsaldean txokolatea banatuko dute Pago Uso eta Makalena elkartekoek Foruen plazan eta txorimaloak ere aterako dira musika eskolako ikasleekin batera kalejiran.



ALOÑA MENDIKO KARATE SAILA

## Karatekak bikain Gipuzkoan

Aloña Mendiko karatekek emaitza onak lortu zituzten joan den domekan Hondarribiko Jostaldi pilotalekuan jokatu zen Gipuzkoako kirol eskolako karate txapelketan. Imanol Astudillok eta Eñaut Tomek bigarren eta hirugarren egin zuten 40 kilo azpiko kategorian, kumitean; 60 kilotik gorakoetan, berriz, hirugarren gelditu zen Jokin Egaña. Ander Murillo, bestalde, hirugarren sailkatu zen katan. Goiko argazkian agertzen dira Aloña Mendiko karatekak euren entrenatzailearekin, Alberto Lerarekin.

## Ganbara Txikitxoak xomorroz beteko du Santa Ana aretoa domeka iluntzean

O.E. | OÑATI

*Xomorroak* izeneko musikala aurkeztuko du Ganbara Txikitxoak domekan, 19:30ean, Santa Anan.

Musikal horren jatorrizko bertsioa ingelesez dago eta Oñatin antzeztu behar den musikalerako testua espresuki moldatu du Ganbara Txikitxoak. Bertan, bost xomorro koadrilaren abenturak kontatzen dira: euliak, mantangorriak, erleak, harrak eta matxinsaltoak.

Bestalde, apirilaren 2an Jakara joango dira Ganbara Txikikoak, hango katedralean abestera. Gero, Zaragozara joango dira eta bi egunean kontzertuak emango dituzte.

CALIDAD TURISTICA
leku eta egun ahaztezinak

Etxe-Aundi
Hotela · Jatetxea
Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com








**Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea**



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak
- Parking handia
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa…

Etxe-Aundiren zilarrezko ezteiak ospatzen ditugula-eta, 2013an ezkontza-bazkaria gurean egiten duten bikote guztiek Tenerifera astebeterako eta mantenu osoan joateko egingo dugun zozketan parte hartuko dute.

# Korrikaren aitzakian, jaialdia antolatu dute gaur arratsalderako

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Eguen goizaldean igaroko da Korrika 18 Aretxabaletatik, eta, hitzordurako egun gutxi geratzen direnez gero, motorrak berotzen joateko, Korrika 18 jaia antolatu dute.

Gaur arratsaldean izango da hitzordua, Herriko Plazan, 17:30ean hasita. Gaitariak, txalapartariak eta bertsolariak arituko dira giroa alaitzen; eta rock doinuak ere entzun ahal izango dira herriko musikarien eskutik. Horrez gainera, aurpegiak margotzeko gunea egongo da, eta *balance bike* delakoetan ibiltzeko aukera.

Herriko hainbat eragilek hartuko dute parte, modu horretan, gaurko hitzorduan. Gaztelekuko lagunek eginiko bideoa eskainiko dute Arkupen, 18:30ean. Gainera, Basotxo erretiratuen elkarteko lantalde bat txistorra eta txorizoa prestatzeaz eta ardoa zerbitzatzeaz arduratuko da.

**Eguaztenean Korrika Txikia**

Gaurkoa ez da izango Korrikaren inguruan antolatutako hitzordu bakarra. Izan ere, euskararen aldeko lasterketa erraldoiaren etorreraren bezperan, Korrika 18 Txikia egingo dute Herriko Plazan, 17:30ean. Trikitilariek girotuta, erraldoi eta buruhandiak arituko dira eta txokolate-jana ere izango da.

# Beste lau hitzordu zehaztu ditu Kuku Mikuk datozen asteotarako

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Lau hitzordu antolatu ditu Kuku Miku elkarteak; guztiak doakoak eta irekiak. Hala, kantu jolasen ikastaroa egingo dute martxoaren 23an, 17:30ean, eta 2 eta 5 urte bitarteko haurrei eta haien gurasoei zuzenduta egongo da. "Elkarteko bi kidek emango dute ikastaroa, eta, ondo pasatzeaz gainera, gure haurrekin jolas egiteko kantu jolas batzuk ikasteko aukera ere izango dugu".

Bestalde, apirilaren 20an Meitai Maitiekoek tailerra eskainiko dute, 10:30ean: "Material desberdina ekarri eta nola erabiltzen den erakutsiko digute: haur-eramaileak, pixoihal berrerabilgarriak...".

Antolatutako hirugarren hitzordua, berriz, psikomotrizitateari buruzko hitzaldia izango da. Apirilaren 23an Janire Jaio Isasi psikomotrizistak hartuko du hitza, 18:00etan, elkartearen lokalean.

Apirilaren 27rako, 17:30erako, familian gozatzeko ekintza antolatu du elkarteak. Musika izango da protagonista laugarren hitzordu horretan eta musika tresnak ezagutzeko eta haiekin jolasteko aukera egongo da.

## Goroetako Santiagoren bizitzari eskainitako erretaula ezagutzeko bisita gidatua bihar

Bihar Goroetako altxorrera bisita egingo dute, Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik, 12:00etan. Goroetakoa Santiagoren bizitzari eskainitako erretaula bakarra da Gipuzkoan, XVI. mendekoa. Ana Isabel Ugalde arrasatearrak artelan horren azterketa sakona egin du *Santiagoren Ikonografia Gipuzkoan* lanean. Horren gaineko informazioa eskainiko dute bisitan.

## Diabetesaren aurrean elikadurak duen garrantziaz berbaldia eskainiko dute Zaraian martxoaren 19an

*Diabetesa. Ondo jan, ondo bizi* izenburuko hitzaldia antolatu du Debagoieneko ESIk. Martxoaren 19an izango da, martitzenean, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan hasita. Hain zuzen ere, Isabel Arenatzak –Oñatiko Osasun Zentroko Erizaintza arduraduna– eta Kizkitza Alustizak –zentro bereko erizainaazalduko dute elikadurak duen garrantzia eta, horrez gain, elikagaiok nola prestatu behar diren.

## Krisia eta egoera horretatik irteteko gakoak hizpide izango dira hilaren 22an Arkupen

Aretxabaletako Parrokiako Pastoral Batzordeak antolatuta, martxoaren 22an *Salidas de la crisis, cuáles son, cómo quitar de encima la dictadura de los mercados* bideo emanaldia eskainiko dute Arkupen, 19:30ean. Arcadi Olivaresek Madrilen irailean egin zen Teologia Kongresuan aipatu zituen krisitik irteteko balizko moduak entzun ondoren, guztien artean komentatuko dituzte Olivaresen hitzak.

**Agustin Aginagalde** | Basotxo Erretiratuen Elkarteko lehendakaria

# "Bazkideen inplikazio maila handitu gura dugu"

Iazko arrakasta ikusita, 2013an mendi–ibiliak egin gura dituzte etxetik gertu

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Basotxok urteko bilera egin zuen martxoaren 7an. 2012ari errepasoa egin zioten, besteak beste. Gainera, Agustin Aginagaldek 2012an hartu zuen elkarteko gidaritza, eta aurreneko urteaz eta 2013rako dituzten asmoei buruz egin digu berba.

**Nolakoa izan da iazko urtea Basotxo elkartearentzat?**

Orokorrean, oso ona izan zela esango nuke. Elkartea bera legeztatu dugu erakunde juridiko gisa, eta gure kontuak egunean ditugu. Gainera, kargua hartu nuen iaz, eta, barrutik Basotxok duen funtzionamendua ezagututa, gauza on asko ditugula ohartu naiz. Esate baterako, jendeak kultura maila altua daukala esango nuke, eta horren erakusgarria da, adibidez, 2012an antolatutako hitzaldi ezberdinak.

**Oso gai ezberdinak jorratu zenituzten, gainera, ezta?**

Bai. Besteak beste, atez atekoaren gainean egin zen berba, belaunaldien arteko solidaritateaz, immigrazioaz, hirugarren adinaz eta prestazioez. Oso interesgarriak izan ziren hitzordu guztiak. Azken finean, antolatu zituztenek sentsibilizazio handia daukatela esango nuke, beste batzuek agian ez daukatena, eta horrexegatik hautatu zituzten esparru askotariko gaiak.

**Eta 2013rako ere bide horretatik jarraitu gura duzue?**

Hala da, bai. Aurtengo erronken artean daukagu gisa horretako hitzaldiak antolatzea. Horietako batzuen gaiak ere zehaztu ditugu: banku etikoa, sexualitatea nagusiengan eta krisia eta solidaritatea.



Agustin Aginagalde. | Z.V.D.M.

## "Basotxo barrutik ezagututa, jendeak kultura maila handia daukala ikusi dut"

**Oker ez banago, Hiri Atsegingarria izeneko ikerketa bat ere abiarazi zenuten 2012an.**

Bai. Hain zuzen ere, Basotxoko lantalde batek hasi zuen ikerketa iaz, eta asmoa zaharrentzako hiri batek nolakoa izan behar duen ikertzea da. Hala, 16 pertsona elkartu ziren, eta, besteak beste, zerbitzu sozial, hirigintza eta osasun arloari erreparatutako ikerketa da. Oraindik amaitu gabe dagoen arren, aurreikusita dago uztailerako proiektua bukatzea.

**Egiten dituzuen ekintzen artean, txangoak eta bidaiak ere badaude.**

Arrakasta izaten dute, gainera, baina ez soilik Levante edota Erroma aldera joaten garenean, esaterako. Izan ere, 2012ko arrakastetako bat antolatutako mendi-ibiliak izan ziren; gertu egin genituen, Gaztelugatxera eta Degurixara joan ginen. Azken horrek batu zuen jende gehien, 32 lagun izan ginen. Asko euren kabuz joan ezin zirenez, autoz eraman zituzten. Joxe Bizente Etxabek txabola utzi zigun eta bazkari ederra egin genuen bertan. Aurten ere horrelako zer edo zer antolatu gura dugu. Azken finean, gure nagusienek disfruta dezaketen hitzordua antolatzea garrantzitsua da, poztu egiten baitira.

**2013rako beste erronkarik?**

Basotxon 956 bazkide gara, eta, egia esan, inplikazio maila oso baxua da. Gure asmoa hori aldatzea litzateke, baina nola egin asmatzea ez da erraza.

### Basotxokoak, kantu eta dantzan

Duela hiru urte sortu zen Basotxoko kantu taldea eta egun 25 lagunek osatzen dute; dantza taldea berriz, duela bi urte jaio zen eta 10 lagun ari dira. Urtero San Inaziotan, Santo Tomas egunean edota auzoko jaietan aritzen dira, eta gainera, Otxandio, Eibar edota Bilbora ere bidaiatzen dute, beraien kantu eta dantzen erakustaldia egitera.



Z.V.D.M.

# Urbaltz elkarteak jantzi zuen txapela

Martxoaren 9an herriko elkarteen arteko mus txapelketa jokatu zen Urkulu elkartean. Zazpi elkartek hartu zuten parte eta Urbaltz izan zen txapeldun. Bigarren Murualde elkarteko ordezkariak izan ziren eta hirugarren, berriz, Hibai Gaineko ordezkariak. Ondoren, afaria egin zuten Urkulu elkartean eta garaikurrak banatu zituzten.

# Begiraleak behar dira uztaileko udalekuetarako

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL
Uztailaren 2tik 24ra bitartean egingo dira Aretxabaletako udaleku irekiak, baina dagoeneko eman daiteke izena begirale gisa aritzeko.

Hiru dira begirale izateko bete beharko diren baldintzak, Udaleko Gazteria Sailetik aditzera eman dutenez: gutxienez 18 eta gehienez 30 urte edukitzea, euskaraz jakitea eta formazio saioetan parte hartzea.

Formazio saioei dagokienez, Maider Etxaniz Udaleko Gazteria Saileko teknikariak aditzera eman duenez, apirilean zehar egitea aurreikusten dute. "Orain, bertan zer-nolako edukiak landuko diren zehazten gabiltza".

Interesatuek apirilaren 10a baino lehen *gazteria@aretxabaleta.net* helbidera edo udaletxeko gazteria zerbitzuan entregatu beharko dute beraien curriculuma.

**Udaleku itxietan izen-ematea**
Bestalde, atzo hasi eta hilaren 24ra bitartean, Foru Aldundiak antolatutako udaleku itxietan izena eman daiteke. 7 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek Zuhatza, Zarautz, Barria, Lapurreketa, Gorliz eta Zugastietara joateko aukera dute.

Udaletxean eman daiteke izena, edo Internetez, *http://gipuzkoagazteria.net/udalekuak/* helbidean.


2012ko udaleku irekiak. | MIRARI ALTUBE


ODILO VAZQUEZ

## Dominekin Hondarribitik

Gipuzkoako kumite lehiaketa egin zuten martxoren 10ean Hondarribian, eskola kirolaren barruan. Udako lau ordezkari joan ziren: haurren kategorian, 50 kilo azpikoen artean Eneko Calvo lehena izan zen; Alex Benitez hirugarren 55 kilo azpikoen kategorian; eta 60 kilo baino gehiagokoen artean Andoni Martinek hirugarren postua eskuratu zuen. Alebin misto mailan Joanna Perez bigarrena izan zen. Zorionak!

## Lukas Prest!, Drop! eta Anger taldeen hardcore doinuek Orly taberna hartuko dute gaur gauean

Hardcore melodiek euren tokia izango dute gaur gauean Aretxabaletan. Hain zuzen ere, hiru talde arituko dira zuzenean; Eskoriatzako Lukas Prest! eta Arrasateko Drop! eta Anger taldeek Orly taberna girotuko dute, 22:30ean hasita. Anger taldeko kideak, gainera, Bonberenea Ekintzakekin elkarlanean kaleratutako *Hirugarren Azala* disko berria aurkezten ari dira herriz herri, eta gaurko hitzorduan ere halaxe egingo dutela eman dute aditzera. Bada, Orly tabernako kontzertuetarako sarrera doakoa da.

# Ohorezko maila ez dute arrotz herriko xakelariek

Z.V.D.M. | ARETXABALETA
"Lan handia eginda eta zorte handiarekin, baina ohorezko mailara igotzea lortu dugu". Hala adierazi digu Arrasate-Arlutz A xake taldeko Aitor Alcaidek. Martxoaren 9an Bilboko Alhondigan Gros B menderatuta mailaz igotzea lortu zuen herriko taldeak.

"Duela hiru urte jaitsi ginen; aurretik, 9 urte egin genituen ohorezko mailan". Baina gauzak asko aldatu dira ordutik. "Lehen, ohorezko maila ez zen egun den bezain gogorra. Profesionalak sartzen joan dira, eta baita partidako kobratzen dutenak ere. Eta gu geure afizioaz gozatzera joaten gara".

Liga amaitu dute Arrasate-Arlutz A taldeko kideek, eta datozen hilabeteotan jokalariek euren kabuz jokatuko dituzte partidak. "Dena den, ziurrenik, apirilean Gasteizko San Viator txapelketara joango gara, urtero bezala".

Uda ostean berriz elkartuko dira taldekideak, sei aste irauten duen Arrasateko Nazioarteko Txapelketan parte hartzeko.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida


# Atez atekoa 2014 hasieran jartzea helburu duen plangintza martxan da

## Udalak uda ostean ekingo dio hondakinen sistema herrira egokitzeari

GOIATZ ARANA | ESKORIATZA

*Zero zabor*-erako norabidean, Udalak atez ateko hondakin bilketa sistema jarri gura du martxan datorren urte hasieran, eta, hori horrela izan dadin, martxoan hasi eta abendura bitarteko plangintza zehaztu du. Horren guztiaren berri emateko agerraldia eskaini zuten eguaztenean Ingurumen zinegotzi Igor Ezpeletak eta Beñat Herce alkateak.

Herceren esanetan, hiri hondakinen gaia garrantzitsua eta ondo planifikatu beharrekoa da, eta bereziko garrantzia du eskoriatzarren parte-hartzeak. Azken horren bueltan, bi fasetan banatu dute plangintza: uztaila bitartean, herritarrak informatuko dituzte, atez atekoaren sistemak orokorrean nola funtzionatzen duen ezagutarazteko; eta irailetik abendura bitartean, sistema horrek zehazki Eskoriatzan nola funtzionatuko lukeen azalduko diete.



Ingurumen zinegotzia eta alkatea, eguazteneko agerraldian. | GOIATZ ARANA

### Galdeketa

Hasteko, galdeketa egingo dute; egunotan galdetegia banatuko dute herritarren artean, sistema horren gainean zehazki zerk arduratzen dituen identifikatzeko. Jasotako ekarpen, zalantza eta iritzietatik abiatuta, apirilean informazio plangintza egiteko asmoa dute, maiatzetik uztailera bitartean aurrera eroateko. Informazioa Udalaren webgunean egongo da eskuragarri, baina, horrez gain, Ibarraundi ere irekita egongo da hainbat arratsaldetan herritarren galderei zuzenean erantzuteko. Horretaz gainera, erakusketa iraunkorra zabalduko dute, eskoriatzarrek egindako galderei erantzuna emanda, eta bilerak eta bisitak ere antolatuko dituzte atez atekoak eta beste sistema batek nola funtzionatzen duen ezagutarazteko.

### Ibarraundi, informazio bulego

Horrekin amaitzean, bigarren fasea abiaraziko dute uda ostean, atez atekoak herrian nola funtzionatuko duen azaltzeko: irailean eta urrian Ibarraundi museoak informazio bulego moduan funtzionatuko du egunero, eta parte-hartze prozesua egingo dute herritarrekin, hainbat gauza erabakitzeko, baina ez guztiak, aurretik Bergaran edo Oñatin hartutako erabakiek eragina izango dutelako, Ingurumen zinegotzi Igor Ezpeletaren esanetan.

Asmoa da azarorako azken proiektua herriratzea, eta abenduan atez atekoa martxan jartzeko herrian egin beharreko prestaketa lanak eta moldaketak egitea eta herritarrei beharrezko materiala banatzea: esaterako, edukiontziak edo egutegiak. Gauzak ondo bidean, esan bezala, 2014 urte hasieran atez ate batuko dituzte hondakinak herrian.

NIRE USTEZ

TXOMIN AZPITARTE



## Krisia eta bakea

Mundua ispiluaren alde irrealean (arrainak hegan egiten...) moduan ikusten da gaur; egunero krisi ekonomikoarekin gosaltzen dugulako diot hori. Alde errealetik begiratuta uste dut botere ekonomikoek gidatzen duten txalupan doala gizartea.

Ikuspuntu errealetik pertsonek ez lukete bizitza galdu behar banketxeen presioak eragindako etsipenagatik; garai batean, gizarteak kimeran edo ispiluaren alde irrealean bizi izatea eragin dute -eta horiek. "Lapurtutakoa" bueltatuko balute, langabezia, kultura, pentsio edo osasuna bezalako gaiei mesede egingo liekete. Ispiluaren alde errealean ez luke horrelakorik gertatu behar. Horiek horren erakargarria den dirutik urrun egon beharko lukete: jateko lapurtzen dutenendako kartzela, esku-zurikoak goratzen dituzten bitartean.

Eskerrak egunerokotasuna batzuek gura dutena baino politagoa den, gauza txikiak baloratzen, gehiegikeria barik, bizitza argi-itzalak bakarrik emateaz arduratzen da-eta.

Ispiluaren alde errealean argia piztu dadila espero dugu, eta bakea finkatzeko behar diren aurrerapausoak ematea, gure presoak ahaztu barik, gure kemena espero dutenak. Eta horretarako beharrezkoa da gizarte osoaren lana eta borondatea, bestela lagun eta senitartekoen presoak baino ez dira -eta izango. Azken finean, gizartea botere politiko eta sozialean alfertuta geratzen da-eta.

**"Gizartea botere politiko eta sozialean alfertuta geratzen da"**

## Aldaypekoek batzar orokorra dute bihar, 16:30ean, Ibarraundin

Urteroko ohiko batzar orokorra deitu du Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak biharko. Jorratuko dituzten gaien artean iazko balantze ekonomikoa eta urtean egindako ekintzak daude; horrez gainera, aurten aurreikusita dituzten ekimenen berri emango dute. Batzarra Ibarraundin da, 16:30ean. Aldaypetik gogorarazi dute derrigorrezkoa dela batzarrera joatea, eta horretan parte hartzen ez duen bazkideak 30 euroko isuna ordaindu beharko duela. Dena dela, han izaterik ez duenak beste bazkide bati esku eman ahal izango dio.

## Korrikaren bueltan, eskutik lotuta datoz euskara eta dibertsioa

M.B. | ESKORIATZA

Herri bazkaria, *flashmob*-a, tailerrak, poteoa, disko festa.... Dena ez da korrika egitea. Euskararen aldeko lasterketa ospetsuaren bueltan, askotariko ekintzak gertatu dituzte herrian datozen egunetarako. Gaur, egubakoitza, hasiko dira horiek. Arizmendi Ikastolako Almen guneak *flashmob*-a grabatuko dute gaur, 11:15ean, merkatu txikian; hain justu, Gorosarri plaza parean. Internetera igotako bideoan ageri den dantza egitera animatu dituzte herritarrak; horren harira, nabarmendu dute ekimen "herrikoia" izatea gura dutela, eta, horregatik, eskoriatzar guztiak daudela dantza egitera gonbidatuta.

### Korrika Eguna

Bihar, zapatua, Korrika eguna egingo dute. Eguerdi partean, plazan arropa saldu ostean, bazkaria izango da Kontzejupean. Menua: patatak errioxar erara eta okela gisatua. Bazkalostean, *Eskotribiala* izango dute guztiek. Arratsalderako, gaztelekukoek tailerrak gertatu dituzte; taloak ere egingo dituzte. Helduendako, berriz, kantu-pintxo poteoa antolatu dute herriko hainbat tabernatan.

### ASTEBURUKO HITZORDUAK

GAUR, EGUBAKOITZA

**11:15** Arizmendikoek *flashmob*–a grabatuko dute merkatu txikian.

BIHAR, HILAK 16

**KORRIKA EGUNA**

**11:30** Arropa salmenta.

**14:30** Herri bazkaria Kontzejupean.

**17:00** Ume eta gazteentzako tailerrak plazan.

**18:30** Arropa salmenta.

**19:00** Kantu–poteoa plazan. Jarraian, pintxo–poteoa herriko tabernetan.




## OHARRAK

**'WERT' LEGEA**
Martitzenerako, hilak 19, Luis Ezeizako Koldotxo guraso elkarteak *Wert* legearen inguruko nondik norakoak eztabaidatzeko kafe tertulia antolatu du. Berbaldia 18:00etan hasiko da Luis Ezeiza herri eskolan.

**KIROL HITZORDUAK**
Norgehiagoka bi daude asteon kiroldegian: bihar, 10:30ean, saskibaloian, Arizmendi-Eskoriatzako kadeteak Bera Bera donostiarren kontra lehiatuko dira; eta 16:00etan, areto futbolean, Eusko Ligako partidua dago, Eskoriatza eta Ermuko Saltxaileak Alkideba taldeen artekoa.

**JINKANA LUDOTEKAN**
Etzi, domeka, jinkana izango da Tortolis ludotekan, 17:00etatik 18:00etara. 8 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta.

**'ZER DA FRACKING'-A?**
*Fracking*-ari buruzko berbaldia dago martitzenean, hilak 19, Ibarraundi museoan. 19:00etan hasiko da.

**BATZAR IREKIA**
Martxoaren 20an, eguena, San Pedro jaietako egitaraua prestatzeko batzar irekia egingo da, 18:00etan, kultura etxean. Interesa duten guztiak daude gonbidatuta.

# Iturbe: "Atez atekoak kezkak sortu zituen, baina jada ohitura bihurtu da"

## Atez ate hondakinak biltzeko gaikako sistemaren bitartez birziklatze-maila bikoiztu egin da herrian

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Jose Mari Iturbek –Hondakinen Jarraipenerako Batzordeko kidea– eta Ima Beristain alkateak atez atekoaren zabor bilketarekin lortutako datuak aurkeztu zituzten Olaran jauregian. Datuak oso positiboak dira: "Jasotako hondakinen %85 birziklagarriak ziren, %15 besterik ez zen izan errefusa. 2010eko datuekin alderatuta, aldaketa izugarria izan da: urte hartan %75 zen errefusa; hau da, zabortegira eraman behar izan zena".

Azken urte honetako datuak hauek dira, kilo biztanleko eta urteko: ontzi arinei dagokienez, 26 kilo aurten; duela bi urte 12,7. Paperari dagokionez, aurten 34 kilo batu dira, orain bi urte 25,5. Beira 26 kilo pertsonako jasotzetik 35,8ra pasatu da. Organikoa, aldiz, duela bi urte ez zen jasotzen eta 2012an 190.000 kilo baino gehiago batu dira guztira. Errefusari dagokionez, 2010ean 400.000 kilo baino gehiago batzen zen urtean guztira (organikorik ez zen jasotzen, dena errefusa zen). 2012an, aldiz, 67.000 kilo izan da (organikoa jasotzen hasi ostean). Bitxikeria moduan adieraz daiteke 2011-2012 artean kontsumoa mantendu egin dela eta paper, ontzi arin eta organikoaren birziklatze maila bikoiztu egin dela.

Ekonomikoki ere aurrerapauso handiak egin dira; hondakinen tratamenduak 41.500 euro baino gehiagoko kostua izan zuen Mankomunitatearentzako 2010ean. 2012. urtean, berriz, 9.500 eurotik gorako irabaziak izan ditu. Kontuan hartu behar da gaur egun askoz tona gutxiago eramaten dela zabortegira (tona bakoitzeko 140 euro ordaindu behar da) eta ontzi, paper, kartoi... gehiago saltzen dela; gainera, material horren kalitatea (purutasuna) askoz handiagoa denez, gehiago ordaintzen dute. Gauzak horrela, esan bezala, iaz kostuak izan beharrean, irabaziak egon ziren tratamenduari dagokionez.

Bestalde, bi urte hauetan kezka sorrarazten zuen gai bat izatetik ohitura bilakatu den gai izatera pasatu dela adierazi zuten gerturatutakoek. "Atez atekoarekin denok berdin egin behar dugu lan, ordutegi zehatzak ditugu, ingurumena hobetzen laguntzen dugu eta ohitura bilakatu da biltze banakatua gure etxeetan", adierazi zuen Hondakinen Jarraipenerako Batzordeko kide Jose Mari Iturbek.

**Eskerrak herritarrei**

Ima Beristain alkateak eskerrak eman nahi izan dizkie herritar guztiei, herritar guztien lanarekin lortu delako Europa mailan eredu izatea. Denon ahaleginak baditu pozteko moduko emaitzak eta esker ona.

Gogoratu dute Ecologic Institutek "antzuolarren esperientzia eta ondo-egitea praktika onen eredu gisa" identifikatu duela. Erakundeak informazioa eskatu du esperientzia ezagutzeko.

### Atez atekoaren 2. urteurrena

*Zorionak Antzuola* abestuz ospatu zuten antzuolarrek atez atekoaren bigarren urteurrena, koloretako haize errotekin eta bi urteak adierazten zituen kandela handi batekin batera.

"Argazki honekin guztion poztasuna adierazi nahi dugu, atez atekoarekin lorturiko emaitzak –%85 gaika batzen dugu– horixe ematen baitigu. Harro gaude atez atekoa martxan jarri eta bi urte hauetan lorturiko emaitzekin", adierazi dute Atez Ate Antzuolako kideek.



*Zorionak Antzuola* abesten herritarrak. | ATEZ ATE ANTZUOLA



ARROLA MENDI ELKARTEA

## Arrolakoak Mutrikun izan ziren

Mutrikun egin zen 26. Eskolarteko Ibilaldi Neurtuan parte hartu zuten Arrola Mendi Elkarteko zenbait kidek. Guztira, 48 pertsona joan ziren, 25 ume eta 23 guraso. Mutrikuko Burumendiko elkarteak proposatutako bi ibilbideetatik 13 kilometrokoa, luzeena, aukeratu zuten; hala, 3 ordu eta 30 minutuan zehar inguruko parajeez disfrutatzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek.

### Fitness festaren beste edizio bat antolatu dute biharko

Aurreko fitness festak izandako arrakasta ikusita, biharko beste jaialdi bat antolatu dute Udal Gimnasioko arduradunek. Goizeko hamarretan hasita hainbat ekintza izango dira; besteak beste, zumba, pumpa, spinning saioa eta ping-pong txapelketako final -laurdenak eta finala.

### 'Erlauntzaren sekretua' antzerki musikatua herriko abesbatzaren eskutik domekan

A.E | ANTZUOLA

Domekan, 18:30ean hasita, Antzuolako abesbatzak, Bergarako hasi berrien abesbatzako haurrek eta Antzuolako abesbatzako haurrek, antzerki musikatua aurkeztuko du Torresoroan: *Erlauntzaren sekretua*.

Erleak eta ardiak protagonista dituen ipuina Jose Mari Iturraldek idatzia da eta musika lana, berriz, David Azurtzarena da. Iaz Bergaran izan ziren antzezten, eta, oso arrakastatsua izan zenez, oraingoan, Antzuolan aurkeztuko dute euren lana. Guztira, 4 eta 10 urte bitarteko 25 neska -mutilek hartuko dute parte saioan. Sarrerak Torresoroan izango dira salgai, 3 eurotan.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



Udalak eskatutako azterketaren ondorioetako bat da, adibidez, Nardeaga kalean etxe huts asko dagoela. | JOKIN BEREZIARTUA

# Alde zaharreko plana eguneratu egin behar dela uste du Udalak

- Ibarrako Hiri Birgaitze Plan Berezia –PERI– lehen fasean sartu da asteon
- Auzotarrekin onartu gura du plana Udalak; hurrengo bilera, apirilaren 10ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ibarrako Hiri Birgaitze Plan Berezia –PERI moduan ere ezaguna– eguneratzeko beharra ikusten du Udalak. Zergatik? Ibarrak alde zahar historiko baten ezaugarriak dituelako. Horregatik babestu, balioan jarri eta berritzeko plan berezi bat egin nahi da. Hori bai, auzotarren iritzia kontuan hartu gura du Udalak, herritarrek etorkizuneko alde zaharra nolakoa gura duten jakiteko. Eguaztenean lehen bilera egin zen; hurrengoa apirilaren 10ean egingo da, proposamenak kontrajartzeko.

### Aurrerapen dokumentuarekin

Lehen fasean sartu da plana eta fase horretan aurrerapen dokumentu bat idatzita dago. Gero beste dokumentu bat osatuko da, etxez etxe egin beharreko aldaketak zehaztuko dituena. Baina orain aurrerapen dokumentu hori da landu beharrekoa: dokumentu horrek eraikitzeko, birgaitzeko edota handitzeko baldintzak erregulatzen ditu. Bada, dokumentu urbanistiko hori herritarrekin partekatu eta euren proposamenak jasotzeko, lehen bilera bat egin zuten eguaztenean udaletxean.

Udalak azterketa soziourbanistiko bat egin dezala eskatu dio arkitektura enpresa bati eta honakoak dira ondorio aipagarrienak: Ibarrako alde zaharrean okupazio maila txikia dela orokorrean –bereziki Nardeaga kalean–, irisgarritasun baldintzak nahiko onak direla, espazio libre baten beharra dagoela eta aparkatzeko arazoak daudela. Hala, adibidez, Nardeaga kalean plaza txiki bat egitea proposatzen du azterketa horrek.

### Balio arkitektonikoa zehazten

Planak balio arkitektonikoa duten eraikinak zehazten ditu. Horien artean daude babes berezia behar duten eraikinak –eliza eta udaletxea, esaterako–, babes ertainekoak eta oinarrizko babesa behar dutenak. Bestalde, balio arkitektonikorik ez duten eraikinak ere badaude eta beraz, horietan edozein interbentzio egitea errazagoa izango da.

Andoni Sodupe Hirigintza zinegotziak nabarmendu nahi izan du dokumentazio guztia udaletxean dagoela: "Adibidez, norberaren etxeak nolako babes maila duen jakin gura duena etor dadila udaletxera", dio.

## Uema egunerako lema aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak

Aurten Aramaion ospatuko da Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Eguna, ekainaren 8an. Udalak egun berezi horretarako lema lehiaketa ireki du eta parte hartu gura duenak hilaren 22a baino lehen aurkeztu beharko du esaldi berezia. *Euskara*, *Aramaio* eta *Uema* hitzak tartekatu beharko ditu lema horrek; irabazleak ekainaren 8an egingo den herri bazkarirako bi txartel jasoko ditu sari moduan. Udaletxean entregatu behar dira lanak.

## Etzira arte eman daiteke izena mendi eta sagardotegi irteeran

Orixol elkarteak hilaren 23rako antolatu duen mendi eta sagardotegi irteeran izena eman daiteke oraindik. Azken eguna etzi izango da, domeka. Oraingoz 22 lagunek eman dute izena eta beste zortzirendako lekua dago. Orixoleko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 40 euro. Mendi martxa egingo dute Pasaia eta Donostia artean eta gero Astigarragako Bereziartua sagardotegian bazkalduko dute; 08:30ean geratu dira autobus geltokian.

## Korrikaren aldeko jaialdi handia egingo dute martxoren 22an

J.B. | ARAMAIO

Korrikaren 18. edizioa ez da Aramaiotik pasako, baina horrek ez du esan nahi aramaioarrek ez dutenik bat egingo AEK-k antolatzen duen euskararen aldeko martxarekin. Urtarrilaren 24a ezkero herriko eragile ezberdinak ordezkatzen dituen Korrika batzordea lanean ari da buru-belarri.

Egitarau zabala antolatu dute domekatik hasita. Izan ere, etzi Laburbira film laburren emanaldiek geldialdia egingo dute kultur etxean, 18:30ean. Zuzendarietako batekin berba egiteko aukera egongo da.

### Sarrerak, gaur ezkero salgai

Datorren zapatuan San Martin eskolako umeek Korrika Txikia egingo dute. 15:00ak aldera irtengo dira eta Ibarrako kaleak zeharkatuko dituzte. Gero, txokolate-jana egongo da, guraso elkartearen eskutik. Egun berean jaialdi handia egingo dute kiroldegian. Bertsolariak, dantzariak, trikitilariak, Bea Asurmendi musikaria, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzak eta herriko rock taldeek hartuko dute parte, besteak beste. Sarrera bi euro ordaindu beharko da; salgai jarriko dira gaur bertan herriko tabernetan.



San Martin eskolako haurrak zuhaitz bat landatzen, iaz. | ARTXIBOA

## San Martin eskolaren Zuhaitz Egunak martxoaren 19an eta 20an

J.B. | ARAMAIO

Aurten ere Zuhaitz Eguna ospatuko dute San Martin eskolako ikasleek. Udalarekin elkarlanean antolatutako ekimen honen helburua da haurrei txikitatik basoen garrantziaz ohartaraztea. Aurten Toki Alai interpretazio zentroko ordezkariak ez dira etorriko.

### Bi taldetan

Urtero moduan, bi talde egingo dituzte: hilaren 19an Lehen Hezkuntzako ikasleek egingo dituzte landaketak eta egun bat geroago, berriz, Haur Hezkuntzako ikasleen txanda izango da.

LHko ikasleak autobusa hartu eta Kurtzeta ingurura igoko dira, landaketak bertan egiteko. Zuhaitz mota desberdinak landatuko dituzte: gogortxoak *(viburnum tinus)*, bertako eta Indiako gaztainondoak *(Aesculus hippocastanum)* eta serbalak *(Felis serval)*, besteak beste. Landaketen ostean, Udalak ordaindutako hamaiketakoa egingo dute. Hilaren 20an, berriz, HHkoen txanda izango da. 09:00etan hasita, gladiolo eta lore -ezpatak landatuko dituzte herriko lorategietan eta gero hamaiketakoa egingo dute.

San Martin eskolako arduradunen arabera, haurrak "oso gustura" aritzen dira zuhaitzak landatu eta basozainaren azalpenak entzuten.

## Azken eguna da gaur Txirritola elkartearen ipuin lehiaketarako

Irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, Txirritola euskara elkarteak urtero antolatzen du ipuin lehiaketa. Bada, gaur da lanak entregatzeko azken eguna. Udal Liburutegian aurkeztu behar dira ipuinak. Helduendako eta ikasleendako sariak, berriz, apirilaren 26an banatuko dituzte, kultur etxean (18:30).

## Arabako eskola arteko pilota partiduak bihar pilotalekuan

Bihar, Arabako eskola arteko txapelketako 14. jardunaldiaren barruan, hainbat partidu jokatuko dira, baita Aramaion ere. 09:30ean hasita, bederatzi norgehiagoka jokatuko dira herriko pilotalekuan, infantil, benjamin eta alebin mailetan. Bederatzi partidu horietatik seitan hartuko dute parte herriko pilotariek.

## ARETO FUTBOLA

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Colegio San Prudencio Bat | 44 | 17 |
| 2 | C.D. Lagran | 37 | 17 |
| 3 | Izar Gorri | 34 | 17 |
| 4 | Aramaixo | 32 | 17 |
| 5 | Autoescuela Gasteiz | 26 | 17 |
| 6 | BarUriarte | 19 | 17 |
| 7 | Alavesa Maquinaria | 19 | 17 |
| 8 | Arizmendi | 19 | 17 |
| 9 | Bar Copo | 18 | 17 |
| 10 | C.D. River | 14 | 17 |
| 11 | Bar La Paloma | 13 | 17 |
| 12 | Orlegi | 13 | 17 |

**EMAITZA**

Orlegi 1 - 1 Aramaixo

C.D. Lagran 0-3 Aramaixo (Lagran zigortu dute jokatu ezin zuen jokalari bat zelairatzeagatik)

**PARTIDUAK**

HILAK 16, ZAPATUA

**19:00** Aramaixo - Arizmendi

### Kantxan galdu arren, hiru puntuak etxera

Lagran bigarren sailkatuaren aurka kantxan galdu arren, hiru puntu lortu dituzte aramaioarrek, aurkariek jokatu ezin zuen jokalari bat zelairatu zutelako. Hiru puntu horiei esker, goialdean jarraitzen du Aramaiok. Hori bai, bihar irabazi beharra dago.

ELGETA

## Areto futboleko finalak bihar eta etzi izango dira

L.Z. | ELGETA

Gizonezkoek zapatuan, hilak 16, jokatuko dute finala. 11:30ean aurrez aurre izango dira Jaitxo eta Astuan Villa.

Emakumezkoek, berriz, domekan jokatuko dute finala: Etxaon eta Bandoleira taldeek 11:30ean emango diote hasiera norgehiagokari.

Umeen partiduak ere jokatuko dira. Barikuan, 18:00etan, Karramarroak-Txapeldunak partidua jokatuko da eta 19:00etan, Super Neskak-Kontuz Neskak. Xelebreak eta Lamoskagau taldeek domekan jokatuko dute, 10:30ean.

## Hilaren 23an, zapatua, haurrendako mendi irteera Azkonabietara

Eibarko, Soraluzeko eta Elgetako mendi taldeek umeendako mendi irteera antolatu dute. 10:00etan abiatuko da taldea Elgetatik, eta Azkonabietako postontzia aldatuko dute. Bueltan bazkaltzeko mahaiak ipiniko dituzte kiroldegian. 200 lagun elkartzea aurreikusten dute.

# Ezohiko urteurrena egingo dute aurten gaztetxean, eta auzolanerako dei egin dute

Asanbladakoek erabaki dute gaztetxea garbitzen emango dutela urteurrena

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako gaztetxeak 17 urte betetzen ditu, eta asanbladak urteurreneko egitaraua prestatu du. "Urteurren apur bat berezia izango da", aurreratu du Asanbladako Nagore Moralesek.

Badira hilabete batzuk Asanbladako kideak gaztetxea garbitzen eta konpontzen hasi zirela. Bigarren lokala goitik behera txukundu dute, eta aste bukaera honetan teilatuko lanak amaitzea, biltegia eta bulegoa txukuntzea eta gaztetxearen kanpoko aldea garbitzea proposatzen dute. "Egoera festarako baino lanerako dagoela ikusten dugu", esan du Asanbladako kide Janire Lazkanok.

Bi aste bukaerako plangintza egin dute. Bihar, zapatua, 10:00etarako egin dute hitzordua.

**Triki-poteoa eta zozketa**

Gaztetxea txukuntzea du ardatz urteurrenak, baina egongo da atsedenerako tartea ere. 12:30ean, *trikirifapoteua* egingo dute, eta 20:00etan preso politiko maputxeei elkartasuna adierazteko antolaturiko zozketa egingo dute. Gai horrekin lotuta Asanbladatik herriko ostalarien eta dendarien erantzuna eskertu dute, hamasei sari banatuko dituzte-eta.



Iazko urteurreneko trikipoteoa. | JOSETXO ARANTZABAL

**EGITARAUA**

**ZAPATUA, HILAK 16**

- **10:00** Ekin auzolanari.
- **12:30** *Trikirifapoteua*.
- **14:30** Bazkaria. Nork berea eramanda.
- **15:00** Kafea+postrea, doan.
- **15:30** Berriz auzolanera.
- **18:30** Merienda.
- **19:00** Materiala jaso.
- **20:00** Boletoen zozketa.

**DOMEKA, HILAK 24**

- **10:00** Ekin auzolanari.
- **14:00** Bazkaria.
- **14:30** Kafea+postrea doan.

## OHARRAK

**AHOTSAK-EK EKITALDIA**
Badihardugu elkarteak ekitaldia egingo du Espaloian gaur, barikua, 18:30ean.

**MENDI IRTEERA**
Kantsatzekek antolatuta Lendoño-Tologorri-Lendoño ibilbidea domekan, 08:00etan plazatik abiatuta.

**ERRIMAK OINETAN**
Ikuskizuna, domekan, 22:30ean, Espaloian. Prezioa: 8 euro; bazkideendako, 5. Korrika Kulturalaren barruan.

**PODOLOGOA**
Erretiratuendako zerbitzua hilaren 21ean, eguena. Izen -emateak 943 76 80 77 (Nati).

**KORRIKA TXIKIA**
Eguenean, hilak 21, eskolatik 15:00etan abiatuta. Herriko plazan amaituko da. Korrika materiala erosteko aukera egongo da.

**JAKOBA ERREKONDO**
Nekazarien kooperatibak antolatuta nekazaritza ekologikoari buruz hitz egingo du Errekondok eguenean, hilak 21, 19:00etan, kultura etxean.

**ERRETIRATUEN BATZARRA**
Urteko batzar orokorra egingo dute hilaren 22an, barikua. 17:30ean, Ozkarbi elkartean.

LEINTZ GATZAGA

**Juan Luis Zabala** | Ingurumen eta Zerbitzuetako zinegotzia

# "Konposta euren kabuz egiten dutenek %25eko hobaria izango dute fakturetan"

Hondakinak kudeatzeko sistema berria udan erabiltzeko moduan izan nahi dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Juan Luis Zabala Ingurumen zinegotziari galdetu diogu hondakinen kudeaketarekin lotutako xehetasunen gainean.

**Edukiontzi gehiago ipini behar dituzue, ezta?**

Arlabango eta Goierriko auzoetan zegoen edukiontzi berdea; hor jarriko ditugu miniguneak.

**Zer dira miniguneak?**

Ekarpen-guneak. Nagusia ipini behar dugu herrian. Hor ipiniko ditugu txabolatxo baten barruan ontzi arinak, papera, errefusa eta fardelak batzeko edukiontziak. Eta kanpoan beira, oihala eta olioa batzekoak. Eta, seguru aski, ipiniko ditugu pilak batzekoak ere bai. Orain, udaletxean jasotzen ditugu, baina jendeak eskatu zuen ekarpen-gunean jartzeko. Miniguneetan, berriz, jasoko dira plastikozko poltsak, ontzi arinak, papera eta errefusa.

**Obrarik egin beharra dago?**

Bai. Mankomunitateak ordainduko ditu. Herriko ekarpen-gunea eta bi auzo-konpostagailu egokitu behar dira. Ekarpen-gunea itxita egongo da, eta erabiltzaile bakoitzak izango du atea zabaltzeko bidea. Herriak eta bederatzi baserrik erabiliko dute.

**Eta miniguneak?**

Bat izango da Arlabangoa. Kokapena aztertzen gabiltza. Zortzi baserrik erabiliko dute. Bestea izango da Goierrikoa. Hori jarriko dugu errepidea eta trenbidea elkartzen diren lekutik gertu. 13 baserrik erabiliko dute. Eta badaude beste bost baserri Arabaren esku daudenak, eta haiei eman behar diegu aukera erabakitzeko zein minigune erabili gura duten. Horiek ere Mankomunitateak egingo ditu. Hil amaieran adjudikazioa egingo da eta obrak Aste Santu-uda artean hasiko dira, guztiak batera egingo dira.

**Eta jatetxeak?**

Selektiboki jasoko ditugu hondakinak, egutegi bidez. Organikoa kenduta.

**Eta organikoak, beraz, zela?**

Herria bi zatitan banatu dugu: goikoa eta behekoa. Goiko konpostagailu komunitarioa Errosarioko aparkalekuan jarriko dugu. Ez dugu aparkalekurik galduko. 1.000 litroko hiru konpostagailu izango dira. 36 etxebizitzarendako. Etorkizunean egin ahal diren etxe berriak barne. Behean, 48 etxebizitza, jatetxe, elkarte eta Jakionendako konpostagailua izango da. Hala ere, Soran jatetxeak bere aldetik egingo du konposta eta Arrate pentsatzen dabil. Eskola eta Leintzargiko instalazio artean ipiniko dugu: hiru konpostagailu 1.000 litrokoak eta beste bat 2.000 litrokoa. Bestalde, baserri gehienak bere kabuz ibiliko dira; batzuk badabiltza konposta egiten. Eta goiko jatetxeei dagokienez, Gaztainuzketak eta Gatzagainek esan digute bere kabuz egingo dutela. Gure Ametsak nahiago du Mankomunitatearen esku lagatzea. Xabi Jausoro langileak egingo du lan hori, eta herriko konpostagailuaren ardura ere harena izango da. Dena den, herritarren kasuan ere, nahiago dugu ortu edo lorategiren bat duenak bere kabuz egitea konposta. Egiten dutenek %25eko hobaria izango dute hondakinen fakturan. Baina hori aplikatuko da teknikariak ikusi ostean benetan konposta egiten dutela. Obrekin batera, ikastaroak emango ditugu azalpenak emateko. Kuboak ere banatu behar ditugu, giltzak edo txartelak…



Juan Luis Zabala, bere konpostagailuarekin egindakoa erakusten. | UBANE MADERA

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## Gurelen batzarrerako proposamenak, martxoaren 17rako

Aurtengo aurrekontua, urte osoko ekintzak eta, besteak beste, Gurel elkartearen batzorde aldaketa berbagai izango dituzte elkartearen aurtengo batzar orokorrean. Hain justu ere, batzordea osatzen duten lau lagunetatik bi berritu egin dituzte. Martxoaren 24an egingo dute batzarra, 11:30ean, ludotekan. Hala ere, proposamenak egiteko azken eguna domekan, martxoaren 17an, bukatuko da. Gureleko lantaldeei aurkeztu behar zaizkie proposamenok.

## Herri bazkaria eta Korrika Txikia datozen egunotan

Bihar, zapatua, Korrikaren bueltan bertso bazkaria egingo dute Soran etxean. Julio Soto eta Arkaitz Estiballes, hurrenez hurren Nafarroako eta Bizkaiko txapeldunak, izango dituzte gonbidatu. 13:30ean da hitzordua, kalean triki-poteoa egiteko. Bazkaria, berriz, 14:30ean izango da. Ostean, umeendako ipuin kontalaria izango da, kultura etxean. Bestalde, eguenean, martxoaren 21ean, Korrika Txikia egingo dute, 17:30ean, Gatz Museotik aterata.



Bizikletak gertu Foru plazako boxean, iazko duatloian. | JULIO CALLEJA

DUATLOIA

# Duatloi zirkuiturako lasterketa Oñatin

## Zazpigarren proba puntuagarria izango da eta 15:30ean hasiko dute

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI
Oñatiko duatloiak 22. edizioa beteko du bihar, zapatua. Oñati Triatloi Taldeak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatutako proba distantzia motzeko lasterketa da; hau da, 10 kilometro korrika, 40 bizikletan eta bost korrika. Era berean, Euskal Herriko duatloi zirkuiturako zazpigarren proba puntuagarria da.

Iaz, Gipuzkoako txapelketa izan zen Oñatiko duatloia. Aurten ez. Horrek baina, ez du eragingo parte-hartzaile kopuruan eta euren mailan. "Domekan, beste lekuren baten probaren bat egon izan balitz, horrek eragina izango luke parte-hartzaile kopuruan. Baina, domekan ez dago beste probarik. Gipuzkoako txapelketa ez da gurean jokatuko, baina zirkuiturako puntuagarria denez, duatletarik onenak espero ditugu", esan zion GOIENAri Oñati Triatloi taldeko kide Unai Pedregalek. Izen propioak aipatzearren: Nicolas Capoferri frantziarra eta Gurutze Frades. Azken horrek triatloietan parte hartzen du, eta Espainiako txapelketa irabazi zuen iaz.

### Euskadiko zirkuitua

Eurekin batera egongo dira, Euskadiko zirkuituko lehian daudenak; besteak beste, lehenengo hiru lekutan dauden, Juan Jose Romero, Miguel Angel Igartua oñatiarra eta Kepa Varela bergarra; eta Inmaculada Ruiz, Naike Erezoñaga eta Uribarri Egia.

DATUA

**300**

DUATLETA

Horiek dira antolatzaileek espero dituzten parte-hartzaileak.

### Berrikuntza barik

Biharko duatloiak ez dauka berrikuntzarik. Orain dela bi urte ibilbidea luzatu zuten, baina aurtengoak ez dauka aldaketarik.

Antolatzaileek 400 lagunendako lekua dute, baina 300 bat espero dituzte. "Ez ditugu leku guztiak beteko. Ibilbidea luzatu genuen urtean, 400 egon ziren, baina, oraingoan gutxiago izango dira", esan zigun Pedregalek.

Proba Foru plazan hasi eta bukatuko da. 15:30ean emakumeek hasiko dute proba, eta 15:45ean mutilak. Antolatzaileen aurreikuspenak betetzen badira, lehena 17:30 aldera helduko da.

ESKUBALOIA

## Ford Mugarrik igoera fasea prestatzeko erabiliko ditu liga txapelketako azken bost partiduak

**M.B.** | ARRASATE
Bost partidu geratzen dira Euskadiko txapelketa bukatzeko, eta horiek erabiliko ditu Ford Mugarrik igoera fasea prestatzeko. Liga txapelketari begirik kendu barik, maiatzaren 11n jokatuko duten igoera gorriz markatuta dauka Pablo Gartzia entrenatzaileak: "Ez dugu liga bukatu, baina igoera aurretik prestatu beharra daukagu. Txapelketa apirilaren 21ean bukatuko dugu eta igoera maiatzaren 11n hasiko da. Tarte horretan ezin dugu igoera behar den moduan prestatu. Aurretik egingo dugu lana".

### Entrenamenduak gogortu

Arrasatearrek euren esku dute igoerarako txartela lortzea: lehen lekuan daude, Askartzarekin berdinduta, eta Ereintzak baino zazpi puntu gehiago dituzte. "Hamar puntu daude jokoan eta zazpiko errenta daukagu. Duda barik, gure esku dago", diote. Dena den, ez dute lehen lekua galdu nahi, eta horretarako asko hobetu beharko dute azken astetako joko maila. "Ez da aitzakiak ipintzearren. Baina igoera prestatzeko entrenamenduak gogortu egin ditugu, eta, akaso, nekatuegi heltzen gara partiduetara".



Ford Mugarriko jokalaria. | GOIENA

### Zapatuan Basaurin

Lehen lekuari heldu gura badiote, aste bukaeran irabazi egin beharko dute Basaurin: bihar, 16:30ean. "Azken-aurrekoak dira, baina zaila izango da", diote.

TXIRRINDULARITZA

# Caja Rural eta Ivan Velasco Euskal Herriko Itzulian

## Apirilaren 1ean Elgoibarren egongo dira eta euren asmoa da ihesaldiren baten sartzea

**M.B.** | ARRASATE
Caja Ruralek eta Ivan Velascok Euskal Herriko Txirrindulari Itzulian parte hartuko dute. Hori da arrasatearrak bere egutegian duen probetako bat. "Euskal Herriko Itzulian zerbait ona egiteko gogoa daukat. Etxekoen eta lagunen aurrean", esan digu Velascok.

Caja Rural taldea martxoaren 8an aurkeztu zuten Iruñean, Baluarten. Bada, Eugenio Goikoetxeak 16 txirrindulari izango ditu denboraldiari aurre egiteko.

### Denboraldia bi zatitan

Velasco urtarrilean hasi zen probetan parte hartzen. Dena den, bere denboraldia bitan banatzen da: alde batetik, Kataluniako, Euskal Herriko eta Gaztela eta Leongo itzuliak eta Turkiakoa; eta beste alde batetik, irailean, Espainiako Itzulia. Dena den, Caja Ruralek gonbidapena beharko du Espainiako Itzulian parte hartzeko. "Iaz egindako lana aintzat hartuta, gonbidapena jasotzea espero dugu", dio Velascok.

Egutegia zehaztuta duen arren, begiz jota dauka Euskal Herriko Itzulia. Sailkapen orokorrari begira baino gehiago, ihesaldiren batean sartzeko ilusioa dauka.

### Babeslea

Caja Rural taldearen helburuak Velascok dituenaren oso antzekoak dira: ihesaldietan sartu, eta, ahal bada, garaipenen bat lortu. "Babesleari publizitatea egiteko aurreko lekuetan eta ihesaldietan ibili beharko dugu", azpimarratu digu.



Caja Rural taldeko kideak. | RAFA GOMEZ

SASKIBALOIA

## Ordizian jasotako kolpea ahazteko asmoa dauka Mondragon Unibertsitateak Tabirakoren kontra

Mondragon Unibertsitateak Tabirakoren kontra jokatuko du bihar, zapatua, Iturripen, 18:00etan. Arrasatearrek irabazten badute, bi garaipeneko abantaila hartuko dute sailkapenean. Aurreko astean, Ordizian partidu txarra jokatu zuten, erasoan eta defentsan. Orduan egindako akatsak zuzendu beharko dituzte biharko partidua irabazteko.

SASKIBALOIA

## Aluminios Alberdi sailkapeneko azkenaren kontra ere sentsazio onekin jokatu gura du Natra Oñatik

Otsaileko bolada txarra ahaztuta, lehen lekuan sendo jarraitzeko pauso bat gehiago eman gura du Natra Oñatik: Urretxun jokatuko du bihar, zapatua, 18:30ean. Aluminios Alberdi taldea sailkapeneko azken lekuan dago, bi partidu bakarrik irabazita. Bada, oñatiarrek badakite Estelaren kontra erakutsitako maila bera eman beharko dutela irabazteko.

PILOTA

## Dorleta pilota txapelketako hirugarren jardunaldiko partiduak jokatuko dituzte domekan Leintz Gatzagan

Dorleta pilota txapelketako hirugarren jardunaldiko partiduak etzi, domeka, jokatuko dituzte Gatzagan, 09:00etan. Hauek dira lehiak: beteranoetan, Lasagabaster-Altzola, Muruamendiaraz-Aranburu; eta Arrieta anaiak, Aranburu-Leibar. Alebinetan, Del Campo-Sorozabal, Larrazabal-Udaneta. Benjaminetan, Goenaga-Astigarraga, Del Toro-Zubia; eta Barbaro-Gomez, Sarabia-Zubia. Eta seniorretan, Iriondo-Murgiondo, Muguruza-Iñarra.

FUTBOLA

# Puntu inportanteak jokoan Aloña eta Mondrarendako

## Biek ala biek eta UDAK etxean jokatuko dute; Bergarak eta Antzuolak, kanpoan

**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE

Ohorezko Erregional Mailako taldeek 26. jardunaldia jokatuko dute aste bukaeran. Liga bukatzeko zortzi partidu geratzen dira, eta kontuak egiten hasteko unea ere bada. Hamargarren lekuan dagoen Aloñaren eta azken sailkatuaren artean zazpi puntuko aldea dago. Hori horrela, ez dago hautagai garbirik maila galtzeko. Azken leku horietan daude Aloña eta Mondra.


Aloñako Josu Moreno jokalaria Trintxerperen kontra. | JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiarrek egin dituzte kontuak: hiru garaipenekin maila mantenduko dute. Touringen kontra puntu bakarra lortuta, Zarautzen (domeka, 16:30) aurka irabazi beharko dute Azkoagainen, bai edo bai. Dena den, Aloñak elurrarengatik atzeratutako partidua jokatu behar du oraindik. Beti Gazteren kontrakoa, Pazko astean izango da.

**Bestelako helburuak**

Mondrak ere puntuak behar ditu, eta lehia erabakigarriak ditu aurretik. Bada, domekan, Hernaniren bisita izango du. Partidu gogorra izango da, Hernanik ere puntuak behar dituelako, Hirugarren Mailarako igoera ematen duen bigarren lekuan mantentzeko. Arrasatearrek maila polita erakutsi dute azken bi derbietan. Aloña luzapenean menderatu zuten eta Bergararen kontra bi puntu galdu zituzten azken minutuetan.

UDAren eta Bergararen helburuak oso bestelakoak dira. Aretxabaletarren helburua igoera zen, baina 11 puntura dituzte postu horiek. Domekan Berioren bisita izango dute Ibarran.

Bergarak, aldiz, egin ditu denboraldiko etxeko lanak. 42 punturekin maila ziurtatuta dauka, eta hurrengo denboraldia antolatzen hasiko da laster. Touringen kontra jokatuko dute bihar.

Ohorezko Erregional Mailarako igoera bere esku duena Antzuola da. Bost puntuko errenta dauka liga bukatzeko geratzen diren zazpi partiduei aurre egiteko. Eibarren jokatuko du bihar (15:30), eta, irabaziz gero, pauso garrantzitsua emango du.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKUMEZKOEN BI. MAILA**
Mondra-Abanto
Zapatua. 17:00. Mojategi.

**EUSKAL LIGA, EMAKUMEZK.**
Barakaldo-Arizmendi
Zapatua. 18:00. La Siebe

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**
Hernani-Aretxabaleta
Zapatua. 18:30. Zubipe.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Touring-Bergara
Zapatua. 16:30. Fanderia.
Aretxabaleta-Berio
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Zarautz
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Mondragon-Hernani
Domeka. 16:30. Mojategi

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Eibartarrak-Antzuola
Zapatua. 15:30. Unbe.

**LEHEN ERREGIONALA, IGO.**
Vasconia-Aretxabaleta B
Domeka. 16:30. Puio.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
Soraluze-Arizmendi
Domeka. 16:15. Ezozia..
Eibartarrak-Bergara
Zapatua. 17:30. Unbe.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Mondra-Zumaiako
Domeka. 11:30. Mojategi.
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**GAZTEAK 1. MAILA, IGOERA.**
Aretxabaleta B-Urnieta
Domeka. 16:00. San Jose..

**GAZTEAK 1. MAILA, KOPA**
Beasain-Bergara
Zapatua. 15:30. Igartza.
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 11:30. Almen.
Eibartarrak B-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Unbe.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza-Alkideba
Zapatua. 17:00. M. Muñoz.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Basauri-Ford Mugarri
Zapatua. 16:30. Basauri.
Soraluze BKE-Quiron.
Zapatua. 17:45. Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
Aluminios Alberdi-Natra
Zapatua. 18:30. Urretxu.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
MU-Tabirako
Zapatua. 18:00. Iturripe.


GOIENA

**ESKUBALOIA** Soraluze BKE taldeak artidu gogorra jokatuko du Labegaraietan: bigarren lekuan dagoen Askartzaren bisita izango du. Bihar, zapatua, 17:45ean.

**IRABAZLEAK**

ZORIONAK, GUZTIOI!

Hauek izan dira, GOIENA KLUBeko bazkide izanagatik,
Aisia Deba hotelean erlaxatzeko aukera izango duten debagoiendarrak!

**Eta adi! Zu izan zaitezke hurrengoa!**


**Amaia Bengoa** (Eskoriatza)


**Iñaki Zabaleta** (Arrasate)


**Ramon Latorre** (Bergara)


**Yolanda Cebrian** (Antzuola)


**Oskar Regodeseves** (Arrasate)

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA**
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

**BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE**
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA



Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle eta irakasleetako batzuk, martitzeneko entseguan. | MIREIA BIKUÑA

# Musika, eskolatik kalera

▶ Euskal Herriko musika eskolen topaketa egingo dute apirilaren 27an

▶ Oñatiko musika eskolak egun osoko egitaraua prestatzen dihardu

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak topaketa egingo du Oñatin apirilaren 27an. Musikaldian 42 musika eskolatako 2.500 ordezkari elkartuko dira, helburu bakar batekin: musika eskoletan egiten den lana erakustea. "Musika eskoletan lan handia egiten dugu. Ez dugu musika bakarrik erakusten. Formazio zabalagoa ematen dugu. Musikaldia bezalako ekitaldiekin gure lana kalera ateratzeko aukera izaten dugu", esan digu Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako zuzendari Aitor Madinak.

**Egun osoko egitaraua**

Musikaldia bi urtean behin egiten dute, eta, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen ekimena bada ere, herririk herri antolatzen dute. Aurtengoa Oñatiko musika eskolaren esku dago. "Lan handia da, baina aberasgarria izango delakoan gaude. Ikasleekin irailean hasi ginen urteko egun handia prestatzen. Hilabete dugu aurretik azken ukituak emateko, bai ikasleekin eta baita antolakuntza aldetik", dio Madinak.

Azken Musikaldiak egun erdikoak izan dira, baina Oñatikoa egun osokoa izango da. "Egun erdiko egitaraua edo egun osokoa antolatzeko aurrekontuak oso antzekoak ziren. Pentsatu genuen egun osokoa egitea. Besteak beste, krisi garaian egonda, 50.000 euro ditugulako topaketa antolatzeko. Diru hori fundamentuzko ekintzekin gastatuko dugu", esan digute Jose de Azpiazu musika eskolan.

**Sei gune musika entzuteko**

Musikaldiak sei gune nagusi izango ditu: Foru plaza, unibertsitate aurrea, Santa Ana antzokia, parrokia, San Migel Txikiko plazatxoa eta Atzeko kalea. Horietan guztietan, musika izango da protagonista. "Parte-hartzaile kopurua ikusita, ez dakigu nola antolatuko dugun. Talde handiak Foru plazan egongo dira, abesbatzak parrokian, talde txikiagoak unibertsitate aurrean...", esan digute.

Sei guneetan musika aldi berean ez egotea lortu gura dute. "Herritarrek gune guztietako musika entzutea da gure gogoa. Bi edo hiru gunetan saioak aldi berean badaude, talde batzuen emanaldiak galdu egingo dituzte. Baina talde asko etorriko dira, eta zaila izango da hori lortzea", esan digu Arantzazu Bikuña irakasleak.

**Iban Garate aurkezle**

Musikaldirako azken ukituak lotzea falta den arren, egitaraua zehaztuta daukate. Aurkezpen ekitaldia 10:30ean egingo dute Foru plazan. Iban Garatek egingo ditu gidari lanak.

Han egongo dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburu Cristina Uriarte, Oñatiko udal ordezkariak eta musika eskoletako ordezkariak. Berbaldien ondoren, Musikaldirako propio egindako abestiaren estreinaldia egingo dute (goiko taulan). "Musika eskolako ikasle izandako bi lagunek egin dute abestia: Egoitz Aizpuruk idatzi du letra eta Lander Diaz de Gereñuk sortu du musika", esan digute.

Segidan, 11:00etatik 14:00etara musika emanaldiak egingo dituzte sei guneetan, eta, bazkaldu aurretik, gorputz-perkusioarekin dantza erakustaldia egingo dute. "Musikaz gain, beste hainbat arlo jorratzen ditugu eskolan. Gorputzarekin perkusioa landu daitekeela erakutsiko dugu", dio Bikuñak.

Arratsaldeko emanaldiaren ondoren, hainbat koreografia eginez bukatuko dute Musikaldia. Dantzak *www.jazpiazumusikaeskola.com* atarian zintzilikatu dituzte. Ondoren txokolate-jana eta Obaneuke taldearen erromeria egongo dira.

**Irailean, 25. urteurrena**

Jose de Azpiazu musika eskolak 25 urte beteko ditu irailean hasiko duen ikasturtean. Musikaldiaren antolakuntza urteurreneko ekitaldien barruan sartu dute. Egun, Gorritxitxin dute egoitza, eta 340 bat ikasle dituzte.

DATUA

**2.500**

PARTE-HARTZAILE

**Horiek dira apirilaren 27ko Musikaldirako izena eman duten lagunak. 42 musika eskolatako ikasle eta irakasleak dira.**

ESANAK

**"Irailean hasi ginen Musikaldia antolatzen; lan handia da, baina aberasgarria"**

AITOR MADINA | ZUZENDARIA

## Musikaldirako abestia

**Musikari**

*__Bizitza__ sortzearen kanpai hotsak ziren*
*amaren bihotzaren taupaden erritmoz*
*lehen sehaska kantak sabel barrenetik entzuten zituen*
*negarrak du doinu bat parreak beste bat*
*jaiotzaren unean elkartu zirenak*

*__Laztanek__ eraginak dituzte gerora*
*ukitu ezinean abestutakoak*
*Amaren bestoetan ezaguna zitzaion aitaren ahotsa*
*beharrezkoak dira mila txalo bero*
*egunei kaixo eta agur esateko*

*__(Errepika)__ Izan direnak dio izango zarenarengatik*
*erraietan duzuna eman musikari*
*sentipenen pausoak dantzaldi eroan*
*daramazun bidean izan musikari (bis)*

*__Amesten__ den musua, eman gabekoa,*
*abesti luze baten bukaera lehorra*
*ezpainetan zain zela haizeak neguan lapurtutakoa*
*soinu berri bat jarri musu bakoitzari*
*abestu ahal izateko udaberriari*

*__Denborak__ ezarri du bizi erritmoa*
*norbere izaerak berriz melodia*
*arnas, pausu, irrifar, hasperen artean, moldatuaz doa*
*zurruna, moldakorra, gogorra, eztia*
*gure eskuran dago gure abestia*

*__(Errepika)__ Izan direnak dio izango zarenarengatik*
*erraietan duzuna eman musikari*
*sentipenen pausoak dantzaldi eroan*
*daramazun bidean izan musikari (bis)*

**Hitzak: Egoitz Aizpuru**
**Musika: Lander Diaz de Gereñu**



Ander Barruso, Jon Solaun, Kristina Urizarbarrena eta Laura Marchante Lersundi. Maider Montalban falta da. | A.E.

# Bost artistak bat egingo dute 'Convergen5' lanean

## Gaur zabalduko dute, 19:00etan, eta hilaren 31ra arte egongo da zabalik

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Aroztegi aretoan *Convergen5* erakusketa egongo da ikusgai gaur hasi eta hil bukaerara arte. *Convergen5* bost artista gazteren erakusketa da; tartean dago Ander Barruso bergararra. Gainerakoak Kristina Urizarbarrena, Laura Marchante Lersundi, Maider Montalban eta Jon Solaun dira.

Euren arteko elkarreragin eta sinergiak, eta indar horiek artista bakoitzaren bidean duten eraginean oinarritzen da erakusketa.

**Arte Ederretako ikasleak dira**

Bostak dira Bilboko Arte Ederretako ikasleak. Artista bakoitzak lan egiteko metodologia edo teknika bat du eta hain zuzen hori errespetatu nahi izan dute erakusketan. Hala, akrilikoak, mistoak, collageak, akuarelak eta eskanografiak ikus ahal izango dira Aroztegiko erakusketan. "Erakusketa hau egin dugu gure sormenari bide berriak bilatzeko", dio Barrusok. Bost artistek bat egin dute lanean.

"Gutariko bakoitzak koadro edo lan batzuk egin ditu; baina, koadro horiek guztiak batera jarrita, artelan bat osatzen dute", azaldu du Ander Barrusok.

**ESANAK**

**"Sormenari bide berriak bilatzeko aukera da"**

**ANDER BARRUSO** | IKASLEA

**Aukera ona dela diote**

Aroztegira joango denak "zerbait ezberdina" ikusiko duela nabarmendu du Barrusok. "Gazteek egindako erakusketa da, eta gauzak ikusteko beste modu bat erakusten dugu", gaineratu du.

Barrusoren lehenengo erakusketa "serioa" da eta pozik dago: "Areto ona da, handia eta argitasun asko duena. Gainera, areto ezaguna da", dio. Barruso Beart elkarteko kidea da: "Erakusketak egin eta horietan parte hartzeko aukera eskaintzen du elkarteak. Mugimendu handia duen taldea da", azaldu du.

Irekiera gaur izango da, 19:00etan, eta luncha egongo da hara joango direnendako.

# Arratsalde entretenigarria zaharren egoitzan

Oñatiko Ikusi-Makusi antzerki taldeak ez zion hutsik egin urteroko hitzorduari. Aretxabaletako GSR Debagoiena zaharren egoitzan *¡Dónde está la pierna del alcalde!* antzezlan entretenigarria eskaini zuten erretiratuek. Arratsalde-pasa polita eta entretenigarria izan zuten egoitzako egoiliarrek.



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

# Badihardugu jaialdia egingo du gaur Espaloian, 18:30ean

**A.E.** | ELGETA

Ahotsak proiektuaren 10 urteotako laburpena egitea eta, bidez batez, urte hauetan guztietan bidelagun izan dituztenak omentzea izango da gaur Espaloian egingo duten ekitaldiaren helburua. Badihardugu euskara elkarteak antolatu du emanaldia; 18:30ean izango da.

Proiektuaren helburu nagusia Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea izan da; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu, eta euren euskara eta bizipenak jasotzea eta herritarren artean zabaltzea. Proiektua orain dela 10 urte hasi zuten arren, *www.ahotsak.net* ataria orain dela 5 urte jarri zuten martxan. Atarian orain arte egin dituzten elkarrizketak jarri dituzte entzungai eta ikusgai. 4.250 hizlariren testigantzak jaso dituzte, Euskal Herriko 265 herritan, eta 43.446 pasarte jasota. Datuok eguaztenekoak dira.

**Webgune berria aurkeztu**

Ekitaldia Mikel Laskurain aktore bergararrak gidatuko du. 10 urteotako datuak eskainiko ditu, orain arteko historia eta ibilbidea errepasatuta. Horrez gain, webgune berriaren aurkezpena ere egingo dute, eta baita webgunearen *Komunitate* atalarena ere. Esan bezala, ekitaldia aprobetxatuko dute bidelagun izan dituzten guztiak eskertu eta omentzeko. Ekitaldi arina izango dela aurreratu dute, 45 bat minutu ingurukoa, eta musikari, bertsolari eta artisten laguntza izango dute.

Ekitaldi amaieran luncha izango dute. 20:30etik aurrera, berriz, MP5 taldeak kontzertua eskainiko du.

# Oinak errimetan eta errimak oinetan jarriko dituzte Haatik taldekoek

## Emanaldia domekan izango da, 19:00etan, Elgetako Espaloia kafe antzokian

**A.E.** | ELGETA

Haatik taldeak *Errimak oinetan* ikuskizuna eskainiko du domekan Espaloia kafe antzokian. Aiert Beobidek eta Unai Elizasuk sortu eta zuzentzen dute ikuskizuna. "Dantza berriak bertsoei jarriak", horrela definitu dute ikuskizuna.

**Entzuleak dantzari bilakatu**

Ikuskizunak dantza eta bertsoa nahasten ditu, edo, bestela esanda, bertsolaritza oinarri duen dantza emanaldia izango da. "Aiert Beobide dantzariak esan izan dit ez dela erraza gorputzarekin bakarrik ikusleengana heltzea", dio Elizasuk. Hala, orain dela bi urte izan zuten ikuskizuna sortzeko ideia; 2012ko maiatzean estreinatu zuten. "Bertso ikuspuntutik egindako dantza emanaldia da", dio Elizasuk.

**Maila handiko artistak**

Emanaldiko bertsoak Sustrai Colinak egin ditu eta dantzariak Aiert Bedobide, Maitane Muxika, Onintza Odriozola, Garazi Lekuona, Gotzon Poza eta Iurre Aranburu dira. Bixente Martinez, Hasier Oleaga eta Amaiur Cajaravillek bertso musikatuak egin dituzte eta kantuen egileak Mikel Urdangarin, Katamalo, Aitor eta Jon Sarasua, Gu ta Gutarrak, Miren Amuritza eta Maddalen Arzallus dira.

## Arrasate Literatura Lehiaketako lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 22a izango da

Lehiaketan Debagoienean bizi, lan egin edo ikasten duen orok parte har dezake. Ipuin, poesia eta bertso-paper sailetan parte hartu ahal izango dute 2002an edo lehenago jaiotakoek, betiere mailak desberdinduz. Bakoitzak nahi beste lan aurkezteko aukera izango du eta epea martxoaren 22an itxiko da. Aurten Debagoien osora zabaldu dute lehiaketa. Gaia librea izango da, baina euskarazko obra originalak eta inoiz saritu edota argitaratu gabekoak soilik aurkez daitezke lehiaketara.

# Bihar jokatuko da Arabako Bertsolari Txapelketako finala, Gasteizen

▶ Finaleko sei bertsolarien artean Manex Agirre aramaioarra izango da , 2011ko edizioko irabazlea

▶ Bertsolari Txapelketako finala Gasteizko Printzipal Antzokian izango da, 17:30ean

RUBEN CUESTA | ARAMAIO

Dena prest dute Arabako Bertsozale Elkarteko kideek bihar jokatuko den finalerako. Oholtza gainean arituko dira Manex Agirre aramaioarra, Asier Otamendi, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre, Ruben Sanchez eta Jagoba Apaolatza bertsolariak.

Finalean arituko den seikotea Arabako hainbat herritatik pasa da. Asier Otamendik (328 puntu) Izarrako finalerdia irabazi zuen, Manex Agirrek (354 puntu) Aramaiokoa eta Iñaki Viñasprek (328 puntu) Dulantzin izandakoa; eta Ruben Sanchez (321,5 puntu), Oihane Perea (309,5 puntu) eta Jagoba Apaolatza (307,5 puntu) Dulantzin lortutako puntuaketa handiagatik sailkatu dira. Bihar aurkezle lanetan Olatz Bayer arituko da eta gai-jartzaile gisa, Maialen Kortabarria.

Aurtengo finaleko txapela Abel Enbeitak jarriko du, Arabako bertsolaritzaren aitzindaria denak, eta bertso-eskolako gazteek sariak banatuko dituzte.



Jagoba Apaolatza, Oihane Perea, Iñaki Viñaspre, Ruben Sanchez, Manex Agirre eta Asier Otamendi, aurkezpenean. | ABE

**DATUA**

**20**

URTE

Aurten 20 urte bete dira Arabako Bertsozale Elkartea sortu zela.

Epaileen mahaia honakoek osatuko dute: Hodei Lopez de Arkaute, Ekaitz Elorriaga, Mikel Fernandez de Arroiabe, Patxi Aizpurua eta Iker Elexpuruk.

Sarrerak eskura daitezke Gasteizko Amaia zentroan, *www.bertsosarrerak.eu* webgunean eta egunean bertan ete leihatilan erosi ahal izango dira, lehenago agortzen ez badira.

**'Lotu!' lelopean, Gasteizera**

*Lotu!* da aurtengo leloa. Iaz 30 urte bete zituzten Arabako bertso-eskolek eta aurten elkarteak 20 urte bete ditu. Beraz, lotura egon da garai hartan bertsolaritza martxan ipini zuten gazteen eta egun bertsolaritza aurrera eramaten duten gazteen artean. Lotura hori transmititu nahi izan dute lelo eta irudi horrekin.

**MANEX AGIRRE**
BERTSOLARIA

## "Arabako gizartea euskararen normalizazioan asko aldatu da"

Manex Agirre aramaioarra 2011ko Arabako Bertsolari Txapelketako irabazlea da. Bihar finalean egongo da.

**Nola aurreikusten duzu finala?**

Final polita izango dela aurreikusten dut. Txapelketa ez da motza; bi hilabete goaz lehenengo kanporaketa hasi zenetik eta biharko eguna heltzeko gogoa dugu.

**Zein gai sar daitezke biharko saioan?**

Gaurkotasuneko gaietan, murrizketak, Aita Santua... Orokorrean, gizarteak kezkatzen dituen gaiak sartuko dira. Eta baita ohiko gaiak ere, jokoa ematen dutenak binakakoetan aritzeko.

**Nola ikusten duzu 20 urte bete dituen elkartea?**

Indartsu eta egoera onean ikusten dut. Arabako gizartea asko aldatu da euskararen erabileran eta normalizazioan. Elkarteak horri erantzuten jakin du, eta horrekin batera egin du bidea.


Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Maialen Esnaola** | Futbolaria

# "Berdintasunari erreparatuz, argi dago emakumezkook futbolean erraztasunik ez daukagula"

**JONE ALBENIZ** | BERGARA

Maialen Esnaola (1994, Bergara) futbolaria da 11 urte zituenetik. Egun, Kimikako ikasketak futbolarekin uztartzen ditu Bilbon, EHUn. Entrenamenduak, kimikako eskolak eta praktikak ditu egunero. Futbolean hasi zenetik, erdiko atzelari postuan jokatzen du. Bere ibilbidean zehar hainbat talderekin aritu da eta hainbat txapelketatan parte hartu du.

**Noiztik eta nondik datorkizu zaletasuna?**

Multikirolean kirol asko probatu ostean, futbola gustuko nuela jabetu nintzen. Eskolako jolasorduetan ere, lagunak futbolean aritzen ginen. Duela 7 urte hasi nintzen jokatzen, 11 urterekin, hain zuzen. Kasu askotan, familiak bultzatuta aukeratzen da kirol bat; ez da nire kasua, gurasoak saskibaloian aritzen baitziren gaztetan.

**Zein futbol talderekin jokatu duzu? Lorpen pertsonal nagusia?**

Txikitan Bergara BKE futbol taldean eman nituen nire lehen pausoak eta herriko taldean aritu naiz aurreko urtera arte. Arrasateko Mondra CF taldeak fitxatu ninduen arte. Gaur egun, Mondra CF taldean nago; gustura asko, gainera. Bergara BKE utzi nuenean Eibarko taldetik deitu zidaten, baina Arrasaten jokatzen hastea erabaki nuen.

Lorpen pertsonalei dagokienez, Realarekin joan izana kanpora txapelketaren bat jokatzera. Aurreko urtean ere taldearekin entrenatzeko deitu zidaten, eta bertara gerturatu nintzen denboratxo batez.

**Zein txapelketa irabazi dituzu ibilbidean zehar?**

Bergara BKE infantilen taldean jokatzen hasi nintzenean, liga irabazi genuen eta Gipuzkoako lehenengoak geratu ginen. Urte berean, Euskal Herriko finalera heldu ginen; bigarren postua lortuta triste bueltatu ginen etxera. Ordutik aurrera, Bergarako taldearekin beste bi liga irabazi genituen. Gasteiz Cup moduko txapelketetan ere parte hartu izan dugu, eta bat edo beste irabazi.

**Etxetik kanpo bizi zara. Zein talderekin eta non entrenatzen zara?**

Leioan ikasten dudanez, Plentzian bizi naiz, eta hemengo herriko talde batekin entrenatzen naiz, astean bi aldiz. Ostiraletan, berriz, nire taldea den Mondra CFrekin entrenatzera bueltatzen naiz. Eta asteburuan partiduaren txanda izaten da.

**Ze futbol zelaitan eta zein talderekin gustatuko litzaizuke jokatzea etorkizunean?**

Lehen mailako talde batekin gustatuko litzaidake jokatzea, Athletic edo Reala moduko talde baten, alegia. Camp Nou zelaian gustura ibiliko nintzatekeela suposatzen dut. [Barre]

**Lesio garrantzitsuren bat?**

Aurtengo denboraldian, duela gutxi bueltatu naiz zelaira; bihurdura bat izan nuen ezkerreko orkatilan, eta hilabetez egon naiz geldi. Gainera, martxan jarri eta berriro berdina pasa zitzaidan. Hori da izan dudan lesiorik garrantzitsuena. Txikitan ere ez nintzen geldirik egoten, eta kolpe batzuk hartutakoa naiz, bai…

**Anekdotaren bat?**

Nire lehenengo partidua federatu gabe jokatu nuen, LHko 6.mailan. Bergara BKEko infantilekin entrenatzen nintzen eta Gasteizen jokatzen zen txapelketa batera eraman ninduten. Neure atean sartu nuen gola. [Barre]

**Zer iritzi duzu emakume futbolarien egoeraz?**

Oso zaila da inora heltzea. Ikasketengatik edo beste arazoren batengatik futbola baztertu behar den momentua iristen da ia beti; nesken artean, tamalez, askotan izaten den faktorea da. Futbolean jokatzeaz soilik ezin da bizi emakumezko bat; profesionalek, jokatzeaz gain, lan egiten dute, edo ikasi. Oso zaila da profesionalki biak uztartzea.

**Kimika ikasten duzu. Zergatik aukeraketa hori?**

Ez neukan garbi zer ikasi, eta batxilergoko ikasgaietatik gustukoena kimika zen; ondorioz, erabakia hartzea kostatu egin bazitzaidan ere, kimika ikasten hasi naiz. Gustura nabil.

### MARRA AZKARREZ

**Futbolari bat:** Carles Puyol.
**Herriko txoko kutunena:** Goiko trenbidea eta etxea.
**Musika talde bat:** Doctor Deseo.
**Animalia bat:** Txakurra. *Zain* eta *Nagi*.
**Erronka:** Ikasketak eta futbola batzea.
**Ahaztuko ez duzun momentu bat:** Ahizpa jaio zenekoa.
**Liburu gustukoena:** *Mil soles esplendidos.*
**Egindako bidaia gustukoena:** Asturias.
**Zaletasunak:** Mendia eta gitarra.



Maialen, futbolean jokatzeko osagarriekin.

JONE ALBENIIZ

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Apartamentua salgai erdigunean, Uharkape kalean. 53 metro koadro erabilgarri. Egongela-sukaldea, bainugela, logela bat, balkoia eta jantzi-gela. Igogailuarekin. Berokuntza indibiduala. Jantzita. Ondo zainduta. Bizitzera joateko prest. 130.000 euro. Garajea aukeran. Deitu 619 18 14 86 edo 665 74 82 43 zenbakietara.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarran. Hiru logela, egongela-jangela, bi komun eta trastelekua. Hilean 600 euro, komunitateko gastuak barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:653 71 22 42

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Interesatuok Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 33 36 36

**Eskoriatza.** Etxebizitza errentan ematen da Eskoriatza erdian. Etxea berri da, hiru logela eta bi komunekoa. 652 70 08 00 edo 620 50 08 49

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikotea pisu bila Aramaion. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 620 15 13 11

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 634 41 90 51

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara 638 93 11 48

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 667 36 09 39

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan erdigunean, Andra Mari auzunean. 603 14 28 89

**Arrasate.** Etxea osatzeko logela ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara 699 11 45 14

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Uribe auzoan (langilea ahal bada). Oscar: 616 39 11 43; Josean: 695 03 76 75; Luis: 653 29 74 63

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia errentan edo salgai Kontzezino kalean, Iturbide egoitza parean. 15 metrokoa. Deitu 943 77 08 02 edo 628 14 92 74 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Uarkapen garaje itxia ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 680 77 64 05

**Bergara.** Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 943 76 06 60

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Onatin, Errekalde auzoko 45 zenbakiaren inguruan, garaje bat hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 950 27 05 78

**Oñatin.** Kalegoienan garajea hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 653 71 04 56

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**BERGARA**
Martxan dagoen kristaldegia eskualdatzen da.
772 35 04 35

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara edo Aretxabaleta.** Mutila gertu tabernan laguntzen edo nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 662 08 22 03

**Arrasate.** Bertako emakumea, 54 urtekoa, nagusiak edo umeak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 943 79 60 89

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. 699 54 17 27

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu goizez lan egiteko: umean zaindu, etxeko lanak egin eta abar. Maialen. 688 80 06 79

**Arrasate.** Neska gertu lan egiteko egun osoz, orduka, gauetan zein asteburuetan. Sukaldean, tabernatan, nagudi edo umeak zaintzen eta abar. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 645 58 71 61

**Basolanak.** egingo nituzke. Basoak garbitu zein baserri edo lorategietan. Javier. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 690 38 16 98

**Bergara.** Bergarako emakumea gertu gauetan emakumeak zaintzeko. 665 75 41 32

**Bergara.** Emakumea prest goizez etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 649 52 86 54

**Debagoiena.** 8 urteko eskarmentua duen neska nagusiak zantzeko gertu. Legezko paperak ditut. Egun osoz, orduka zein etxean bertan bizi izaten jardun dezaket. 688 38 07 46

**Debagoiena.** Bikotea gertu baserri lanak egiteko, bai ortuan eta baita animaliak zaintzen ere. 632 08 76 19

**Debagoiena.** Emakumea gartu lanerako: nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. 672 96 08 22

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanetan, lantegian zein jatetxetan. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Emakumea nagusiak zaindu eta garbitasun lanetarako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono honetara 637 07 23 70

**Debagoiena.** Emekumea lanerako gertu. Nagusiak edo umeak zaindu, etxeko lanak egin, sukaldatu.. Letitia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 632 08 76 19

**Debagoiena.** Erizain titulua daukan neska lan egiteko gertu. Gauean edo egunean zehar ospitalean edo etxean nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 688 80 27 01 edo 943 25 02 96 telefono zenbakira.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. ETXEBIZITZAK** | **3. LOKALAK** | **5. IRAKASKUNTZA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** |
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Alokatu | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 603. Konpondu | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | 604.Bestelakoak | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805.Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806.Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807.Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

**Debagoiena.** Garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Gauetan ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara 636 47 64 92

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223€.
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- Aranerreka 84 m², 3 logela, trastelekua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€ PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000€.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000€ baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000€. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
- Martoko m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000€.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€. Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**Debagoiena.** Gizona gertu lanerako. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela, egun osoz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 602 07 12 06

**Debagoiena.** Gizonezkoa edozein lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutil arduratsua prest edozein motatako lan egiteko; eskarmentua daukat eta orduka ere izan daiteke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 28 81 24

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko paperekin, lanerako gertu: igeltsari edo nekazaritza laguntzaile, zerbitzari zein nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa dazkat. 648 75 24 96

**Debagoiena.** Mutila gertu igeltsari edo peoi lanak egiteko. Baita nagusiak zaintzeko ere. 602 04 44 58

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Eskarmentua dut kontabilitatean, nagusien zaintzan etxean bertan bizi izaten, edota gidari lanetan. Baina bestelako edozer lan egiteko ere gertu nengoke. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 654 71 78 18

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, margoketa lanetan, soldatzen edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 637 07 23 70

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen edo atariak garbitzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 679 30 65 28

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esparientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Interesatuok deitu telefono honetara 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Sukaldaritza eta geriatriako oinarrizko ikasketak ditut. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izateko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 636 80 87 68

**Debagoiena.** Neska euskalduna, esperientzia eta informeekin, umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Baita gauez ere. Disponibilitate osoa, gidabaimen eta autoarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: nagusi edo umeak zaintzen, sukalde laguntzaile edo garbitasun lanetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 697 14 61 02

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: umak edo nagusiak zaintzen eta atari garbiketak egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Orain Eibarren bizi naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 631 22 32 92

**Debagoiena.** Neska gertu sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan jarduteko. Baita nagusiak zaintzeko ere. Etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 21 97 46

**Debagoiena.** Neska lan bila dabil Debagoienean. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Gauez, etxean bertan, orduka.. Garbiketa lanak egiteko ere gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:617 64 08 48

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu eta garbiketa lanetan jarduteko. Erreferentziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara 674 53 60 59

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu Debagioenean. Nagusi edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein egun osoz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 70 71 25

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu Debagoienean: ume zein nagusiak zaintzen, garbiketak, atariak eta abar. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono honetara 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danni. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 680 87 38 66

**Debagoiena.** Neska orduka edo gauez lan egiteko gertu Debagoienean. Silvia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 99 11 85

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauez, orduka edo etxean bertan bizi izaten Debagoienean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674 93 20 47

**Debagoiena.** Sukaldari esperientziaduna lanerako gertu: menuak, pintxoak edo bestela. Sukaldaritza ikasketekin eta urte askoan lanean aritutakoa. Aurel. Interesatuok deitu zenbaki honetara 666 83 21 95

**Mutila gertu edozein lan egiteko.** Etxeko mudantzak, jardineko lanak, etxeko mantenu orokorreko lanak egiten ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara 663 34 70 36

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Frantsesa.** Neskatila batentzako frantses irakasle bat behar dugu, zerotik hasteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 634 43 80 66

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Karabana.** 6 plazakoa. Egoera onean. Extra askorekin. Ez du matrikula gorri beharrik. Deitu 670 49 83 62 edo 685 75 29 17 zenbakietara eta Jonengatik galdetu.

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Arratoi-txakurkume bat eta artzain-txakurkume bat ematen dira opari. Norbatitek nahi badu dei dezala telefono zenbaki honetara 685 75 86 49

**Txakurra opari.** "Bodegero Andaluz" arrazako txakurra emango nuke opari. Emea. Norbatitek nahi badu dei dezala telefono zenbaki honetara 600 05 50 74

### 704. BESTELAKOAK

**Ninfa txoria galdu.** Ninfa txoria galdu dut Oñatiko Errekalde auzoan. Gorputza gris eta zuria dauka eta aurpegia zuria. Aurkitzen baduzu deitu telefono zenbaki hauetara, mesedez. 943 78 26 07 edo 610 81 99 31

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

